

Motibazioa, jarrera
eta aurrerapenaren
arteko
elkarreragina udal
langileen euskara
taldeetan.

Aitor Etxebarria Zamora

I. IKERKETA LANAREN AURKEZPENA

Ikerketa hau 2002-2003 ikasturtean burutu nuen Eusko Ikaskuntza eta EHUko Soziologia Fakultateren ardurapean dagoen HIZNET Hizkuntza Plangintzarako Ikastaroaren barruan kokatu beharra dago. Jakina denez, aipatu ikastaroaren bukaeran ikerketa lan bat egiten da ikastaroan zehar jasotako jakintza eta ezagupen guztien ondorio gisa.

1. LAN EREMUA

Santurtziko Udal Euskaltegia 2003-2004 ikasturtean talde berezietan ikasten ari ziren udal langileak. Hau da, udal langilez soilik osatutako ikastaldeak. Ikastalde hauek ikasturte honetan aritu izan dira egunerok erritmoan

Hogeita bat udal-langile hasi ziren 2003ko urrian. Hauetatik hamabik bukatu zuten ikasturtea. Batek ekainean bertan utzi zuen, beste bik martxo-apirila bitartean eta gainontzekoak urtarri-otsaila bitartean. Ikerketa honetan erabilitako lagina hamasei ikaslek osatzen dute, datu-bilketa hasi nuenean artean ikas-prozesuan jarraitzen zutenek hain zuzen ere.

Hamasei ikasleok bost talde txikitik aritu izan ziren: bi ikastalde bi ikaslez osatuta egon ziren (2. eta 3. ikastaldeak) eta gainontzekoak (1., 4. eta 5. ikastaldeak) launa ikaslek osatu zituzten. Talde osatzeko irizpide nagusiak maila eta lan-ordutegia izan ziren.

Zenbait ikastaldetan irakasle-aldaketak izan ziren Udal Euskaltegia bertan egin behar izan baitzen irakasleen berrantolaketa bat zerbitzuaren premiak zirela eta. Eta, azkenik, hirugarren hiruhilabeteen 2. eta 4. ikastaldeak batu egin ziren talde bakarra osatzeko.

Esperientzia hau, Santurtziko Udaleko Pertsonal eta Kultura Sailen ekimenez sortua eta Udal Euskaltegiaren parte hartze zuzenarekin burutua, berria izan da bai Santurtziko Udal Euskaltegia, bai Santurtziko Udalean. Izan ere, orain arte euskaltegia euskara ikasten aritu diren udal-langileak ohiko taldeetan murgilduta aritu ziren.

2. IKERKETAREN HELBURUAK

Helburu hirukoitza ezarri diot alde zuretik ikerketari, motibazioa, jarrera eta aurrerapena hiru kontzeptu hauen ustezko elkarreragina neurtzeko asmotan:

2.1. Motibazioa eta jarrera

Ba ote dago bi faktore hauen arteko nolabaiteko elkarreraginik? Beste era batera esanda: euskara ikasteko motibazio jakin batek ba ote dakar berarekin batera ikasteko jarrera bat? Hau da, ba ote dago erlazio edo loturarik motibazioa eta honelako faktoreen artean:

- Euskararen inguruko usteak eta sentimenduak
- Euskara ikasteko premiak (H.E. jakin bat kreditatzeko premiak...)
- Euskara erabiltzeko dituzten aukeren aprobetxamenduak (lanean bereziki, baina baita lanetik kanpo ere)
- Klasean azaldutako lan egiteko jarrera, asistentzia...

2.2. Motibazioa eta aurrerapena

Ezar daiteke loturarik euskara ikasteko arrazoen eta hauek eragindako ikas-prozesuko emaitzen (aurrerapena) artean?

2.3. Jarrera eta emaitzak

Azkenik, gorago aipatu ditugun zenbait faktorek (erabilera, euskararen inguruko usteak, dedikazioa, asistentzia...) zer nolako isla dute (baldin badute) emaitzetan? Eta hala balitz, ba ote dago emaitzetan eraginik handiena edo handiagoa duen hauetako elementuren batek?

3. LAN EGITEKO PROZEDURA

3.1. Datu-bilketa

A) Hasteko ikasleei galdetegi labur bat pasatu diet beraiei buruzko gutxieneko datu batzuk izateko, berauek hobeto identifikatzeko (ikus **1. eranskina**):

- Adina
- Lanpostua
- Orain arteko euskara maila
- Euskara erabiltzeko aukerak: lanean (bezero zein lankideekin); lanetik kanpo
- Seme-alabarik badute, zein eredutan matrikulatu dituzten.
- Euskara maila jakin bat kreditatzeko eperik, derrigortasunik... duten.
- Euskara klasea lan ordutegiaren barruan? Ezezko kasuan, izan da konpentsaziorik?

B) Elkarrizketa grabatuak Hauxe izan da lanaren gunea edo elementurik garrantzitsuenak. Elkarrizketok ikastaldeka egin ditut, nahiko talde txikiak baitira, esan bezala. Jaso nahi izan dudana informazioa, alde batetik, euskara ikasteko motibazioaren ingurukoa (Zertarako ikasten ari diren) eta, bestetik, jarreraren ingurukoa izan da. Arlo honetan puntu hauei buruzko informazioa jasotzen saiatu naiz, nagusiki: aurtengo esperientziaren balorazioa, beren ikas-prozesuaren inguruko hausnarketa bat egitea (zerk lagundu dien gehiago aurrera segitzeko eta zeintzuk izan diren oztoporik nabarienenak), euskararen erabilera, lanean zein lanetik kanpo; Hizkuntza Eskakizunak egiaztatzeko prozesuari buruz duten iritzia. (**2. eranskinean** ikus daiteke elkarrizketetarako gidoia eta elkarrizketa guztion transkribapena)

C) Aurrerapena neurtzeko bost datu-iturri erabili ditut:

- Alde batetik irakasleekin hirugarren hiruhilabetearen bukaeran izaniko elkarrizketak, ikasle bakoitzaren gainean (**3. eranskinean** ikus daitezke bai elkarrizketa hauetarako erabilitako gidoia, bai elkarrizketa hauen laburpena, ez transkribapena)
- Gainera, irakasleok euskaltegian egiten den ikasle guztien jarraipenerako bete beharreko ebaluazio fitxetarako sarbidea izan dut. Banan-banan aztertu ditut ekainean bete izan diren fitxa hauek guztiak. **4. eranskinean** ikus daiteke berauen laburpena.
- Bestetik, garai bertsuan ikasleak idatzizko produkzio bana jasotzen saiatu naiz (gutxienez, garai hartan oraindik ikastaldeketa jarraitzen zutenak) Honekin batera, auto-ebaluazio fitxaren bukaeran aurtengo ikasturtea hitz gutxitan laburbiltzeko eskatu diegan idazlantxoak ere kontuan hartu ditut.
- Honi Hizkuntza Eskakizunetara edo bestelako azterketaren batera aurkeztu direnen emaitzak gehitu behar zaizkio.
- Azkenik, ekainaren hasieran autoebaluazio-fitxa ikasleei pasatu diet, bai beraien helburuen betetze-maila ikusteko, bai idatzizko beste produkzio eredu bat esku artean izateko.

Ikastalde bakoitzean azterketa-antzeko zerbait pasatzeko aukeraz hitz eginda, bide honen desegokitasuna agerian jarri zitzaidan. Izan ere, prozedura hau ez zettorren bat ikastaro osoan jarraitutako ebaluazio prozesuarekin, ebaluazio jarraituarekin hain zuzen ere. Horregatik, kurtso bukaera aldera jasotako ikasleen produkzio idatzi bana jasotzera mugatu behar izan nuen.

3.2. Datuen azterketa

Bildutako datu hauen azterketarako lehen pausua “Ikasleen argazkia” osatzea izan da. Argazki hau egiteko plantila 5. **eranskinean** ikus daiteke eta hiru zutabe nagusik osatzen dute:

- a) Motibazioa: Zutabe honetan bi datu hauek txertatu ditut: Zertarako ikasten duen euskara ikasleak (hau elkarriketan ikasleak berak aitortua) eta Intentsitatea, hau da, motibazio horren graduazioa edo indarra adierazi nahi duena (ikaslearen beraren adierazpenetatik eta irakaslearen balorazioetatik ateratakoa)
- b) Jarrera: Zutabe hau hainbat elementuk osatzen dute. Hona hemen banan-banan aipatuak eta, honekin batera, datu hauek zein iturritatik eskuratu ditudan:
 - Asistentzia: alde batetik Euskaltegiko Idazkaritzan lortutako datu “hotzak” eskaintzen ditut eta, hauekin batera, irakasleak emandako balorazio subjektiboa, aurreko datuen osagarri (huts egin duenean, zergatik izan den, alde aurretik edo ondoren zuritu dituen, huts egindako klasean aritutakoaren inguruko informazioa eskuratzen saiatu den...)
 - Erabilera, bai ikasleak berak elkarriketa aitortua, bai irakasleak bere balorazioan adierazitakoa.
 - Lan egiteko jarrera: irakasleak esandakoaren gainean osatutako informazioa dugu honako hau.
 - Euskararekiko identifikazioa: elkarriketan ikasleak egindako adierazpenetatik eta auto-ebaluazio fitxan idatzitakotik atera dut arlo honetan idatzitako informazioa.
 - Ikastaroa dela eta: arlo honetan idatzirik azaltzen dena auto-ebaluazio fitxan hainbat galderari (3.ari eta 6.ari bereziki) emandako erantzunetan, gehi elkarriketetako adierazpenetan oinarritu naiz.
 - “Jarrera psikologikoa” deiturikoa. Ikerketa honetarako erabili izan dudana terminoa da, ez dakit modu oso zuzen edo zientifikoan. Izen honen azpian honako ezaugarri hauek kontuan hartu nahi izan ditut: eragozpenei aurre egiteko gaitasuna, ikas-prozesuan agerturiko izaera lasaia, urduria; porrotei aurre egiteko gaitasuna; ikas-estrategiak erabiltzeko gaitasuna, arazoei aurre egiteko tresna gisa...
- c) Aurrerapena: Atal honetan ikasleak ikasturtean zehar lortutakoaren balantze xehea islatu nahi izan dut. Gorago aipatu da zer nolako datuetan oinarritu naizen atal honetako datuak eskaintzerakoan.
- d) Gakoa: Atal honetan jarri nahi izan dut a), b) eta c) ataletan jasotako informaziotik zeintzuk diren, entresaka bat eginez, ikasle bakoitza besteengandik ondoen bereizten dituzten ezaugarriak, jarraian datorren azterketaren mesederako.

Ikasleen argazkiok aurrean ditudala, ekin diot azterketari. Eta berau hiru urrats nagusitan egin izan dut gorago aipatutako helburuei jarraiki:

1. Motibazioa eta Jarreraren arteko eraginaren azterketa. Beste hitz batzuekin esanda, ba ote dago nolabaiteko loturarik motibazio moten eta jarreraren artean? Euskara ikasteko motibazio jakin bati ikasteko jarrera jakin bat dagokio? Motibazio jakin batek ikasteko jarrera bat suposatzen edo errazten du?
2. Motibazioa eta emaitzen arteko lotura. Ezar daiteke, ikerketa honetako datuen argitan nolabaiteko loturarik euskara ikasteko arrazoiaren/en eta ikasteko prozesu horretan lortutako emaitzen artean.
3. Jarrera eta emaitzen arteko lotura. Jarreraren zein elementuk du eraginik handiena ikasle bakoitzaren aurrerapenean? Arestian esan dugunez, jarrera jakin baten agerpen edo manifestazio gisa hartu ditugu erabilera, asistentzia, lan egiteko jarrera, jarrera psikologikoa, euskararekiko identifikazioa. Hauetako zein edo zeintzuk dute eraginik handiena ikaslearen aurrerapenean, eraginik izatekotan?

D) Emaitzak. Ikerketa honen emaitzak honelako parametroetan eman ditut:

1. Motibazioa eta jarreraren arteko erlazioa, lotura edo elkarreragina. Honetarako **6. eranskinean** azaltzen den taula erabili dut motibazio mota bakoitza jarreraren adierazgarri jo ditugun elementu eta faktoreekin (asistentzia, erabilera, lan egiteko jarrera, parte hartzea, faktore psikologikoak eta euskararekiko identifikazioa)
2. Idem, motibazioa eta aurrerapenaren artean. 7. eranskinean ageri den bezala, aurrerapenean hiru mailatako baremazioa egin dut (handia, ertaina eta txikia) eta hauetariko bakoitzarekin erkatu ditut motibazio motak, banan-banan.
3. Idem, jarrera eta aurrerapenaren artean. Jarreraren adierazle bakoitza arestian aipatutako aurrerapen mailakatuarekin erkatu dut.

E) Ondorioak. Aurreko emaitza guztietatik bi ondorio-mota ateratzen saiatu naiz:

1. Batzuk, ikasleen ikas-prozesuarekin lotuta daudenak, bereziki ikasle hauen jatorria eta ikasteko premiak kontuan izanik. Hauek guztiok D atalean lortutako emaitzen ondorio zuzena izango dira.
2. Besteak, ikas-prozesuaren antolaketa eta kudeaketarekin lotuago daudenak, datozen ikasturteetako planifikaziorako lagungarri izan litezkeelakoan. Ondorio hauek lan osoan zehar, bereziki ikasleek eta irakasleek jaulkitako iritzietatik (eztabaida taldeetan eta ikasleen ebaluazioan adierazitakoak) ateratakoak izan dira.

II. ERABILITAKO LAN PROZEDURAREN OINARRI METODOLOGIKOA ETA TERMINOLOGIAREN AZALPENA

Aurreko atalean, ikerketaren azalpenari eskainitakoan, zehaztu ditut ikerketaren nondik norakoak, helburuak eta erabilitako lan prozedura. Oraingo honetan lan prozedura hori zertan oinarritzen den zehazten saiatuko naiz. Horretaz gain, ikerketaren iparra markatzen duten motibazioa eta jarrera kontzeptuak nola ulertu ditudan eta zer nolako elementuez osaturik ulertu ditudan ere argituko dut.

Ezertan hasi aurretik, ikerketa hau burutzeko Mondragon Unibertsitateko irakasle den Nekane Arratibelen zuzendaritzapean burutu dudala adierazi beharra dut. Alde honetatik, berarekin zorretan nagoela adierazita, eskerrak eman nahi dizkiot ikerketaren prozesu horretan eskainitako argibide eta laguntza guztiarengatik.

Hasteko gai honen inguruan aldeztu aurretik egindako lanak eta ikerketak kontsultatu ditut, bibliografian ikus daitezkeenak. Hau guztia kontuan izanik, birformulatu eta zehaztu ditut hasieran zirriborratuta nituen helburuak, aurreko atalean agertzen direnak.

Honen guztiaren argitan egin dut funtsezko hautu metodologikoa, ikerketan erabilitako elementurik funtsezkoena eta ikerketaren beraren gune eta bihotza dena: ikasleekin osatutako eztabaida taldeak. Helburuek beraiek, eta Arratibel irakasleak eskainitako aholkuei jarraiki, metodologia kualitatiboaren aldeko hautua egitera eraman naute eta, honen barruan, eztabaida taldeen teknika erabiltzera. Izan ere, motibazioa eta jarreraren inguruko helburuak izanik, bazirudien elkarriketa edo eztabaida taldea izan zitekeela eta zela lan-prozedurarik egokiena.

Zesar Martinez irakasleak argi uzten duenez, “azaltzea baino ulertzea da giza zientzien helburua, (...) enpatia bidez ulertzea gizakiok geure ekintzei eta gure ingurune sozialari eamten diegun zentzua eta betekortasuna. Orokorrean, metodologia kualitatiboaren ikuspengia konprentsiobo-estrukturalak ondoko helburu honetara bideratzen du errealtate sozialaren azterketa: hizkuntzaren bidez eta sormen sinbolikoaren bidez egiten dugun errealtatearen irakurketa eta produktioa aztertzea. Horretarako, aktore sozialen diskurtsoen azterketa proposatzen du...” (1) Horretaz gain, lagina oso zabala ez izateak ere (aipatu dugunez, 16 ikasleren datuak biltzen dira hemen) gehiago erraztu du eztabaida taldearen aldeko hautua eta beronen gauzapena. Izan ere, ikastaldeetan aritu diren eta ikasturte bukaerara heldutako ikasle guztiek parte hartu dute eztabaida taldeotan.

Teknika hau erabiltzeko Nekane Jausorok (2) proposatutako bidea jarraitu dut. Honen argitan, eta ikerketarako helburuak behin finkatuta, elkarriketarako gida prestatzeari ekin diot. Hasieratik erabaki dut ikastaldeak errespetatzea, nahiz eta bik oso ikasle gutxi izan, edo bertan iraun. Honetarako arrazoiak bi izan dira: alde batetik, taldearen homogeneitatea errespetatzea (bi ikastalde hauek maila ezberdinetakoak ziren) eta, bestetik, elkarriketa bera egiteko erraztasun handiak eskaintzen zizkidala. Izan ere, bi talde hauen ordutegia ezberdina zen eta lan-ordutegiaren barruan kokatuta zeuden. Beraz, guztiz ezinezkoa zen bi taldeotako ikasleak ordu berean elkartzea elkarriketa burutzeko.

Ikerketa epeei dagokienez (Jausoro, 28. orr.) ez dira bete aldeztu aurretik ezarritako epeak ikerketatik kanpo gertatu diren arrazoiengatik (nagusiki nik neuk izan dudana denbora faltagatik.)

Eztabaida taldeetan izaniko elkarriketak burutu, transkribatu eta berauen azterketari ekin diot. Azterketa hau nola burutu den hurrengo atalean azaltzen dut, ikerketaren atal bakoitzaren zehaztapenak eskaintzearekin batera.

Eztabaida-taldeetan ateratako informazioa nagusiki subjektiboa izanik, ahalik eta elementu objektiborik gehien sartzen saiatu naiz. Hala nola, asistentzia datuak, euskaltegiak berak eskainitakoak.

Eztabaida taldeek emandako informazioan hutsune bat nabaritu dut, ikas-prozesuan ikasle bakoitzak izandako aurrerapena neurtu eta baloratzeari dagokiona. Hutsune hau betetzeko beste bide osagarri batzuk erabili behar izan ditut. Eta hauxe da, nire ustez, ikerketaren alderik ahulena. Honetarako, informazio iturri nagusia irakasleen beraien iritzia erabili dut. Edonola ere, aurrerapen hau hobeto baloratzeko eta horretarako irizpide objektiboekin ere jokatzeko bestelako tresna batzuk erabili ditut:

- Alde batetik, irakaslearen beraren balorazioa, hau ere elkarriketaren teknika erabiliz.
- Bestetik, ikasleen beraien produktu bana eskuratu dut, ikasturte bukaeran idatzitako lagunarteko gutun bat.
- Ekainean auto-ebaluazio fitxa bat pasatu diet eta bertan, ikasturtean zehar izandako aurrerapen edo aprobeitxamenduaren gaineko iritzi subjektiboaz gain, ikastaroaren idatzizko laburpen bat idaztera gonbidatu ditut.
- Ikastaroan zehar euskaltegitik kanpo egindako frogen jarraipena ere egin dut. Baina, egia esan, bost ikaslek soilik egin dute honelako frogak edo azterketaren bat.

Ikerketan erabilitako bi hitz gakoek inguruan, argi dezagun, lehendabizi, nola ulertu dudan JARRERA. Horretarako Arratibel irakasleak proposatzen duen definizioen arteko nolabaiteko laburpena izan dut gogoan:

“Jarrerak objektu sozial baten behaketa inplikatzeko du; jarrera zuzenean beha ez daitekeen konstruktua edo aldagaia da; ikasia da; paper motibatzailea du, inpultsozkoa da nahiz eta ez den berarekin nahastu behar (ezta ohitura edo erreflexuekin); hautematea eta pentsamendua ere eragiten ditu; antolakuntza bat inplikatzeko du (aspektu kognitibo, afektibo eta konatiboen arteko erlazioa edo epe luzerako oroimenean eskema afektiboa); iraun egiten du denboran (nolabaiteko egonkortasuna dago)” (3)

Aurreko testu honen argitan, eta euskararen ikaskuntzari aplikatuta, honako elementu hauek hartu ditut jarrera horren adierazgarri:

- Asistentzia eta puntualitatea
- Klaseko parte hartea
- Ikasten ari den hizkuntza horren erabilera, klasean, zein klasetik kanpo (bereziki lan eremuan eta familia eta harreman sozialenean)
- Lan egiteko jarrera
- Euskararako identifikazioa, lotura afektiboa
- “Jarrera psikologikoa” izenez deitu dudana; hau da, ikasprozesuan azaltzen diren eragozpen, traba eta oztopoei (porrota barne) aurre egiteko gaitasun pertsonala, ikas-estiloak eta ikas-estrategiak barne.

Hurrengo atalean zehaztuko dut, aldi berean, nola ulertu dudan eta nolako datuetan oinarritu naizen jarreraren osagai bakoitza definitzeko.

MOTIBAZIOari dagokionez, Josu Peralesek (4) darabilen definizio-deskribapen batean oinarritu naiz: “... hiru ezaugarri bereiz ditzekegu (motibazioan): 1) gizakiak era batera, eta ez bestera, jarduteko egiten duen *hautapena*; 2) jarduera horretan *irautea* (hasi eta jarraitu); eta 3) jarduera horretan *ahalegintzea* (nolabaiteko “nekea” izatea fisikoa nahiz intelektuala). Motibazioa, etimologikoki, latinetik dator eta “mugitzearekin” du zerikusirik. Zerbait egiteko motibazioa duena “mugitu” egingo da. Ez da egonean-egonean geldituko” (kurtsiba berea da)

Motibazio moten sailkapenerako irizpide pertsonala erabiltzeko askatasuna izan dut, bereziki ikerketan zehar jaso ditudan erantzunei hobeto egokitzeko eta ondorengo azterketa eta ondorioetarako lagungarri izango delakoan. Horrela, ohikoak diren sailkapenak zehatz jarraitu

beharrean (motibazio intrintsekoa, estrintsekoa eta tartekoa; edo oranzko integratiboa eta normazko instrumentala) honako sailkapena erabili dut:

- (Euskara ikasi) Hizkuntz Eskakizuna egiaztatzeko
- beste hizkuntza bat bezala, kultura hizkuntza gisa
- komunikatzeko (familia, lagunak, lana)
- gure hizkuntza delako

Lehenengoa noranzko instrumentalaren barruan kokatuta egongo litzateke; azken biak integratiboaren barruan eta bigarrena tarteko egoeran kokatuta egongo litzateke.

OHARRAK

- (1) Martinez, Zesar: Ikerketa Soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak: Tradizio metodologikoak gizarte-zientzietan”, 12. orr. Hiznet, 02-03
- (2) Jausoro, Nekane: “Ikerketa Soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak: Metodologia kualitatiboa”, Hiznet 02-03
- (3) Arratibel, Nekane: “Gizarte psikologia, motibazioak, hizkuntza jarrerak”, 6. orr. Hiznet, 02-03
- (4) Perales, Josu: “Euskara helduarona ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta”

III. EZTABAIDA TALDEETAN EMANDAKO ERANTZUNAK OROKORREAN

Abiapuntu gisa, hona hemen egindako elkarriketa guztietatik atera ditzakegun baieztapen nagusiak.

1.1. Aurtengo esperientziaz: diseinua, modulua...

A) Alde positiboak:

- Talde txikietan aritzea ontzat ematen da, bai horrek sortzen duen konfiantza giroagatik, bai parte hartzeko, hitz egiteko ... aukerak ugariagoak direlako.
- Taldeak homogeneousak ere izatea ontzat hartzen da, bai maila aldetik, bai udal-langilez soilik osatuak egoteagatik (honek ere konfiantza areagotzen du)
- Ondo baloratzen da lan ordutegiaren barruan aritzea ere

B) Alde negatiboak:

- Ordubeteko saioak izatea da gehien nabarmentzen den elementu negatiboa, nahiz eta aho batezko iritzia ez izan (bakar batzuentzat ordubeteko iraupena egokia da)
- Saioaren ordutegiari buruz iritzi kontrajarriak egon dira: batzuentzat egokiagoa da lanean sartu orduko izatea, lanetik klasera joanez gero zail egiten baitzaie lanetik "deskonektatzea"; gainera, lana baino lehen izanez gero, errazagoa da klasera etortzea ziurtatzea; lanetik abiatuz gero klasera oso erraz suertatzen da lanarekin bat-batean ezin moztea eta klasera beranduago joan behar izatea edo, okerragoa dena, ezin joatea. Beste batzuek, aitzitik, ondo dago lanaren bukaera aldera izatea saioa lanetik deskonektatzen laguntzen baitu, hain zuzen ere. Edozein kasutan argi dagoena zera da: ordutegirik txarrena lanaldiaren erdian dagoena da. Bakoitzak izan duen ordutegiaren arabera bizi izan du bigarren arlo hau era negatiboan edo positiboan.
- la talde guztietan eman izan diren irakasle aldaketak ez dira ontzat hartu, oro har. Arrazoi nagusia irakaslearekin lortutako sintonia eta harremana galdu beharra eta berriro bete batekin hasi behar izatea.

1.2. Euskara ikasteko dituzten helburuak, motibazioa

Hasteko zera esan behar da: batek ere ez duela HE jakinik kreditatu behar izan, ikasturte hasieran ezagutzen zen egoeraren arabera, behintzat. Baten bat, gainera, salbuetsita dago adina dela eta. Izan ere, Santurtziko Udalak urrian oraindik zehaztu gabe zituen lanpostu bakoitzaren derrigortasunezko data, nahiz eta zehaztuta egon HE jakinen bat behar duten lanpostuak.

Kasu guztietan langileengandik beraiengandik sortu da euskara ikasteko beharra, nahia, gogoia. Hona hemen formulatu dituzten helburuak, maizen aipatutakoetatik hasita:

- Seme-alabekin aritzeko (4)
- Badaezpada ere, agian etorkizunean HEen bat egiaztatu behar izango dutelakoan (4)
- Euskara ikasi nahi, besterik gabe. Oinarri sendoak eskuratu nahi (4)
- Lanean bertan sortu zaie motibazioa, lankide euskaldunetz inguratuta egoteagatik, bezeria euskaldunarekin dituzten harremanengatik (umeekin, bereziki)... (4)
- Euskaldun sentimendua (3)
- Beste hizkuntza bat jakin nahi, beste kultura bat ezagutu (3)

Datuotan bada zerbait azpimarratu beharrekoa: Ez duela inork arrazoi bakar gisa aipatu Hizkuntza Eskakizunen bat gainditu beharra. Euskara ikasteko HEen bat eskuratu beharra motibazio gisa aipatu duten 4 ikasleek beste arrazoiaren bat gaineratu dute, ohikoena euskara bera, hizkuntza eta kultura baten adierazgarri nagusi gisa, ikasi nahi izatea edo erronka pertsonal gisa izatea ikastea.

Honaino, euskara ikasteko motibazio orokorraren ikuspuntutik. Ikasturte honetan zer espero zuten lortzea galdetu zaienean, honelako erantzunak aurkitu ditugu:

- Hizketan hasi apurka-apurka (4)
- Hizkuntz Eskakizunen bat gainditu, nahiz eta ez exijitu (3)
- Euskararekiko kontaktua ez galdu (2)
- Ikasturtea bukatu (2)

Eta ikas-prozesua noiz emango duten bukatutzat itaundu zaienean bi erantzun nagusitu dira oroz gain: testu erraz eta egunerokoak ulertzeko gai direnean et edozein lekutan euskaraz gutxieneko jariatutasunarekin hitz egitea lortzen dutenean.

1.3. Orain arteko ibilbideaz gogoetan

Aurtengo ikasturterarte izandako ibilbidez hitz egiteko bi galdera proposatu zitzaizkien:

- a) Zerk motibatu, lagundu, akuilatu ... dituen aurrera egiteko
- b) Zeintzuk izan diren oztoporik handienak, zerk eraman dituen etsipenera...

Lehenengoari dagokionean, aipatu diren elementuen artean, bi izan dira aipatuena:

- Euskara ikasteko desio bera, gogoa...; bere burua etorkizunean euskaraz hitz egiten ikustea, euskara “gure hizkuntza” dela sentitzea.
- Aurrera doazelako sentsazioa izatea, hau da, ulertzeko eta hitz egiteko gaitasunean aitzina egiten dutela nabaritzea.

Hauetaz aparte, hona hemen adoretu dituzten beste errealitate batzuk: azterketak gainditzea, inguruan giro euskalduna izatea, ikasteko erraztasunak edukitzea (lan-ordutegiaren barruan...)

Oztopoei begira, atal honetan ere badira sarriagotan aipatzen direnak:

- Euskararen beraren zailtasuna (aditza aipatzen da nagusiki)
- Ekin eta ekin, eta aurrerapen handirik ez nabaritzea. Komunikaziorako oztopo gaindiezinak nabaritzea, testuren bat ez ulertzea...
- Kalean euskarak duen presentzia urria, ikasitakoa kalean ezin erabiltzea...

Etsipen-iturri hauekin batera beste hauek ere aipatzen dira: azterketak suspenditzea (elementu honek balio bikoitza, eta guztiz kontrajarria, du, ikus daitekeenez), ikastalde baten gutxien dakielako inpresioa izatea, “tontoaren” sentsazioa (ikasle gaztetxoekin daudenean, bereziki), irakasle zenbait, bizimodua “konplikatzearen” ondorioz (ezkontza, seme-alabak) euskara ikasteko gero eta denbora gutxiago izatea; behin eta berriro, arrazoi askorengatik, euskara ikasteari utzi, berriro hasi, berriro utzi... ibiltzea.

1.4. Administrazioiko beste langile batzuk zergatik ari diren euskara ikasten.

Galdera honekin zera bilatu nahi zen: hasierako galderan (beraien ikasteko asmoei zegokiena) emandako erantzunen artean eta honi ematen zieten artean ea nolabaiteko kontrasterik nabari zitekeen aztertzea, bi ustek talka egin zezaketelakoan: alde batetik, norbere motiboen definizioan “politikoki zuzena” izan zitekeena (motibazio integratzailea) eta, bestetik, besteen motibazioen inguruan egon litezkeen aurreiritziak (motibazio instrumentala)

Jarraian doaz laugarren galdera honi emandako erantzunak maiztasunaren arabera sailkatuak:

- Hizkuntz Eskakizunen bat lortzearren, bereziki langile gazteen artean (6)
- Euskara ikasi nahi dutelako, besterik gabe (3) (Hasieran esan bezala, elkarriketa hauek egin ziren garaian ez zuten artean Santurtziko Udaleko lanpostuek derrigortasun datarik)
- “Segun”, kasuen arabera, HE lortzearren edo euskara ikasteko besterik gabe (2)
- Zerbitzua hobetzeko, publikoaren aurrean euskaraz hitz egiteko.

1.5. Nola ikusten da, orokorrean, Hizkuntz Eskakizunen kontua?

Galdera hau modu irekiagoan zegoen planteatuta. Emandako erantzun guztiak honelaxe sailkatu ahal izan ditugu:

Iritzi nahiko zabaldua eta konpartitua da derrigortasuna ezarritz gero, erraztasunak eskaini behar zaizkiela plangintza honek eragiten dituen langile guztiei (ikasteko baldintza onak, lan-ordutegiaren barruan...) Irakaskuntzan gertatzen dena eredugarria da esparru honetan aplikatzerakoan.

Honekin batera argi dute nahikotxok Hizkuntza Eskakizunek lanpostu jakinei lotuta joan behar dutela eta honen guztiaren arrazoi nagusi eta ia bakarra hiritarren hizkuntza eskubideak errespetatzea dela edo izan behar dela. Hauexek lirakeke atal honetan aipatu diren baieztapenik konpartituenak.

Zenbaitek iritzi eta jarrera kritikoa agertzen dute tokiko Herri Administrazioarekin, orain arte Hizkuntz Eskakizunen inguruan eraman duen politika dela eta.

Inposizioaz eta hitz egiterakoan, batzuek zera uste dute: inposaketa aipatzen dutenak sektore soziopolitiko jakin batekoak direla. Honekin batera, manipulazio eta saltsa asko dago kontu honen inguruan.

Azterketen beraien balorazioan, halabeharrezko kontu bat bezala ikusten da gehienetan: hor daude eta zer egin beharko zaio...! Dena den, lehenago aipatu dugun sentsazio bikoitza dago honen aurrean: alde batetik, sentsazio txarra (nerbioak, estresa...) eta bestetik erronka pertsonal gisa bizi izaten da batzuetan. Bada azterketaren premia zalantzan jartzen duena, beste bide batzuk ere baitaude azterketaren funtzio berbera bete dezaketenak.

1.6. Erabilera dela eta

a) Lanean

Hona hemen kopuru hotzetara ekarritako datu batzuk:

- Badituzte erabiltzeko aukerak eta, gainera, aprobetxatu egiten dituzte (4)
- Badituzte erabiltzeko aukerak, baina noizbehinka aprobetxatzen dituzte (3)
- Aukerak izan arren, ez dituzte aprobetxatzen (5)
- Ez dute euskara lanean erabiltzeko aukerarik (4)

(Zehaztapen bat: 16 ikasleetatik lau hasierako mailan zeuden)

Hona hemen ez erabiltzeko edo noizbehinka erabiltzeko aipatzen diren zenbait arrazoi:

- Ohituragatik: aspalditik daude harremanak gaztelaniaz ezarrita. (3)
- Laneko kontu teknikoek euskaraz aritzeko gaitasunik eza (2) / Beste bik zera aipatzen dute, hain zuzen ere: elkarriketa informaletan soilik (agurrak, lanetik kanpoko kontuak) erabiltzen dutela euskara.
- Maila baxua dutelako (2)
- Joera perfekzionista dutelako; hau da, esan nahi duena zuzen eta txukun esan nahi izatea traba eta oztopoa da euskaraz aritzeko.

Beste baieztapen batzuk:

- Beste interloktoreak hasi behar du euskaraz hitz egiten. Horrelako egoeran jarraitu egiten du euskaraz (2)
- Norbera hasten da euskaraz (2)
- Lanean ez dute askotan hitz egiten euskaraz, baina kolektibo batzuekin (zenbait bezero, umeak...) bai (2)

b) Lanetik kanpo

- Badituzte erabiltzeko aukerak eta, gainera, aprobetxatu egiten dituzte (4)
- Badituzte erabiltzeko aukerak, baina noizbehinka aprobetxatzen dituzte (2)
- Aukerak izan arren, ez dituzte aprobetxatzen (3)
- Ez dute euskara lanean erabiltzeko aukerarik (1)
- Inguruan erdaldunen bat badago, elkarriketa gaztelaniaz burutzen da (4)

Norekin hitz egiten duten galdetzean, hona hemen jasotako erantzunak:

- Seme-alabekin (8)
- Lagunekin (2)
- Etxekoekin (1)

Argi ikusten denez, interloktore euskaldunik arruntenak seme-alabak dira. Baina azpimarratzekoa da honen inguruan gertatzen den kontu bitxi eta, aldi berean, oso ohikoa: seme-alabek erakusten duten guraso euskaldungaiekiko jarrera "krudel" samarra, mespretxagarria. Izan ere, txitean-pitean aurpegiaritzen diete zein gaizki hitz egiten duten, horrela ez dela esaten... eta antzekoak

IV. IKASLEEN “ARGAZKIAK”

Lehenengo bi ataletan ikerketaren nondik norakoak eta berau gauzatzeko erabili dudan lan-prozeduraren hautuaren aldeko arrazoi metodologikoak islatzen saiatu naiz. Bertan zehaztu ditut ikerketan erabili ditudan informazio-iturri guztiak.

Datuen azterketara pasatu aurretik, datuok antolatuta aurkeztu nahi ditut ondoren aterako diren ondorioak zertan oinarritzen diren garbi gera dadin. Lehenengo atalean (3.2. atalean, “datuen azterketa” izenekoan) azaldu dira ondo zehaztuta argazki hauek egiteko zeri erreparatu diodan eta zein iturritatik atera ditudan argazki bakoitzeko osagarriak definitzeko elementuak.

Jarraian doaz, beraz, ikerketa honetan lagin izan diren hamasei ikasleen argazkiak, banan-banan, ikastaldeka antolatuta.

1. IKASTALDEA

MAILA: 2.a

IKASLEAK: Monika, Arturo, Tomas, Juanra

MONIKA

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Beste hizkuntza bat ikasteko, beste mundu eta kultura bat ezagutzeko

Intentsitatea

Handia. Ahalegin handiak egiten ditu.

B) JARRERA

Asistenzia: %82,35

Asistentzia ona izan du, baina arazoak izan ditu 2.hiruhilabetean lan kontuak zirela-eta.

Euskararen erabilera

BERAK AITORTUA: Lanean ez du aukera handirik, baina dituenak aprobetxatu egiten ditu. Bere ustez, nahi izatea da kontua. Nahi izanez gero, ahal dela uste du, maila apala izan arren. Lanetik kanpo koadrilarekin erabiltzen du. ETB ere ikusten du. Kurtso hasieran bestetan erabiltzen duela dio.

IRAKASLEAREN ARABERA: Euskara egiten saiatzen da, baina ikaskideek baino baliabide gutxiago duenez, bere buruarekin haserretzen da. Honek batzuetan atzera eragiten dio. Saiatu, saiatzen da euskara bakarrik erabiltzen

Euskararekiko sentimendua

Beste hizkuntza bat da. Kultura hizkuntza gisa baloratzen du, mundu-ikuskera bezala. Ikasturte hasieran baino identifikazio handiagoa duela aitortzen du bukaeran.

Parte hartzea

Isila, baina entzule aktiboa

Lan egiteko

Oso langilea. Aparteko lana eskatzen du. Ikaragarritzko ahaleginak egiten ditu. Gainera, badaki ikasten. Laneko materiala ere aprobetxatu egiten du.

Ikastaroa dela eta

Oso pozik aurtengo diseinuarekin. Datorren urtean ere aurtengo baldintzetan jarraitzeko prest.

Jarrera psikologikoa

Jarrera baikorra, posibilista: lasai ari da ikasten, dituen aukerak aprobetxatzen, egiten dituen aurrerapenetan bere gogoa eta ilusioa berresten.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Hasieran mailarik baxuena zuen, baina aurrerapen azkarra nabaritzen zaio, ikaragarritzko ahaleginari esker.

Ekoizpenean aurrera egiten ari da, baina irakurritzko ulermenean erakusten ditu gabeziak ulermen-estrategien erabilera desegokiagatik.

Azken hiruhilabeteko asistentzia baxuak asko baldintzatu du ikasturte osoko aurrerapen maila.

Berak esana

Esperientzia ona aurtengoa: bere espektatibak bete egin dira, bereziki entzutezko ulermenean; aurrerapenik txikiena, ordea, hitz egitean gramatika-arauak aplikatzeko orduan (deklinabideari dagozkionak bereziki).

Datu objektiboak

- Idazlana balekoa. Akats gramatikal batzuk nabari zaizkio, lotura ez oso zuzena..., baina ondo komunikatzen du esan nahi duena.
- 1HEari dagokion Atariko Proba gainditu zuen maiatzean, baina azterketa bera ez du gainditzerik izan.

GAKOAK

Oso saiatua da, ahalegin handiak egiten ditu.

Badaki ikasten: gauza guztiei erreparatzen die: klaseko azalpenak, ikaskideen ekoizpena, laneko materiala...

Oso posibilista: dakienetik abiatzen da eta aurrera egiteko eta euskara erabiltzeko aukera guztiak aprobetxatzen ditu.

JUANRA

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Ez du arrazoi berezirik. Bertako hizkuntza da, semearekin euskaraz hitz egin nahi du. Badu 1HE

Intentsitatea

Gogotsu aritzen da, interes handiarekin. Akatsei aurre egiteko eta zuzentzeko interes handia.

B) JARRERA

Asistentzia: %82,35

Lehen hiruhilabetez ez zen ona izan, batzuetan lanak sortutako arazoengatik. Eskuarki justifikatu egiten ditu alde aurretik abisatuta. Bigarren hiruhilabetez oso asistentzia ona.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Ez du askotan erabiltzen, nahi eta aukerak izan. Asteburuetan (lagunak...) pixka bat egiten du euskaraz. Edonola ere, aurreratu egin du erabileran, ikastaro bukaeran hasieran baino gehiagotan erabiltzen duela adierazi baitu.

IRAKASLEAREN ARABERA

Klasean euskaraz aritzen da, baina klaserako eta lanerako bidean ez.

Euskararekiko sentimendua

Identifikazio mailan behera egin du. Datorren urtean ikasten jarraitzekotan, lan ordutegiaren barruan egingo luke.

Parte hartzea

Handia, oso berriak baita.

Lan egitekoa

Klasean eskatzen den lana egiten; horretaz aparte, ez du besterik egiten. Irakaslearen oharrak, azalpenak, iradokizunak... apuntatzeko eta gogoan hartzeko jarrera aktiboa.

Ikastaroa dela eta

Eguneko ordubeteko saioari laburregia deritzo.

Jarrera psikologikoa

Lasaia, normala.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Nabaritu egiten zaio aurrerapena, asko erreparatzen baitie akatsei et zuzentasunagatiko kezka handia du. Aurretik maila nahiko altua zuen; honek asko errazten dio aurrera egitea, ahalegin berezirik egin gabe.

Berak esana

Nabaritu egin du aurrera egin duela. Bete egin dira bere espektatibak, ulermenean eta mintzamenean; ez horrenbeste gramatikan.

Datu objektiboak

- Idazlanean freskura eta berezkotasuna nabaritzen zaizkio, nahiz eta akats batzuk ere izan.
- 1HE eskuratua du.

JUANRAREN GAKOAK

Erabilera urria lanetik kanpo. Euskararekiko identifikazio maila jaitsi egin da.

Zuzentasun zalea.

Aurretik ekarri duen maila ona.

TOMAS

MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Beste hizkuntza bat ikasteko, mundurako beste irakurketa eta beste irteera bat suposatzen baitu. Honetaz gain, "gure hizkuntza" delako ere bai. Azkenik, bere koadrilako lagunekin komunikatzeko.

Intentsitatea

Izugarrizko interesa agertzen du, gogotsu azaltzen baita klasean

JARRERA

Asistentzia: %93,88

Datuek argi uzten dute oso asistentzia ona izan duela.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Hasieran baino gehiagotan erabiltzen du. Lanean (liburuzaina izanik) umeeekin erabiltzen du. Lanetik kanpo, lagun eta koadrilarekin ere erabiltzen du.

IRAKASLEAREN ARABERA

Euskaraz aritzen da ahal duen guztietan. Ahal balu, hitz erdirik ere ez luke gaztelaniaz egingo.

Euskararekiko identifikazioa

Euskaltzalea da: euskaraz irakurtzen du, telebista ikusi, irratia... Edozein kasutan jarraituko luke datorren urtean euskara ikasten.

Parte hartzea

Nahiko ona. Gainera, batzuetan badirudi irakurritako, entzundako edo ikasitako esamolde edo espresioen bat ekartzen duela klasera bertan botatzeko.

Lan egitekoa

Klasean proposatutako guztia egiten du eta bere kabuz ere aritzen da.

Ikastaroa dela eta

Pozik, baina labur egiten zaio ordubeteko saioa.

Jarrera psikologikoa

Kostatu egiten zaio beste baten iritzia edo zuzenketa onartzea, beste hori irakaslea bada ere. Bere uste eta ohiturak tinkoegiak dira eta ez ditu onartzen zuzenketak. Larritasun puntu bat ere nabaritzen zaio nahi duen guztia ez lortzeagatik. Nabaritu, ez baitu dena kanporatzen.

AURRERAPENA

Irakasleak esana

Irregular samar azaltzen da: esamolde dotoreen ondoan, akats handiak erakusten ditu. Dena dela, ikastaroaren azken txanpan gehiago nabaritu zaio aurrerapena, irakurriaren ulermenean bereziki.

Berak esana

Bere espektatibak bete egin dira, gehiago mintzamenean, gutxiago gramatika arloan

Datu objektiboak

- 1HE eskuratua du, baina 2HEko Atarikoa ez du gainditu.
- Kontrolatutako idazlanean akats nahikotxo egin ditu.

GAKOAK

Jarrerari dagokionean, ekimena, interesa, zaletasuna, erabiltzeko ahaleginak. Horrekin batera, eta arlo psikologikoarekin lotuta, kostatu egiten zaio kritikak onartzea, bere buruarengan konfiantza handi(egi)a baitu.

Motibazio anitza eta intentsitate handia.

Nabaritu egiten zaio aurrerapena, baina ez behar edo ahal beste, seguruenik faktore psikologikoaren eraginez.

ARTURO

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Gustukoa du euskara, maite du.

Intentsitatea

Handia

B) JARRERA

Asistentzia: %91,76

Erabilera

BERAK AITORTUA

Kurtso hasieran baino gehiago. Baina, bere ustez, zaila da euskaraz aritzea kalean (bere inguru hurbilean ez baitago aukera handirik)

Lanean ez du erabiltzen ohituraren poderioz: aurretik gaztelaniaz erabiltzen den esparruetan zail egiten zaio hizkuntza-erregistroa aldatzea.

Familian umeekin euskaraz aritzen da.

IRAKASLEAREN ARABERA

Askotan erabiltzen du. Euskaldun zaharrekin duen kontaktua nabaritu egiten zaio hitz egitean.

Euskararekiko identifikazioa

Asko gustatzen zaio euskara, oso zalea da. Askotan hasi eta utzia ikas-prozesua. bere kabuz ere ikasi du. Kurtso hasieran baino identifikazio are handiagoa du euskararekin.

Datorren urtean ere jarraitu nahi du, edozein baldintzatan

Parte hartzea

Oso handia, gehiegizkoa batzuetan.

Lan egitekoa

Klaseko lanak egiteaz gain, etxean bere kabuz ere aritzen da.

Ikastaroa dela eta

Pozik diseinu eta antolakuntzarekin, baina ez horrenbeste planteamenduekin (gramatikari tarte txikia)

Jarrera psikologikoa

Lasai egiten die aurre arazoei.

Konfiantza handia berarengan, batzuetan gehiegizkoa. "Autosufientzia" puntua.

AURRERAPENA

Irakasleak esana

Ikas-prozesu naturala izan du (bere kabuz, euskaldun zaharrekin kontaktuan...) Horren ondorioz nahasian agertzen ditu gauza polit asko eta hutsegite nabarmenak. Baditu errore fosildu batzuk. Ulermenean (bai ahozkoan bai irakurrian) oso ondo moldatzen da.

Dena den, berarentzako komunikazioak du garrantzirik handiena.

Berak esana

Gramatika aurrerapauso apalagoa izan de; ulermen eta mintzamenean, ordea, handiagoa.

Datu objektiboak

Kontrolatutako idazlanean ideia asko azaltzen ditu, asko idatzi du, baina oinarritzko akats batzuk egin ditu.

GAKOAK

Euskaldun zaharrekin izandako esperientzia. Sentipen oso euskaltzalea. Dena den, espero baino erabilera txikiagoa lanean

Konfiantza handia berarengan, batzuetan gehiegizkoa.

Aurrerapena dela eta, estankatuta.

1. IKASTALDEA

MAILA: 1B

IKASLEAK: Patxi eta Rogelio

PATXI

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Euskara ikasi nahi du (adinagatik salbuetsita dago) Jariotasunaz komunikatu.

Intentsitatea

Normala

B) JARRERA

Asistentzia: %54,71

Hasieran asistentzia ez zen hain ona. Hasi ere beranduago hasi zen, bigarren hilabetean, ordutegia eta lanaren arteko deskoordinazioa zela-eta. Ondoren normaltasun osoz etorri da. Azken hiruhilabetean berriro izan du asistentzia eskasagoa eta ekainean baja izan da.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Ikasturte hasieran bestetan erabiltzen du. Erabiltzeko aukerak argi ikusten ditu eta erabiltzen saiatzen da. Honetan nahiko posibilista da: dauden aukerak baloratzen ditu eta aprobetxatzen saiatzen da.

IRAKASLEAREN ARABERA

Erabili egiten du; lanetik kanpo ere bai

Euskararekiko identifikazioa

Urte hasieran bezalakoa da. Edozein kasutan jarraituko luke euskara ikasten, lan ordutegiaren barruan egon, zein ez egon. Hizkuntza Eskakizunena erronka bat bezala bizi du. Azken deialdian izena emateko epea bukatu egin zitzaion.

Parte hartzea

Ona. Kontuan izan behar da taldea oso txikia dela.

Lan egitekoa

Egiten duen guztia klasean egiten du. Etxean ez duela astirik aipatzen du. Bere ustez, ez du ahalegin nahikorik egin.

Ikastaroa dela eta

Pozik dago aurtengo diseinuarekin

Jarrera psikologikoa

Bere burua gutxiesteko joera du. Adibidez, bere irakaslearen ustez oso ondo erabiltzen ditu estrategiak bestelako hutsune edo gabeziak konpentsatzeko; berak, ordea, honi ez dio garrantzi handirik ematen.

Berak aitortua da taldean azkena dela sentitzea oso etsipengarria dela.

Nolabaiteko axolagabekeria adierazi du Hizkuntz Eskakizunetarako izena emateko epea bukatu zaionean.

AURRERAPENA

Irakasleak esana

Estrategiak erabiltzen aparta. Asko laguntzen dio arlo guztietan, bai ulermenean, bai mintzamenean. Asko aurreratu du. Batez ere, gramatika alorreko dedikazioa handitu dutenetik. Produktzioan hobeto dabil.

Berak esana

Aurten zituen espektatibak bete egin dira, gramatikan bereziki; ulermenean, ordea, makaltxoago aritu da.

Datu objektiboak

Kontrolatutako idazlana txukun samar dago.

GAKOAK

Jarrerari dagokionez, bere burua gutxiesteko duen joera; bestalde, nolabaiteko axolagabekeria.

Motibazioan, bere euskaltzaletasuna.

Aurrerapen handia estrategiei eta, bereziki, gramatikaren lanketari esker (jarrera psikologiko ezkor samarraren konpentsazio gisa jotzen duena)

ROGELIO

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Bere buruarekin duen erronka bat da. Euskaraz nolabaiteko erraztasunarekin ulertu eta komunikatu nahi du.

Etorkizunean agian HE eskatuko dute bere lanpostuan (Irakaslearen ustez, aitortzen duen baino kezka handiagoa du HEak direla eta).

Intentsitatea

Normala

B) JARRERA

Asistentzia: %81,76

Erabilera

BERAK AITORTUA

Bere inguruan ez daki inork euskaraz. Lanean ez ditu antzematen, edota baloratzen erabiltzeko dituen aukerak. Bestalde, ez du askotan erabiltzen lotsa edo perfekzionismoagatik.

IRAKASLEAREN ARABERA

Euskararekiko identifikazioa

Jarrera hasierakoa bezalakoa da. Edozein kasutan (baldintzatan) emango luke izena datorren urtean ikasten jarraitzeko.

HEak direla eta, ez du iritzi argirik, baina erronka bezala bizi ditu eta, alde horretatik, ondo baloratzen ditu.

Semeak ez daki euskaraz (ikastetxe frantsesean ari da)

Parte hartzea

Ona

Lan egitekoa

Klaseko ariketez gain, etxean bere kabuz ikasten zuen kurtso hasieran, gramatika bereziki.

Ikastaroa dela eta

Pozik dago diseinuarekin, baina ez dago oso konforme planteamenduarekin (gramatika gutxi, "programa" baten falta)

Jarrera psikologikoa

Lanarekin ezin du deskonektatu askotan (eta lanean ere ezin du euskararekin deskonektatu)

Oso perfekzionista da. Nolabaiteko "estres" puntua erakusten du, eragozpen eta oztopoen aurrean. Batzuetan blokeatu egiten da eta gaztelaniara pasatu behar izaten du.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Estankatu samar dago, nagusiki berriki aipatutako arrazoi "psikologikoengatik"

Desoreka handia erakusten du ezagutza eta produkzioaren artean: arlo teorikoan dena daki, behar duena eta ez duena, baina ez da gai erabileran islatzeko. Nahasmen handia du dakienaren inguruan. Dena den, idatziz hobeto konpontzen da.

Berak esana

Ez dira bere espektatibak bete, bereziki gramatika eta idatzizko produkzioan (berak ikastaroaren diseinuari egozten dio hau)

Datu objektiboak

Kontrolatutako idazlana ez dago oso txukun: akatsak.

GAKOAK

Motibazioari dagokionean, Hizkuntza Eskakizunak hor "atzean" daude, nahiz eta ez argi eta garbi ez esan.

Jarreraren esparruan, perfekzionista da; bestalde, gramatikazale amorratua.

Erabileran, maila nahiko baxua.

Emaitzetan, desoreka handia dakienaren eta erabiltzen duenaren artean. Estankatu samar.

2. IKASTALDEA

MAILA: 1-B

IKASLEAK: Jose Luis eta Jose Mari

JOSE LUIS

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Euskararekin kontakturik ez galtzeko (ulertu eta hitz egin)
Euskara Euskal Herriko hizkuntza delako; bera euskalduna delako.

Intentsitatea

B) JARRERA

Asistentzia: %97,65

Oso ona: oso gutxitan huts egin du.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Hasieran baino gehiagotan erabiltzen du.
Baina, bestalde, berak esana da normalean ez duela hitz egiten ez lanean, ez etxean (emaztea euskalduna da, alaba D eremuan du) Koadrilan ere gaztelaniaz

IRAKASLEAREN ARABERA

Klasean gaztelaniara jotzen du euskaraz ezin duenean adierazi edo mintzagaia polemikoa denean..

Euskararekiko identifikazioa

Euskaltzalea da. Hasieran besteko identifikazioa sentitzen du bukaeran.

Parte hartzea

Isilagoa da, baina parte hartzen du. Konfiantza behar du parte hartzeko (bere ikastaldean hiru aldiz aldatu diete irakaslea.

Lan egitekoa

Klaseko ariketa guztiak egiten ditu. Etxean ETBko saio batzuk ikusten ditu, liburuxkaren bat irakurri du.

Ikastaroa dela eta

Ordubeteko saioari laburregia deritzo. Bestalde, ez ditu oso ondo eraman irakasle-aldaketak.

Jarrera psikologikoa

Moral hauskorra du: zailtasunen aurrean Batzuetan erdi etsiturik, erdi galduta ikusten du bere burua. Konfiantza premia du. Honi dagokionez, irakasle-aldaketek ez diote askorik lagundu. Azkenaldian nahiko blokeatuta, eragozpenen aurrean etsitu samar, urduri, zuzentasun faltarekin.

(Hipotesi gisa aipatu behar taldean bi baino ez direla izan eta ikaskideak maila altuagoa erakutsi duela)

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Estankatuta, ulermen estrategietan bereziki eta entzutezko ulermenean batik bat.

Berak esana

Bere espektatibak bete egin dira, ulermenean bereziki; ez horrenbeste gramatika arloan eta mintzamenean.

Datu objektiboak

Kontrolatutako idazlana nahiko ondo egin du.

1HE ez du gainditu. Atariko Proban atzean geratu da.

GAKOAK

Motibazioa eta erabileraren artean dagoen desoreka: erabilera maila altuagoa espero zitekeen aitortzen duen motibazioa eta ingurune hurbila kontuan hartzen baditugu.

Jarrera dela eta, arlo psikologikoan aipatutako guztia: animu hauskorra, etsipenerako joera...

Aurrerapen maila apala; azkenaldian, gainera, estankatuta dagoen inpresioa ematen du.

JOSE MARI

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Euskara berreskuratu egin nahi du, 12 urtetan albo batera utzita izan ondoren. Oinarriak sendotu, aurrera egin ahal izateko. Alabekin komunikatzeko.

Intentsitatea

Normala

B) JARRERA

Asistentzia: 62,35

Duen lanpostuagatik (argiketaria) asistentzia-arazoak izan ditu boladaka.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Lankideekin hitz egiten saiatzen da, nahiz eta aukera gutxi izan. Familian ere beste horrenbeste. Baina ikasturte hasieran baino gutxiagotan erabiltzen du.

IRAKASLEAREN ARABERA

Lankide euskaldunekin euskaraz aritzeko berezko joera du. Beti euskaraz, gaia edozein izanda ere.

Euskararekiko identifikazioa

Ikasturte hasieran bestekoa.
HE ezartzearen aldekoa, inolako dudarik gabe. Euskaltzalea.
Klasea lan ordutegiaren barruan izaten jarraituko balu, segituko luke euskara ikasten

Parte hartzea

Oso ona. Batzuetan espontaneoegia, agian. Edozertaz hitz egiteko gai da; izan ere, zaletasun ugari ditu eta guztietan euskaraz aritzeko gai da.

Lan egitekoa

Lanetik kanpo ere kontaktua du euskararekin (ETB, musika, liburuak...) Klaseko ariketak egiten ditu eta ez datorrenean egindakoaz, azaldutakoaz... arduratzen da.

Ikastaroa dela eta

Ordubeteko saioa laburregia, bere ustez; bestalde, ordutegiaren aldetik, hobeto legoke lan-jardunaren hasieran edo bukaeran izango balitz. Azkenik, aldaketa asko gertatu dira ikasturte honetan, bai irakasleena, bai ikaskideena. Hau ez da ona izan beraren ustez.

Jarrera psikologikoa

Oso lasaia, baikorra, orekatua...

Oso praktikoa da: ikasten duena, (bereziki zaletasunen inguruan) erabiltzeko joera du.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Maila ona du. Gehiago aurreratu ez badu, kokatuta egon den taldeagatik izan da. Hobeto legoke maila altuagoko klase batean. Aurreratu duana, bereziki, klasetik kanpo egindako lanari esker izan da (zaletasunen inguruko irakurketak, lexikoa...) Oso lexikozalea. Ulermenean ondo moldatzen da eta ahozkoan bereziki ondo.

Berak esana

Bere espektatibak beteta geratu dira.

Datu objektiboak

1HE eskuratua da. 2HE poliki-poliki prestatzen arituko da.
Kontrolatutako idazlanean adierazpen egoki samarra erakutsi du.

GAKOAK

Motibazioaren inguruan zera azpimarratuko genuke: berezko zaletasuna. Oso ondo uztartu ditu berez dituen zaletasun horiek euskararekin.

Jarrerari dagokionez, izaera lasaia eta baikorra. Euskaltzalea. Ikuspegi eta jokabide praktikoa.

Aurrerapena: egokia, Mintzamenean bereziki. Baian bera kokatutako ikastaldearen maila nolabaiteko galga izan da aurreratu ahal izango zuen guztirako.

3. IKASTALDEA

MAILA: 1B

IKASLEAK: Julio, Marisa, Maria Luisa, Xabier

JULIO

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Familiarekin hitz egiteko; lanean ere euskaraz aritzeko.
Aitortu ez arren, 1HE egiaztatzeko azterketaren nolabaiteko presioa bizi du.

B) JARRERA

Asistentzia%64,12

Oso ona izan da urtean zehar, baina azken bi hilabeteetan ez da klasera etorri osasun-arazoak tarteko.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Lanean noizbehinka erabiltzen du telefonoz ari denean edo norbaitekin aurrez aurre. Ez du konfiantza handirik bere buruarengan eta, ondorioz, batzuetan gaztelaniara pasatu behar du. Lanetik kanpo semearekin bakarrik erabiltzen du; emaztearekin eta koinatuarekin ez, ordea.

IRAKASLEAREN ARABERA

Klasean euskaraz ari da, normalean, baina noizbehinka gaztelaniara pasatzen da.

Euskararekiko identifikazioa

Hizkuntza Eskakizunen kontua ez du inondik ere ikusten. Bereziki, azterketaren premia edo beharra berauek kreditatzeko.

Parte hartzea

Ona, bere taldeko guztiena bezala.

Lan egitekoa

Proposatzen zaizkion lan guztiak egiten ditu; baina bere kabuz ez du beste ezer egiten.

Ikastaroa dela eta

Pozik,oro har; baina ordubeteko saioa laburra iruditzen zaio.

Jarrera psikologikoa

Erraz desanimatzen da. Elkarriketan berak sarri aipatzen du faktore hau. Eragozpenen aurrean bereziki: zerbait euskaraz adierazi ezin duenean, trabatu eta blokeatu egiten da. Azterketetan jasotako emaitza eskasek ere lur jota uzten dute.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Aurrerapen handirik ez zaio nabaritu. Estankatuta ikusten du irakasleak. Gramatika ezagutu, ezagutzen du, baina ezagutza horri ez dagokion erabilera du (akats "ilogikoak", arraroak...) Desoreka handia bi arloen artean.
Hitz egiten motel samarra da

Berak esana

Ez dugu bere ebaluazio fitxa lortzerik izan.

Bestelako datu objektiboak

Kontrolatutako idazlanean akats nabarmenak azaltzen dira, baina ez dago oso txarto

1HEra bospasei aldiz aurkeztu da; 2004ko Lehen deialdiko Atarikoa gainditzea lortu zuen baina hortik aurrera ezin izan du egin. 2004ko bigarren deialdira aurkezterik ez zuen izan bajaran baitzegoen.

GAKOAK

Motibazioari dagokionean, azterketaren eragin negatiboa.

Jarreran, arlo psikologikoan erakusten duen ahulezia puntu hori.

Aurrerapenean, irakaslearen ustezko estankamendua eta 1HEra hainbat aldiz aurkeztu izana, gainditu gabe.

MARISA

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

2HE lortu nahi/beharko luke.

Horretaz gain, euskara hobetu nahi du

Intentsitatea

Hasieran gogotsu; ondoren, aurten 2HE kreditatzera ez zela aurkeztuko erabaki ondoren, erlaxatu samar.

B) JARRERA

Asistentzia: %76,47

Asistentzia arazoak azkenaldian, bereziki familia arazoak direla tarteko.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Hasieran baino gehiagotan erabiltzen du. Lanean aukera gutxi du. Izan ere, bezerorik gehienak herriko emakume edadetuak dira. Noizbehinka Emakunde-ren batekin telefonoz hitz egiten du... Etxean alabarekin hitz egiteko aukera du eta egin egiten du.

IRAKASLEAREN ARABERA

Arazorik badu, gaztelaniara jotzen du.

Euskararekiko identifikazioa

Hasieran baino handiagoa du. Hitz egiteko gai dela sentitzeak animatu eta aurrera egiten laguntzen dio.

Parte hartzea

Ona, gainontzeko ikaskideena bezala.

Lan egitekoa

Astia falta zaiola adierazten du. Batzuetan eskatutako lana ez du egin.

Ikastaroa dela eta

Pozik aurtengo diseinu eta planteamenduarekin,

Jarrera psikologikoa

Eragozpenei erdaraz eginez erantzuten die, larritu gabe. Erlaxatu egin da 2HEra aurkezteko aukera alde batera utzi ondoren.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Azkenaldian, erlaxazioaren ondorioz, mantsotu egin da bere aurrerapen prozesua. Produizioan ere nabaritu zaio mantsotze hau. Ulermenean oso maila ona erakutsi du.

Berak esana

Bere espektatibak bete egin direla adierazi du, gramatika eta ulermenaren esparruan bereziki; mintzamenean egin du aurrerapenik txikiena, bere ustez.

Bestelako datu objektiboak

Oso txukun idatzi du kontrolatutako idazlana.
Badu 1HE; 2003ko abenduan 2HEra aurkeztu zen, baina Atarikoa ez zuen gainditu.

GAKOAK

2HE du jomugan, baina, momentuz, alde batera utzi du.

Jarrerari dagokionez, erlaxazio handi samarra

Aurrerapenari dagokionez, azkenaldiko mantsotzea.

MARIA LUISA

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Bereziki, euskara ikasi eta hobeto menperatu nahi du; bestalde, semearekin hitz egiteko ere ikasten du.

Dena den, HEak ditu gogoan.

Intentsitatea

Gogotsu ari da lanean.

B) JARRERA

Asistentzia: %77,65

Kurtsoan zehar oso ona izan bada ere, azken hiruhilabetean baxuxeagoa izan da.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Ikasturte hasieran baino gehiagotan erabiltzen du. Lanean noizean behin erabiltzen du, bereziki telefonoaren beste aldetik euskaraz erantzuten diotenean.

Lanetik kanpo semearekin eta beronen irakaslearekin hitz egiten du. Senarrarekin (Julio) ez

IRAKASLEAREN ARABERA

Euskararekiko identifikazioa

Ikasturte hasierakoa bestekoa.

Aurtengo ikas-baldintzetan berriro matrikulatuko litzateke.

Parte hartzea

Ikaskideena bezalakoa, ona.

Ikastaroa dela eta

Pozik diseinu eta planteamenduarekin.

Jarrera psikologikoa

Azterketa esperientzia estresante gisa bizi du.

Oztopoak gainditzeko estrategiak erabiltzen oso trebea da; badaki, ondo gainera, eragozpenei aurre egiten

Lan egitekoa

Lan guztiak egiten ditu. Gainera, klase ostean ordenagailura pasatzen ditu.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Hasieran astiro samar egiten zuen aurrera, baina ondoren gehiago nabaritu zaio aurrerapena, esfortzua gehi estrategien erabileraren emaitza gisa.

Ezagutza mailan ondo, asimilatze gaitasun handia erakutsi du. Produizioarekin alderatuta, nolabaiteko desoreka nabaritzen zaio.

Berak esana

Ikasturterako zituen espektatibak bete egin dira; gehiago gramatika eta ulermenaren esparruan; gutxiago mintzamenean.

Bestelako datu objektiboak

Adierazpen egokia kontrolatutako idazlanean.

Azken deialdian 1HEeko Atarikoa gainditu egin du Uztailan azterketa bera ere gainditu du. Eskuratu du, beraz, 1HE.

GAKOAK

Motibazioari dagokionez, oso gogotsu ari dela, motibazio anitza gidari duela (semearekin hitz egin, HE)

Jarrera dela eta, eragozpenei aurre egiten diela lasai, estrategiak lagun dituela.

Aurrerapenean, irakaslearen iritzi baikorraz gain, datu objektiboek ere berretsi egiten dute aurrerapena izan duela.

XABIER

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Badu interesa. Euskara ikasi nahi du, zekiena gogoratu.
Hizkuntza Eskakizuna ere atera nahi du beste lanpostu seguruago bat lortzeko.

Intentsitatea

Baja izan da. Klasean egon den bitartean, interesa erakutsi du.

B) JARRERA

Asistentzia :%30,59

Ez da ona izan. Ikasturtean zehar oporrak tartekatu baitzaizkio. Martxoan baja izan zen.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Behin baino ez du erabili euskara lanean, bestea hasi zelako euskaraz hitz egiten.
Koinatu euskalduna du, baina normalean gaztelaniaz hitz egiten dute (besteak beste, inguruan beti dagoelako erdaldunen bat)

IRAKASLEAREN ARABERA

Klase garaira mugatzen du euskararen erabilera (eskaileretan, pasabidean... erdaraz aritzen da.)

Euskararekiko identifikazioa

Ondo ikusten du HEen kontua.

Parte hartzea

Oso ona.

Ikastaroa dela eta

Oso pozik azaldu da iraun duen bitartean,

Jarrera psikologikoa

Lasai azaltzen da eragozpenen aurrean. Ez du estrategia berezirik erabiltzen eragozpenei aurre egiteko. Zerbait gaizki esaten duenean, erraz konturatzen da; gainera, zuzenketak ondo onartzen ditu.

Lan egitekoa

Klaseko lana egitera mugatzen da.

Klasera etorri gabe egon zen bolada batean (betiko utzi baino lehen) e-mail bidez aritu zen bere irakaslearekin.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Etorri bitartean, nabaritu zaio aurrerapena. Hasieran euskara bortxatua, behartua... erabiltzen zuen; azkenaldian naturalagoa... Aukera handiak ditu aurrera egiteko. Dena den, desoreka handia du ezagutza eta erabileraren artean. Gaztelaniarekiko morrontza erakusten du. Irakurriaren ulermenean oso maila ona erakutsi du.

Berak esana

Baja izan denez, ez du azken ebaluazio fitxa bete.

Bestelako datu objektiboak

1HEko Atarikoa gainditu du. Ez, ordea, azterketa bera.

GAKOAK

Motibazioaren alorrean, HEek berarentzat duten garrantzia.

Jarrera: asistentzia urria; azkenean eten egin du ikas-prozesua.

Aurrerapena: Atarikoa gainditu du; erabileran izan duen aurrerapena, kalitatearen ikuspegitik bereziki.

5.IKASTALDEA

MAILA: 1-A

IKASLEAK: Jose Manuel, Txema, Manu, Maika

MANU

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

“Pendiente” duen gai bat da (orain arte ingelesarekin aritu baita nagusiki) Euskara ikasi eta hitz egin nahi du

Intentsitatea

Euskaltzalea, oso gogotsu ari da.

B) JARRERA

Asistentzia: %87,65

Nahiko ona izan du, baina arazoak izan ditu martxa-apirilean lan kontuengatik. Etorri ezin izan denean, aldezturik iragartzen du.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Ikasturte hasieran bestetan erabiltzen du. Bere maila baxua izan arren, saiatu egiten da lanean bere neurrian erabiltzen.

IRAKASLEAREN ARABERA

Normalean klasean gaztelaniara jotzen du, maila baxu samarra baitu.

Euskararekiko identifikazioa

Hasieran baino identifikazio handiagoa sentitzen duela dio.

Datorren urtean jarraitzeko prest dago, baina lan-ordutegiaren barruan bada.

Ondo ikusten du HEen kontua, baina oso kritikoa da nola eramaten den kontu hau aurrera, bai modu Euskal Herri mailan (“manipulazioa” aipatzen du) bai herri-administrazioan (“utzikeria”)

Parte hartzea

Ona

Ikastaroa dela eta

Ez oso pozik formatoarekin: laburra...

Jarrera psikologikoa

Lasai, estuasun handirik gabe.

Lan egitekoa

Ez duela ahalegin handirik egin aitortzen du.
Klasean eskatzen zaion guztia egiten du; klasetik kanpo ezer gutxi.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Hasieran aurrerapen handia, baina asistentzia gutxitu den neurrian era berean murriztu da aurrerapena. (Ikastalde osoari gertatu zaio hau)

Berak esana

Bete egin dira bere espektatibak, ulermenean bereziki. ez horrenbeste gramatika-alorrean.

Bestelako datu objektiboak

Kontrolatutako idazlanean akats nahikotxo egin ditu, nahiz eta zer kontatu nahi duen ondo ulertzen den.

GAKOAK

Motibazioa: Sendoa

Jarrera: oso kritikoa eta euskaltzalea. Asistentziarako arazo nahiko izan ditu.

Aurrerapena: Asistentziak baldintzatua.

TXEMA

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Aspaldiko asmoa du euskara ikastearena. Baian beti utzi behar izan du apuntaturik zegoen ikastaroa lan-arazoak direla eta.
Bestalde, alabatxoarekin hitz egin nahi du eta eskola-kontuetan lagundu.

Intentsitatea

Emaitza kaxkartxoak ez dira oztopo euskara ikasten jarraitzeko. Aurten ikasturtea bukatu ahal izateak indar handia eman dio.

B) JARRERA

Asistentzia: %82,94

Ona izan da, martxoan izan ezik.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Hasieran baino gehiagotan. Lanean, dena den, oso gutxi (aukera urriak, bere maila baxua..) Alabarekin erabiltzen du.

IRAKASLEAREN ARABERA

Ez du askotan euskara erabiltzen, bai maila baxua duelako, bai gaztelaniaz duen hitz egiteko erraztasun handiagatik

Euskararekiko identifikazioa

Hasieran besteko identifikazioa du euskararekiko.
Datorren urtean aurtengo baldintzetan jarraituko luke euskara ikasten.
HEen kontuak ez du kezkatzen (bere lanpostuan ez da beharrezkoa)

Parte hartzea

Oso ona

Ikastaroa dela eta

Ordubeteko saioari gutxi irizten dio. Bestalde, ez ditu ondo ikusi irakasle aldaketak.

Jarrera psikologikoa

Badu nolabaiteko "estres" puntua eragozpenen aurrean, bereziki zerbait ulertzen ez duenean edo euskararen gramatikaren logika ikusten ez duenean, hitzen arteko lotura ikusten ez duenean...

Lan egitekoa

Klaseko lan guztiak egin ditu. Etorri ez denean, egindakoaz arduratu da eta irakaslearen horren berri, fotokopiak... eskatu dizkio.
Bere kabuz aritzen da alabatxoarekin (ipuinak irakurri, hitz egin...) Lexikoa lantzeko liburu bat ere erosi du.

C) AURRERAPENA

Irakasleak esana

Sistema “klasikoan” ikastera ohituta dago. Oso astiro ari da aurreratzen, baina hau ez da oztopo bere animu eta interesetan.

Berak esana

Bere espektatibak ez dira erabat bete, mintzamenaren arloan bereziki. Bai, ordea, ulermenean eta gutxixeago gramatikaren ezagutzan.

Bestelako datu objektiboak

GAKOAK

Motibazioa: alabatxoaren inguruan eta alabatxoagatik sortutako motibazioa oso sendoa da.

Jarrera: Ikasteko modu desegokia (buruz, logikarik gabe...)

Aurrerapena: Poliki-poliki, baina aurrera.

MAIKA

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Gai "pendientea" da berarentzat.

Euskara beste hizkuntza bat bezala ikasten du. Ez du kontsideratzen identitate-ezaugarri gisa. 1HE helburu bezala du, baina inolako presarik gabe: aurtengo ikasturtean ez.

Intentsitatea

Euskara ikasteko ilusio iraunkorra duela aitortzen du.

B) JARRERA

Asistentzia: %29,41

Otsailean utzi egin behar izan zuen ikastaroa, laneko lan-karga handiagatik (lankide batek baja hartu zuen) Ordura arte asistentzia nahiko ona.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Ezin du askotan erabili maila baxua duelako. Dena den, saiakeratxo batzuk egin izan ditu. Lanetik kanpo ez du beste inorekin hitz egiteko aukerarik.

IRAKASLEAREN ARABERA

Klasean bera saiatzen da gehien euskara erabiltzen.

Euskararekiko identifikazioa

Euskara ikasteko etengabeko ilusioa aitortu arren, zaila iruditzen zaio.

Ondo ikusten du HEen kontua. Bere lanpostuan bertan ikusten du derrigortasunaren premia hiritarren eskubideei begira (gogoratu informazio-zerbitzuan ari dela lanean)

Parte hartzea

Handia da. Gainera, giroa sortzen laguntzen du bere presentziak.

Ikastaroa dela eta

Pozik orokorrean, nahiz eta ordubete denbora gutxi dela uste izan.

Jarrera psikologikoa

Baikorra, ilusionatua, gogotsu.

Lan egitekoa

Langilea. Ikastaroa utzi izanak ez du bere kontrako ezer adierazten.

C) AURRERAPENA**Irakasleak esana**

Aurrerapen nahiko handia, etenaldia izan arte.

Berak esana

Ez dugu izan bere auto-ebaluazio fitxa jasotzeko aukerarik izan.

Bestelako datu objektiboak**GAKOAK**

Motibazioa: 1HE zehaztu gabeko etorkizunean, baina lasai.

Jarrera: Baikorra, posibilista, gogotsua...

Aurrerapena: ona etena suertatu arte.

JOSE MANUEL

A) MOTIBAZIOA

Zertarako ikasten du euskara

Hitz egitera heldu nahi du. Lanean bertan nabaritzen du premia. Etxean ere euskaraz egin nahi du.

Intentsitatea

Aurrera egiten duela ikusteak animatu egiten du.

B) JARRERA

Asistentzia: %85,29

Ona izan da urte osoan zehar.

Erabilera

BERAK AITORTUA

Ikasturte hasieran baino gehiagotan erabiltzen du.
Lanean aukera asko eta asko ditu, baina duen maila baxuagatik ez du askotan erabiltzen.

IRAKASLEAREN ARABERA

Nahikotan erabiltzen du euskara klasean.

Euskararekiko identifikazioa

Identifikazioa hasierakoa bezalakoa
Datorren urtean ikasten jarraituko luke lan-ordutegiaren barruan balitz.
Ez du iritzi txarrik HEen inguruan.

Parte hartzea

Handia. Giro ona sortzen du.

Lan egitekoa

Astirik eza argudiatu du, baina klaseko lanak egiten ditu.

Jarrera psikologikoa

Estrategiak erabiltzen trebea da. Hala ere, eragozpenen aurrean segurtasun eta konfiantza falta nabari zaizkio

Ikastaroa dela eta

Diseinua bera oso egokia, baina ordubeteko saioa laburra egiten zaio.

C) AURRERAPENA**Irakasleak esana**

Klaseko mailarik altuena lortu du. Gehiago aurrera zezakeen, baina klaseko martxak baldintzatu egin du. Mintzamenean egin du bereziki aurrera. Gainontzeko arloetan ere maila ona lortu du. (kontuan izan behar da lankide euskaldunak dituela)

Zuzentasunaz ere arduratzen da.

Berak esana

Bere espektatibak bete egin dira, mintzamenean bereziki; gutxiago entzutezko ulermenean.

Datu objektiboak

Lehenengo saiakera egin zuen 1HEko Atarikoarekin, baina ez zuen gainditu.

GAKOAK

Motibazioa: lanean motibazio iturri handia du: baita laguntza ere.

Jarrera: Lan egiteko jarrera.

Aurrerapena: Ona, baina taldeak baldintzatua, galgatua

IV. DATUEN AZTERKETA

Proiektuaren azalpeneko 3.2 atalean aurreratu bezala, datuen azterketa hiru fasetan egingo dugu:

1. Motibazioa eta Jarreraren arteko eraginaren azterketa
2. Motibazioa eta aurrerapenaren (emaitzen) arteko lotura.
3. Jarrera eta emaitzen arteko lotura.

Bukaeran azken ondorioak proposatuko ditugu azterketa honen emaitza gisa.

1. MOTIBAZIOA ETA JARRERA

Bigarren kapituluaren zehaztu dugu nola ulertzen ditugun gure ikerketaren giltza diren bi kontzeptu hauek. Azterketaren lehen fase honetan bien arteko balizko elkarreragina edo lotura aztertuko dugu. Hau da, motibazio jakin batek ba ote duen nolabaiteko eraginik jarreraren. Ikerketan behintzat norabide honetantxe ulertzen dugu hasiera batean eraginaren norabidea: motibaziotik jarrerara. Gerta liteke (eta agian gure ikasleren batengan ere dagoeneko gertatu da) ikas-prozesuan emandako urteen poderioz, izandako arrakasta edota porroten eraginez, jarrera aldatu izana eta, honekin batera, motibazioaren noranzkoa aldatzea. Baina honetarako ikasleen segimendu diakronikoa egitea ezinbestekoa litzateke eta hau ikerketa honen helburuak gainditzen dituzte. Izan ere, ikerketa ikasturte honen esperientziara mugatzen da.

Aurreko paragrafoaren hasieran planteatu dugun galdera edo hipotesia modu orokorrean erantzuterik ez dagoenez, erabileraren atala sei azpi-ataletan banatu dugu. Atal bakoitzaren ondoan idatzi ditugu berau baloratzeko erabili dugun baremazioa:

- asistentzia: oso ona, ona, balekoa, eskasa (utzi dutenen kasu, utzi egin dutela zehaztu dugu)
- erabilera: handia, nahikoa, urria
- euskararekiko jarra: identifikazio handia, normala, neutroa eta kritikoa
- ezaugarri psikologikoak: adjektibo batez definitu dut bakoitza
- lan egitekoa: oso ona, ona, balekoa
- parte hartzea: handia, ertaina, txikia

Motibazioaren zehaztapenean, bestalde, zehaztu ditut ikerketa honetan erabili ditudan lau motibazio mota nagusiak.

Horiek horrela, 6. eranskinean ikus daitezkeen bi sarrerako taulak osatu ditut, taula horien gainean aritzeko eta atal honetako lehen ondorio partzialak ateratzeko. Eranskin horretan ikus daitekeenez, motibazio mota bakoitzaren inguruan antolatu ditut taulak: goian ezkerrean motibazio mota zehazten da, beronen eskuinaldean, elementu orokor gisa, jarrera definitzen duten faktoreak eta motibazio motaren azpialdean motibazio horrek gidaturik ikasten ari direla aitortu duten ikasleen izenak.

1.1. Motibazioa eta Asistentzia

Aldez aurretik esan beharra dugu lagin kopuruak (16) ez digula ondorio oso fidagarriak ateratzeko tarte handirik uzten. Are gutxiago, lagin hori hainbat aldagaitan banatzen bada, kasu honetan bezalaxe.

Hau guztia argi utzita, zera ikus genezake motibazioa eta asistentziaren arteko ustezko elkarreraginaz:

- a) “Euskara gure hizkuntza delako” ikasten dutenen artean (4) eta komunikatu ahal izateko ikasten dutenen artean (4)ematen direla asistentzia daturik onenak, bietan emaitza berarekin: oso ona (2) ona (2)
- b) Euskara Hizkuntza Eskakizunen bat kreditatzeko erabiltzen dutenek, ordea, erakusten dute asistentzia daturik kaxkarrenak: oso ona(1), ona (2), balekoa (2) Hauetako bik utzi dute ikastaroa bukatu baino lehen. (Hauetako kasu batean lan arazoak direla tarteko, beste kasuren batean arrazoi jakinik adierazi gabe)
- c) Euskara kultura hizkuntza gisa ikasten dutenen asistentzia ere baxuagoa da: oso ona (1), ona (4), balekoa (4). Bik utzi egin zuten ikastaroa bukatu baino lehen, Hizkuntza Eskakizunen bat ateratzeko asmoz ikasten hasi zirenek, hain zuzen (Gogora dezagun ez duela inork aitortu HEen bat ateratzeko soilik ikasten ari direla) Hauek kenduta, euskara beste hizkuntza bat balitz bezala ikasten dutela aitortzen dutenen asistentzia datuak honako hauek lirateke: ona (2), balekoa (2) Asistentzia oso ona duenak euskara gure hizkuntza delako ere ikasten ari dela aitortu du.

1.2. Motibazioa eta erabilera

Bi faktore hauen arteko elkarreraginean emaitza kontrajarriak aurkitu ditut:

- a) Alde batetik, erabilera mailarik altuena euskara kultura hizkuntza gisa ikasten dutenen artean ematen da: oso ona (4), ona (2), urria (3)
- b) Espero zitekeenaren aurka, euskara gure hizkuntza delako eta komunikatzeko nahi dutelako ikasten dutenen erabilera maila ez da hain altua. Hona hemen datuak hurrenez hurren: oso ona (1), ona (1), urria (2); eta ona (2), urria (2).

Nabarmentzekoa da kasu hauetan azaltzen diren kontraesan partikularrak, kontraesantzat baitaukagu, printzipioz, euskara gure hizkuntza delako ikasten dela aitortzeak eta, aldi berean, gutxitan erabiltzea. Kasu konkrituak ikusita, bitan euskara maila baxuak azal edo nolabait justifika lezake gutxitan erabiltzea, baina beste bietan ez dugu bestelako azalpenik aurkitzen.

1.3. Motibazioa eta euskararekiko identifikazioa

Azterketari ekin aurretik, komenigarria iruditzen zait gogoratzea zeintzuk datutan oinarritu naizen euskararekiko jarrera hau definitzeko orduan, itxura batean horren datu subjektiboa baitirudi:

- Alde batetik, eztabaida taldeetan egindako adierazpenetan oinarritu naiz, bereziki Hizkuntza Eskakizunen kreditazio sistemaren inguruan zuten iritzia eta beste galdera batzuen erantzunetan azaltzen ziren zeharkako adierazpenetan (adibidez, seme-alabak zein eredutan zituzten matrikulatuta, euskal kulturaren kontsumoa...
- Bestetik, kurtso bukaeran pasatu nien auto-ebaluazio fitxan euskararekiko sentimenduaz galdetu diet zuzen-zuzen. Beste alde batetik, fitxa horretan bertan galdetu diet euskara ikasten jarraitzeko asmoen inguruan: zein baldintzatan jarraituko luketen ere bada, nire ustez, euskararekiko jarreraren nolabaiteko adierazpena.
- Azkenik, irakaslearekin izandako ebaluazio-elkarriketetan honetaz ere galdetu diet.

Horiek horrela, hona hemen bi faktore hauen arteko elkarreraginaren inguruko datuak:

- a) Aurreko bikotean ez bezala, bete egin da aldeaz aurretik espero zitekeen “logika”; hau da, euskara gure hizkuntza delako ikasten dutenek erakusten dute ustezko euskararekiko identifikazio mailarik altuena: handia (3), normala (1) Honek, bestalde, areagotu egiten du, nire ustez, motibazio mota honen eta erabileraren arteko kontraesana.
- b) Kultura Hizkuntza bezala ikasten dutenek erakusten dute hurrengo identifikazio maila altuena: handia (2) ona (5) , normala (1), neutroa (1)
- c) Jarraian komunikatzeko ikasten dutenak: ona(2), normala (2)

- d) Azkenik, Hizkuntza Eskakizunen bat kreditzako ikasten dutenek: ona (1), normala (2), neutroa (1), kritikoa (1)

1.4. Motibazioa eta parte hartzea

Bi faktore hauen arteko lotura ez zaigu inondik inora esanguratsua, kasu guztietan oso parametro onak erakusten baititu, baten batean besteren batean baino altuxeagoa, baina, esan bezala, ez du nabarmentzerik merezi. Taldeak txikiak izateak zerikusi handia du parte hartzea horren handia izatearekin, dudarik gabe.

1.5. Motibazioa eta lan egiteko jarrera

Lan egiteko jarrera “oso ona”, “ona” eta “balekoa” bezala zehazteko 8. eranskinean lan egiteko jarrera zehazteko erabilitako parametroak kontuan hartu ditut (lana klasean eta klasetik kanpo, klasean bakarrik...) Horren arabera, hona hemen ondoriorik nabarmenenak:

- a) Gure hizkuntza delako eta komunikatzeko ikasten ari direnek erakusten dute lan egiteko jarrerarik handiena: oso ona (1) ona (3); eta oso ona (2) eta ona (2), hurrenez hurren.
- b) Ondoren Kultura Hizkuntza gisa ikasten dutenek: oso ona (3), ona(2), balekoa (4)
- c) Azkenik, Hizkuntza Eskakizunen bat kreditatzeko ikasten ari direnek: ona (2), balekoa (3)

1.6. Motibazioa eta psikologia

Azken bi elementuen arteko ustezko lotura azaltzen hasi aurretik bi zehaztapen garrantzitsu egin behar ditut:

- Bi elementuon arteko elkarreragina aztertzea besteena baino askozaz ere konplexuagoa eta erlatiboa iruditzen zait. Izan ere, elementu edo ezaugarri psikologikoak pertsonak berak (ikasleak) aldeaz aurretik izatea eta berauek bizitzako beste arlo batzuetan (eta hauen artean beste ikas-prozesu batzuetan ere) azaltzea. Era berean, litekeena ere bada kasu honetan elkarreraginak alderantzizko norabidea izatea, hots, motibazioaren definizioan eragin izana ezaugarri psikologikook.
- Edonola ere, datu edo konstatazio hutsean geratzeko aukera nuen eta horretara mugatzea erabaki dut. Hori dela eta, ikerketan azaldu zaizkidan elementu edo ezaugarri psikologikoak bi multzotan banatzea erabaki dut: alde batetik positiboak, pertsonaren (ikaslearen) oreka handiagoa ahalbidetzen dutenak (lasaia, baikorra, aktiboa, eragozpenei aurre egiten jakitea, auto-estima handia) eta bestetik negatiboak, ikaslearen oreka apurtzeko joera izan lezaketenak (larritasuna, auto-estima baxua, blokeatu, segurtasun eta konfiantza falta, desanimatzeko joera erakusten dutenak, ahula eragozpenen aurrean...)

Horiek horrela, hona hemen konstatatu ditudan emaitzak:

- a) Euskara kultura hizkuntza gisa erakusten dutenen artean azaltzen da ezaugarri psikologiko baikorren proportzio altuena: positiboak (6), negatiboak (3)
- b) Ondoren Hizkuntza Eskakizunen bat ateratzeko ikasten dutenen artean: positiboak (3) eta negatiboak (2) Eta antzeko proportzioan Gure Hizkuntza delako ikasten dutenen artean: 2-2 proportzioan.
- c) Azkenik, euskara komunikatzeko ikasten dutenen artean azaltzen da ezaugarri negatiboen proportziorik altuena: positiboak (1), negatiboak (3)

1.7. Atal honetako ondorio nagusiak

Aurreko datu guztiak ikusita bi ondorio nagusi atera ditzakegu:

1. Oro har, “Euskara gure hizkuntza delako” eta “Euskaraz Komunikatzeko” ikasten dutenek (hau da, motibazio intrintsekoak edo barne-motibazioak deitzen direnak dituztenek) erakusten dute euskara ikasteko jarrera hobe, jarrera ontzat badaukagu asistentzia ona izatea, lan egiteko jarrera izatea eta euskararekiko identifikazio ona izatea. (Azken hau, egia esan, eztabaidatzeko kontua litzateke, ikasteko ekintzarekin lotura zuzena ez duelako.)
2. Erabileraren inguruan, ordea, ez da arestian esandakoa betetzen: gorago nabarmendu eta azpimarratu dugunez, “Euskara gure hizkuntza delako” edo komunikatzeko ikasten zuten ikasleengandik erabilera altuagoa espero zitekeen, baina ez da hala gertatu. Are gehiago, salbuespena den jarrera faktore bakarra dugu, gainontzeko faktoreetan bete egiten baita aurrez espero zitekeena; hots, motibazio intrintsekoek jarrera hobe erakutsiko zuela.

Aurrerago esan bezala, ikerketa honetan erabili dudan lagin urriak nolabaiteko galga jartzen dio honi guztiari, baina, edozein kasutan, euskararen normalizazio arloko beste esparruetan agertzen den problematikarekin, hots, erabileran ematen den maila baxuarekin, bat egiten lezake, beste lagin zabalago batekin egindako beste ikerketa batzuek egoera hau konfirmatuko balute.

2. MOTIBAZIOA ETA AURRERAPENA

Abia gaitzen, berehala, datuen azterketarako aukeratu dugun bigarren fasearekin; hots, motibazio mota eta aurrerapenaren arteko ustezko eta balizko loturari begira egin nahi duguna. Aurreko fasean eraginaren norabideaz esandakoa errepikatuko dugu: motibaziotik aurrerapenera begirako norabidea hautatu dugula, argi izanik ikasle baten ikas-prozesuan zehar aurrerapenean izandako eta ezagututako emaitzek (porrotek zein arrakastek) eragin zuzena izan dezaketela motibazioan. (Adibidez, litekeena da kanpo-motibazio hutsagatik (azterketaren bat gainditu, kurrikuluan inkorporatzeko...) ikas-prozesuan abiatutako ikasle batek, izandako aurrerapenari esker euskaltzaletzea edo komunikazio tresna gisa erabili nahi izatea euskara) Baina honek, lehen esan bezala, urte batzuetako ikuspegia eta azterketa beharko luke.

Hau argi utzita, 7. eranskinean azaltzen diren taulak osatu ditut, ikasleen argazkietako datuak bertan txertatu eta datuon azterketa errazteko asmoz. Taula bakoitzaren goialdeko ezkerreko laukitxoan alde aurretik zehaztutako motibazio mota bat jarri dut, taula bakoitzeko motibazio mota bat. Bere eskuinaldean, eta lau tauletako elementu finko gisa, aurrerapenaren nolabaiteko baremazioa jarri dut, bakoitzari zutabe bat eskainita:

- aurrerapen handia
- aurrerapen ertaina
- aurrerapen txikia

Bigarren kapituluan zehaztu dut aurrerapen hau baloratzeko erabili ditudan irizpideak (irakaslearena, ikaslearena, beronen produkzio idatzia eta kanpoko balorazioa: Hizkuntza Eskakizunak...) Iturri hauetatik jasotako datuen interpretazio subjektiboa eginez erabaki dut kasuan kasuko aurrerapena nola definitu. Egia esan, irakaslearen iritzia iruditu zait informazio iturri erabakigarriena, bai beraiekin izandako elkarrizketan emanikoa, bai euskaltegiaren datu basean ikasle bakoitzari emaniko puntuazioaren bidez adierazitakoa. Gainontzeko datuak berau konfirmatu edo matizatzeko erabili ditut.

Motibazio mota bakoitzaren azpian jarri ditut motivazio hori aitortu duten ikasleen izenak eta bakoitzaren ondoan zehaztu dut bakoitzaren aurrerapen maila.

Hona hemen taula hauen azterketatik atera daitezkeen ondorioak:

3. eranskinean azaltzen den aurrerapenaren balorazio orokorra kontuan hartuta, euskara komunikatzeko "Gure hizkuntza" delako ikasten ari diren ikasleek lortu dute aurrerapenik nabarmenena. Lehenengoen kasuan batek lortu du aurrerapen handia, beste batek ertaina eta beste bik txikia; bigarrenengoan artean batek aurrerapen handia, beste bik ertaina eta batek txikia.
- Euskara beste hizkuntza bat bezala, kultura hizkuntza gisa, alegia, ikasten dutenek eta Hizkuntza Eskakizunen bat eskuratzeko ikasten ari direnek: bik aurrerapen handia, bik ertaina eta bostek txikia; batek ertaina eta lauk txikia, hurrenez hurren.
- Aurrerapen datu globalak utzi eta 5. eranskinean azaltzen diren datu desglosatuagoetan (trebetasunak banak eta gaitasun linguistikoak bereizten dituen alegia) ere joera hau mantendu egiten da: atalez atal, eta emaitzen batz bestekoa eginda, trebetasun guztietan zein gaitasun linguistikoan emaitza hobeak eskuratzen dituzte euskara "gure hizkuntza delako" edo euskaraz komunikatzeko ikasten ari direnek.

3. JARRERA ETA AURRERAPENA

Eta datuen azterketako azken puntura ailegatu gara. Eta aurrekoetan bezala, bi faktore hauen arteko eraginean jarreratik aurrerapenerako norabidearen aldeko hautua egin dut. Bestelako norabidea ere hauta liteke, baina honek, behin baino gehiagotan esan bezala, urtez urteko ikasle baten/ikasleen jarraipena eskatuko luke. Eta hau ez da ikerketa honen helburua.

Azken azterketa lan hau burutzeko eraikitako taulak (8.. eranskinean aurkitzen dira) ezberdinak dira aurreko bi atalekin alderatuz gero. Gauza bat dute komunean: aurrerapenaren baremazioa (handia, ertaina, txikia) Taula bakoitza bereizten duena dagoeneko lan honetan erabili ditugun jarrera adierazten duten elementuak dira: asistentzia, erabilera, euskararekiko identifikazio, parte hartzea, lan egitekoa eta ezaugarri psikologikoak. Zazpigarren faktore gehitu dut honako honetan azterketaren mesederako izan daitekeelakoan: ikai-estiloekin zerikusia duena. Jarrera psikologikoarekin badu nolabaiteko lotura, baina interesgarria eta beharrezkoa iruditu zait bereizketa hau egitea une honetan.

Bestalde, aipatutako jarrera bakoitzaren ondoan beronen gauzapen ezberdinak zehaztu eta taulan jarri ditut. Badituzte ezberdintasun batzuk motivazioa eta jarreraren arteko erlazioa aztertzeko eraikitako taulekin alderatuz gero. Horrela, erabilera "oso ona/ona/urria" baremazioa erabili banuen motivazioa/jarrera atalean, oraingo honetan beste hau erabili dut:

- Klasean + lanean + lanetik kanpo
- Klasean + lanean / lanetik kanpo
- Klasean bakarrik
- Klasean, baina gutxi

Gauza bera egin dut “lanerako jarrera” faktorearekin. Aurrekoan “oso ona / ona / balekoa” erabili badut, oraingoan gehiago zehaztu dut:

- Klasean eta etxean egiten du lan
- Klasean bakarrik egiten du lan
- Lan gutxi egiten du.

Bereizketa hauek egitea esanguratsua iruditu zait azterketa zehatzagoa egite aldera, laster ikusiko dugunez.

Jarrera bakoitzaren zehaztapenaren ondoan berau agertzen duten ikasleen izenak jarri ditut, dagokien aurrerapen mailarekin batera. Gurutze soilak jar nitzakeen, baina pertsonalizazioaren aldeko apustua egin dut, ikerketa osoan halaxe jokatu baitut.

3.1. Asistentzia eta aurrerapena

8. eranskineko datuak aztertzen baditugu eta jarrerarekin lotutako osagaiei banaka erreparatzen badiegu, asistentzia aurkituko dugu lehenengo elementu gisa.

Egia esan, asistentzia ez da oso faktore esanguratsua aurrerapenari begira, gure ikerketari dagokionean bederen. Izan ere, alde batetik ikasle guztiek izan dute asistentzi maila oso ona edo ona. Bestalde, asistentziarik onena izan duten ikasleen artean batek ere ez du aurrerapen maila handia izan; aurrerapen handian izan duten lau ikasleetatik batek ere ez du goi mailako asistentziarik izan.

Dena den, bada kontuan hartu beharreko beste datu bat: taulan azaltzen diren zenbait ikasleren kasuan asistentzia-maila emaitza hobeak ez izatearen arrazoi erabakigarria izan da. Bi kasutan (Monika eta Patxi) aurrerapena mugatuta geratu da ikasturtean zehar, bukaeran bereziki, izandako asistentzia maila txikiagoagatik. Beste bi kasutan (Xabier eta Maika) ikastaroa ez bukatzeak baldintzatu du erabat beren aurrerapen maila.

Beraz, asistentziak ez dirudi jarreraren elementu erabakigarria denik, baina gutxieneko maila ezinbestekoa da.

3.2. Erabilera eta aurrerapena

Erabilerari dagokion taulari begirada bat emanez gero, zera ondoriozta genezake:

- a) Erabilera mailarik altuena (klasean + lanean + lanetik kanpo) ez du bermatzen edo berarekin ekartzen aurrerapen mailarik handiena. Halaxe erakusten digu erabilera mailarik altuena izan duten bi ikasleetatik bat nabarmentzea erabilera mailan eta besteak aurrerapen maila ertaina izatea.
- b) Baina nolabaiteko erabilera maila badago lotua aurrerapen maila egoki batekin. Hala adierazten digute ondoko datuek: klasean gutxienez euskaraz aritzen dira aurrerapen maila handia izan dutenak; baina klasean ere euskaraz komunikatzeko ozta-ozta gai izan diren guztiek aurrerapen maila txikia izan dute.

Edonola ere, bereizketa hau egitera ausartuko nintzateke: klaseko erabilera urria berezko euskara maila baxuaren ezaugarri litzateke; beraz, aldi berean aurrerapenaren eragile eta

aurrerapen ondorioztat har genezake; klasetik kanpoko erabilerak, ordea, aurrerapenaren eragile-faktoretzat har genezake.

3.3. Lanerako jarrera eta aurrerapena

Lanerako jarrerarekin asistentziarekin gertatu zaigun kontu bera gertatu zaigu: lagineko kasu guztietan lanerako jarrera ona edo oso ona eman da. Oso ona izango litzateke klasean lan egiteaz gain, klasetik kanpo lan egin dutenen lanerako jarrera. Eta, taulan ikus dezakegunez, bai kasu batean zein bestean aurkitzen ditugu aurrerapen handia, txikia eta ertaina izan duten ikasleak. Ez zaigu, bada, elementu esanguratsua suertatuko azken ondorioetarako.

3.4. Euskararekiko identifikazioa eta aurrerapena

Faktore honi erreparatzen badiogu, aurrekoan esan dugun antzeko zerbait esatera behartuta gaude: hau ere ez dela faktore edo elementu esanguratsua. Izan ere, ezin dugu inolako loturarik ezarri euskararekiko sentimendu edo identifikazioa eta aurrerapenaren artean. Identifikazio maila bakoitzari gradu guztietako aurrerapenak dagozkio eta, alderantziz, aurrerapena handia, ertaina zein txikia izan, euskararekiko maila guztietako identifikazioak aurkitzen ditugu.

3.5. Parte hartzea eta aurrerapena

Parte hartzeak, aurreko bi elementuek ez bezala, badu, itxura batean, aurrerapenarekiko lotura. Izan ere aurrerapen maila altua izan duten hiru ikaslek parte hartze handia izan dute klasean. Dena den, badira nahikotxo (4) parte hartze handia izan arren, aurrerapen txikia izan dutenak.

Honi beste kontsiderazio bat gehitu behar diogu: erabileraren kasuan esan dugun bezala, parte hartzea ere aurrerapenaren eragilea izan liteke, baina baita aurrerapenaren ondorioa ere. Hau da, ikasle bat aurrera egiten ari delako sentzazioa edo konstatazioa duen neurrian anima liteke klasean parte hartzera.

Beraz, zuhurtasunez hartu beharko dugu parte hartzea eta aurrerapenaren arteko lotura posible hau.

3.6. Jarrera psikologikoa eta aurrerapena

Gorago esan bezala, ikerketan azaldu diren elementu edo ezaugarri psikologikoak bi multzotan banatu ditut: alde batetik positiboak, pertsonaren (ikaslearen) oreka handiagoa ahalbidetzen dutenak (lasaia, baikorra, aktiboa, eragozpenei aurre egiten jakitea, auto-estima handia) eta bestetik negatiboak, ikaslearen oreka apurtzeko joera izan lezaketenak (larritasuna, auto-estima baxua, blokeatu, segurtasun eta konfiantza falta, desanimatzeko joera erakusten dutenak, ahula eragozpenen aurrean...)

Jarrera psikologikoa eta aurrerapen maila erlazioan jartzen dituen taula aztertzen badugu, ia erabateko erlazioa dagoela baieztatu dezakegu bi faktore hauen artean; hots, arestian positibotzat definitu ditugun elementu edo ezaugarri psikologikoen eragin positiboa dute aurrerapenean.

Adibidez, aurrerapen handia izan duten ikasleek honako ezaugarri hauek izan dute: “lasaia, patxadatsua, aktiboa, baikorra, eragozpenei aurre egiteko pronto”. Aurrerapen urria izan dutenek, batzuek “estresatua”, “antsiosoa”, “erraz desanimatzekoa”, auto-estima baxua”, “konfiantza gutxi”, “bere burua gutxietsi”... Hauen artean badira ezaugarri psikologiko positiboak dituztenak, baina hauengan beste faktore batzuk eragin dute aurrerapena txikia izatea: bitan ikastaro utzi izana (Xabier eta Maikaren kasua) Bestearen kasuan (Monika) zailagoa da azalpenen bat aurkitzea, baiasistentzia baxuagoa (bere azken hiruhilabeteko irakasleak halaxe aitortua) eta erabilera maila baxua izan litezke arazoak; baina, edozein kasutan, salbuespen modura kontsideratu beharko genuke.

Orain arte muturreko kasuak hartu ditugu adibidetzat. Aurrerapen ertaina izan dutenen kasuan, eta irakasleen balorazio osoa kontuan hartuta zera esango genuke: Kasu batzuetan (Tomas eta Arturo) aurrera zezaketena baino gutxiago aurreratu dutela, ezaugarri psikologiko negatiboen eraginez (“estresatua”, “auto-estima gutxi”...;) Izan ere, bi ikasle hauek, arazo ezberdinengatik aurrerapen handia izateko aukera asko zuten, dela egindako lanagatik eta erabiltzeko joera handiagatik (Tomas), dela euskaltzaleasungatik, euskaldun zaharrekin izandako kontaktuagatik (Arturo) Baina ezaugarri psikologiko hauek (irakasleek halaxe adierazita (ikus 3. eranskina) galga bezala jokatu dutelakoan nago.

3.7. Ikas estiloak eta aurrerapena

Ikas estiloena ez zen alde aurretik aurreikusten nuen faktorea, baina ikerketa aurrea zihoan neurrian eta, bereziki, eztabaida-taldeetako transkribapenetatik eta irakaslearekin izandako elkarrizketetatik berez ateratzen diren inguruko datuak. Taulan espresuki formulatuta azaldu direnak baino ez ditut jaso. Esan bezala, ez ditut berariaz aztertu nahi izan. Beraz, ikasle batzuen kasuan ez da ezer azaltzen, hain zuzen elkarrizketetan azaldu ez direlako.

Berez jarrerari ez dagokion arren (Peralesek “aldagai kognitiboen” barruan kokatzen ditu), justu ezaugarri psikologikoen ondoren jarri ditut, nolabaiteko lotura dutelakoan eta sail edo atal berezi eta osorik merezi ez dutelakoan.

Argi ikus daitekeenez, ikas estilo hauek aipatutako materialean formulaturik ateratzen diren bezala jaso ditut, agian ez era oso ortodoxoan. Bi arazorengatik jokatu dut honela: alde batetik, alde aurretik hautatutako aldagaia ez zelako, arestian esan bezala eta, ondorioz, ez nuen gehiegi sakondu nahi; bestetik, formulatuta dauden bezala, ezaugarri psikologikoengatik hurbilago azaltzen direlako.

Hau guztia zehaztu ondoren, eta ikas estiloen inguruan eraikitako taulara baldin bagoaz, zera ikusten dugu:

- a) Aurrerapen handia izan duten hiru ikasleren kasuan (Jose Manuelen kasuan izan ezik) guztiek erakusten dute ikasteko moduarekin lotura zuzena duten jokaera positiboak: Ikasitakoa erabiltzeko joera, ulermen estrategiak erabiltzen ditu (hitzen eta esaldien esanahia inferitzeko bereziki). Badira beste jokaera batzuk agian ez hain berriak, ezagutzarekin lotura hain zuzena ez dutenak, baina bai borondatearekin, gogoarekin, diziplinarekin (euskaldun zaharrekin praktikatzeko joera; jarrera aktiboa: ikaslearen

oharrak.. idatziz jaso (kasuren batean ordenagailuratu); akatsei erreparatu...; bizitzan dituen interesak euskararekin lotu)

- b) Aurrerapen txikia izan dutenen kasuan, hiru kasutan ohiko ikas estilo tradizionaltzaletasuna azaltzen da (gramatikazalea, ikasteko estilo tradizionala: buruz, arauak indultzeko logika erabili gabe...) Hauen kasuan estilo hauek galga bezala jokatu dute, beraien irakasleek halaxe adierazita.
Aurrerapen txikia izan dutenen artean, bada bat bere irakasleak ikas estrategien erabiltzaile apartekotzat duena (Patxi) (ikus 3. eranskina)
- c) Aurrerapen ertaina izan duten kasu guztietan aurrerapen handia izan dutenek erabilitako ikas estilo antzekoak erabili dituzte. Lehen aipatu bezala, hauengan beste arrazoiren batek azaltzen du aurrerapena handia ez izatea: batzuetan asistentzia eta erabilera (Monika), besteetan faktore psikologikoak (Tomas eta Arturo)
- d) Bada

VI. AZKEN ONDORIOAK

Lehenengo kapituluaz azaltzen den ikerketaren azalpenean aurreratu dudan bezala, bi motatakoak dira ondoren proposatzen ditudan ondorioak:

1. Ikasleen ikas-prozesuarekin lotutakoak. Hau da, ikasle hauek udal-langileak direla, talde berezitetan eta eguneroko ordubeteko saioetan aritu izan direla kontuan izanik; eta beraien motibazioa, ikasteko jarrera eta aurrerapena gogoan izanda ateratako ondorioak dira.
2. Ikas-prozesuaren antolaketa eta kudeaketarekin lotuago daudenak dira bigarren motatakoak. Hots, datorren edo datozen ikasturte edo ikastaroetako planifikaziorako lagungarri izan litezkeelakoan proposatutakoak dira. Izan ere, gogoan izan behar dugu 2003-2004 ikasturtean egin izan da lehendabizi esperientzia hau.

Ondorioen atal honetan berreskuratu egingo dugu motibazioaren inguruko ohiko terminologia, hizkuntza ekonomia dela-eta, argi utzita ikerketa lan osoan erabili izan dugula ekibalentzia hau: Motibazio integratiboa = "Euskara gure hizkuntza delako" edo "euskaraz komunikatzeko ikasten dutela diotenena" / Motibazio instrumental = Hizkuntza Eskakizunen bat eskuratzeko / Tarteko motibazioa = Euskara beste hizkuntza bat bezala edo erronka pertsonal gisa kontsideratzen dutenena. Bestalde, berriro gogoratu beharra dugu ez duela inork motibazio instrumental hutsa erakutsi: kasurik gehienetan (bostetik lauk) tarteko motibazioarekin konbinatuta erakutsi dutela.

1. IKAS PROZESUAREKIN LOTUTAKOAK

Motibazioa eta ikasteko jarreraren arteko loturaren inguruan:

- 1.1. Motibazio integratiboaren inguruan lotutako motibazio motak gidatuta ikasten dutenek) erakusten dute, oro har, euskara ikasteko jarrera hobea. Jarrera hau izandako asistentzian, egindako lanean eta adierazitako euskararekiko identifikazioan islatzen da.
- 1.2. Motibazio instrumentalaren inguruan bil genezakeena (Hizkuntza Eskakizunen bat lortzeko ikasten ari direla diotenena) edo tarteko motibazioa erakusten dutenak (euskara beste hizkuntza bat bezala edo erronka pertsonal gisa ikasten dutenen kasua litzateke) jarrera ez hain ona erakusten dute, nahiz eta, oro har, ikasle guztiek jarrera ona erakutsi.
- 1.3. Erabileraren inguruan, ordea, azterketa sakonagoa eskatzen duen salbuespen- kontraesana gertatzen da: jarrerarekin lotutako beste faktoreekin gertatzen denaren kontra, ez dute erabilera mailarik altuena erakusten motibazio integratiboa dutenek, tartekoa dutenek baino.

Motibazioa eta aurrerapenaren arteko loturaren inguruan:

- 1.4. Arlo honetan ere motibazio integratiboa erakutsi dutenek lortu dute emaitzarik onenak: bai balorazio global baten ikuspegitik (aurrerapen handia / ertaina / txikia), bai atalez atal eginikotik (trebetasun bakoitza / gaitasun linguistikoa) emaitza hobeak erakutsi dituzte euskara gure hizkuntza delako edo hobeto komunikatu ahal izateko ikasten aritu direnek gainontzekoek baino, inolako salbuespenik gabe.

Ikasteko jarrera eta aurrerapenaren arteko lotura

- 1.5 Aurrerapenean eragin zuzen eta handiena duen jarrera-adierazleak ezaugarri psikologikoekin lotutakoa da. Hau da, ezaugarri psikologiko "positiboek" (ikaslearen oreka ahalbidetzen dutenek eta bere bizitzako edozein prozesu, ikas prozesu barne delarik, printzipioz lagun lezaketenek) aurrerapen handiagoa ahalbidetzen dute, ia inolako salbuespenik gabe. Ezaugarri psikologiko "negatiboek" (ikaslearen oreka apurtzeko joera izan lezaketenek eta, ondorioz, bere bizitzako edozein prozesu, ikas prozesua barne, oztopa lezaketenek) emaitza okerragoekin daude lotuta.

- 1.5. Beste horrenbeste esan genezake ikas estiloen inguruan, baina ez horren irmo eta sendo ikerketa honen hasierako hipotesietan ez baitzegoen eta, ondorioz, ez da izan berariaz bilatutako aldagaia: Ikasteko moduarekin lotura duten jokaera positiboak izan dituzten ikasleek, ia sistematikoki, aurrerapen handiagoa izan dute. Ikasteko modu tradizionalan (nagusiki buruz jasotako ezagupen gramatikaletan oinarritutakoa) oinarritu direnek aurrerapen txikiagoa izan dute.
- 1.6. Psikologiarekin eta ikas estiloekin lotutako elementuek, motibazio integratiboarekin lotuta, izan daitezke, beraz, aurrerapenaren gako nagusiak ikaslearen ikas prozesuan. Hala ere, badira bi elementu hauen eragina indartu edo ahuldu dezaketen bi faktore:
- Asistentzia: faktore erabakigarria ez izan arren, aurrerapen maila altuagoa ahalbide edo oztopa dezake. Izan ere, aurrerapen handiagoa izan zezaketen zenbait ikasleren kasuan, txikiagoa izatearen erantzule izan dugu beraien asistentzia maila.
 - Erabilera: asistentziaz esandako gauza berbera esan genezake erabileraz: ez da suertatu faktore erabakigarri gisa, baina ezinbestekoa da gutxieneko erabilera maila (ikasgela barrura mugatzen dena, gutxienez)

Edonola ere, erabilera aurrerapen eragile gisa edota aurrerapenaren ondorio gisa har genezake, datuen azterketari dagokion 3.2 atalean proposatu dugunez

2. KUDEAKETAREKIN LOTUTAKOAK

2.1. Garrantzi handiko kontua litzateke ikastalde hauetan parte hartuko duten ikaslearen aukeraketan honako faktore hauek kontuan hartzea:

- Ikaslearen lan baldintzak, ordutegiak e.a. Ikastaroa hasi aurretik bermatu egin beharko litzateke bertan parte hartuko duten ikaslearen asistentzia, beronetarako lan-kontuak oztupo izango ez direlarik. Gorago aipatu denez, zenbait ikasleren kasuan asistentzia-maila aurrerapen maila baxuagoaren eragile zuzena izan da eta hauetako kasu askotan lan-kontuak izan dira arrazoi nagusia. Kontrastatutako beste kasu batean, jarrera eta aurrerapen oso ona erakusten ari zen ikasle baten ikas-prozesuaren etetea suposatu dute lan arazoek.
- Ikasleok lanean euskara erabiltzeko izango duten aukera. Ikusi dugu klasetik kanpoko erabilera ez dela faktore erabakigarria, baina baduela eragina. Lanpostuan lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza erabiltzeko aukerak izateak erraztu egingo du ikaslearen aurrerapena.

2.2. Munta handia du eta izango du ikaslearen taldekatze ahalik eta egokiena. Ikasturte honetako esperientzia gogoan izanda, zenbait kasutan argi geratu da taldearen batz besteko mailaren eragin negatiboa. Kasu batean baino gehiagotan gehiago eman zezaketen ikaslearen aurrerapena mugatu dute; besteren batean ikastaldearen maila altuagoa urduritasun eta auto-estimazio baxuaren eragile izan da. Dena den, kontu honek ere baditu ondorioak irakasleengan, homologazio handiagoa posible ez den kasuetan beraien esku geratzen baita ikaslearen maila ezberdinen eragin negatiboari aurre egitea eta bertatik ere etekinak ateratzea ikas prozesurako.

2.3. Irakasle eta talde aldaketak tentuz egin beharreko kontua dirudi, izaera hauskorragoa duten ikasleengan duten eragin negatiboa kontuan izanik.

2.4. Aztertu beharreko kontua litzateke, sistemak ahalbidetzen dituen aukerak beti ere kontuan izanik, eguneko ordubeteko dedikazioa. Ikasle nahikoren ikuspegitik, denbora gutxiegi eskaintzen du modulu honek aurrerapen egokia lortze aldera.

2.5. Azkenik, hobeto planteatu beharra ikusten da Hizkuntza Eskakizunetara aurkezteko kontua. Ikasle baten kasuan ikusi da Hizkuntza Eskakizuna bat kreditatzera behin eta berriro aurkezteak eta beste horrenbestetan ez gainditzeak duen eragin negatiboa. Argi

dago aurkezteko erabaki horretan ikaslea bera, irakaslea eta administrazioa direla partaide. Aholku egokiaren premia ikusten da kontu honen inguruan, benetakoak e diren espektatiba sortzeak eta porrot etengabea kaltegarria izan baitaitezke.

VII. BIBLIOGRAFIA

1 . BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- Arratibel, N. 1999. Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioaren errola. Tesi doktoralak EHU/UPV
- Arratibel, N. 2002. "Gizarte psikologia, motibazioa, hizkuntza jarrerak." Hiznet 2002-2003 ikastarorako prestatutako gaia.
- Bardin, L. 2002. Análisis de contenido. Akal (3. Argitalpena)
- Dörnyei, Z. 2003. Motibazio-estrategiak hizkuntza ikasgelan. HABE, *Itzulpen Saila* 45
- Gebhard J. Eta Oprandy R.: 2002. Hizkuntz Irakaskuntzaren gaineko kontzientzia, usteak eta jardunak esploratzeko gida. HABE, *Itzulpen Saila* 44
- Jausoro, N. 2002. "Ikerketa Soziolinguistikorako metodologia eta teknikak: Metodologia kualitatiboa." Hiznet 2002-2003 ikastarorako prestatutako gaia.
- Martinez, Z. 2002. "Ikerketa Soziolinguistikorako metodologia eta teknikak: Tradizio metodologikoak gizarte-zientzietan." Hiznet 2002-2003 ikastarorako prestatutako gaia.
- Perales, J. 1989. Euskara-ikasleen motibazio eta jarrerak. *Zutabe* 21: 9-50
- Perales, J. 1997. Administrazioa langileen euskara-irakasleen usteak. *Hizpide* 39: 31-50
- Perales, J. 2000. Euskara-ikasketa helduen ikas-prozesua: ikaslearen baitako zenbait aldagairen eta arrakastaren arteko erlazioa. Doktore-tesia EHU/UPV
- Perales, J. 2004. Euskara helduaroan ikasteko motibazioa:hainbat gogoeta. *Uztaro* 50 (prentsa bidean)

2. ANTZEKO GAIEN INGURUKO BESTE IKERKETA BATZUK

- Arregi, F. 1986. Euskalduntzeaz jarrerak. In J. Ruiz Olabuenaga & J.Ozamiz (edk.). *Hizkuntza minorizatuaren soziologia*. Txartalo
- Etxague, X. 1992. *Nafarroako D ereduko 8. Mailako ikasleen euskara errendimendua. Hainbat aldagai eskolarren eragina*. Doktore-tesia. EHU/UPV
- Etchebarria, M.1994. Bilingüismo en el País Vasco: estudio de actitudes lingüísticas. In F. Sierra; M. Pujol; H. Berché & Harm der Boer (edk.), *Las lenguas de la Europa comunitaria*. Amsterdam: Rodopi.
- Gabiña, J, Gorostidi, R. & Iruretagoiena, E. 1996. EIFEI, *Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Garcia, I. 2000. *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak:identitate etnolinguistikoaren garrantzia*. Doktore-tesia. Ehu/UPV
- Larrañaga, N. 1995. *Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Doktore-tesia. Deustuko Unibertsitatea.

Madariaga, J. 1994. Jarreraren eragina hezkuntza elebidunean A eta D hizkuntza-ereduen artean egindako konparaketa-azterketa. In I. Idiazabal & A. Kaifer (edk), *Hezkuntzaren eraginkortasuna eta irakaskuntza elebiduna Euskal Herrian*. HEAA/IVAP. Eusko Jaurlaritza

Molero, B. & Arribillaga, A. 1998. Autoidentificación nacional y actitudes hacia el euskara. *Revista de Psicodidáctica*: 6: 45-52

Sierra, J. & Olarizegi, I. 1989. EIFE 2. *Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Sierra, J. & Olarizegi, I. 1990. EIFE 3. *Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Valencia, J. & Isasi X. 1992. Jarrera eta portaera arteko erlazioa: jarreraren konsistentziaren arazoa. In J. Valencia (ed.), *Psikologia sozialaren hurbilketarako zenbait gai*. (155-163 Orr.) Donostia: EHU

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Ikasleen deskribapena

Ikasleen deskribapena egiteko erabilitako osatzeko

IZENA

Nombre: _____

LANPOSTUA

Puesto de trabajo: _____

Zenbat urte daramazu euskara ikasten?

¿Cuánto tiempo llevas estudiando euskara?

Zein maila eskuratu duzu orain arte?

¿Qué nivel has adquirido hasta el momento?

Baduzu euskara erabiltzeko aukerarik?

¿Tienes posibilidades de usar el euskara?

- **Lanean?**

En el trabajo

- **Lanetik kanpo? (familia, lagunak...)**

Fuera del trabajo (familia, amigos...)

Erabiltzen duzu? Zergatik?

¿Lo usas?

Baduzu maila jakin bat akreditatzeko eperik? Baldin baduzu, zein?

¿Dispones de un plazo para acreditar un determinado nivel de euskara? Si lo tienes, ¿cuál es?

Euskara klasea lan ordutegiaren barruan duzu?

¿Está incluida la clase de euskara dentro del horario de trabajo?

Zein da gaur egun euskara ikasteko arrazoi nagusia? Baduzu bestelakorik?

¿Cuál es hoy la principal razón para estudiar euskara? ¿Hay alguna otra?

IKASLEEN DESKRIBAPENA

1. IKASTALDEA

ARTURO

Ikuskatzailea da (mantenuko ikuskatzailea).

Bizitza osoa eman du euskara ikasten, baina saltoka, jarraipenik gabe.

Ez du oso argi zein maila eskuratu duen orain arte. (Berarekin elkarriketa izan ondoren, 1B/2 tartean dagoela esan liteke).

Erabiltzeko aukera gehiago du etxean eta lanetik kanpo, lanean bertan baino. Baina gutxitan erabiltzen du.

Ez du, momentuz, maila jakin bat akreditatzeko eperik.

Euskara klaseak lan ordutegiaren barruan ditu. Euskara maite duela aitortzen du ikasteko arrazoi nagusi bezala.

JUANRA

“Gestor de ingresos”, horrelaxe deitzen da bere lanpostua.

Lau edo bost urte daramatza euskara ikasten, baina ez jarraian. Lehenengo Perfila du.

Lanean eta lanetik kanpo “batzuetan” du erabiltzeko aukera, baina “noizean behin” erabiltzen du.

Ez du maila akreditatzeko epe jakinik; euskara klaseak lan ordutegiaren barruan ditu. Bi arrazoi ditu ikasteko: euskara gustatzen zaiolako eta bere semeari laguntzeko.

TOMAS

Liburuzaina. Lau urte daramatza euskara ikasten eta 1 HE eskuratua du.

Lanean badu euskara erabiltzeko aukera, liburutegian bertan; baina euskarazko liburuak irakurtzera mugatzen du erabilera. Lanetik kanpo koadrillako lagunekin du erabiltzeko aukera eta erabiltzen du. Horretaz gain, ETB-1 ikusten du.

Ez du HE jakin bat akreditatzeko eperik.

Aurten lan ordutegiaren barruan zuen euskara klasea (iaz, ez). Ikasteko zenbait arrazoi aipatzen du: lagunekin komunikatzeko, liburutegian erabiltzeko eta gure kultura delako.

MONIKA

Auto-enplegurako teknika da.

Denbora “gutxi” darama euskara ikasten. Ez daki hitz zehatzez definitzen zein maila eskuratu duen orain arte, baina bere hitzetan “maila elementala” eskuratua du.

Lanean euskara erabiltzeko aukera gutxi du; lanetik kanpo gehiago bere adiskideak euskaldun berriak direlako. Eta batzuetan erabili egiten du.

Ez du maila jakinen bat akreditatzeko eperik. Euskara klaseak lan ordutegiaren barruan daude. Eta ikasteko arrazoiez galdetuta, zera erantzun du: “porque se abre a otro mundo.”

2. IKASTALDEA

JOSE LUIS

Ogasun arloko Ikuskatzailea da.

Hiru urte darama euskara ikasten. 1HEko Atarikora aurkeztu zen eta suspenditu egin zuen.

Badu euskara erabiltzeko aukera, bai lankide batzuekin, bai bere emazte eta alabarekin. Baina ez du erabiltzen harremanak beti izan baitira gaztelaniaz eta orain zail egiten baitzaio aldatzea.

Euskara lan ordutegiaren barruan du. Euskara ikasteko arrazoi nagusia jakite hutsa da: euskalduna izanda, bere herriko hizkuntza ezagutu nahi du.

JOSE MARI

Orain dela hamabost urte hasi zen, baina harrez gero saltoka aritu izan da. Hiru urte jarraian ibili ondoren, utzi egin zuen eta iaz hasi zen berriro.

Bigarren mailako ikaslea da, nahiz eta berari mailakatze hau fiktizio samarra irudit.

Lanean ez du apenas euskara erabiltzeko aukerari, bere ondoan daudenek ez baitakite. Lanetik kanpo ere ez du ia norekin hitz egin lagunek ez dakitelako eta bere alabak os gutxitan hitz egiten duelako euskaraz.

Momentuz ez du HE akreditatzeko eperik; bere lan ordutegiaren barruan dago euskara klasea. Gustatzen zaiolako ikasten du euskara. Litekeena da geroago bere lanean eskatzea.

3. IKASTALDEA

ROGELIO

Udaltzaina da.

Sei ikastaro darama euskara ikasten. Hasierko mailetan dago (1Bren bukaeran). Hala ere, oraindik ez du 1HE gainditu.

Lanean euskara erabiltzeko aukera gutxi duela dio; lanetik kanpo, batere ez. Erabili, ez du inoiz erabiltzen Zergatirik ez du aipatzen. (Dena den, ikusi elkarrizketan dioena)

Momentuz ez du maila jakinen bat akreditatzeko aperik, baina urtean zehar baliteke izatea.

Euskara klasea lan ordutegiaren barruan dauka. Idatziz ez du azaldu zein den euskara ikasteko arrazoi nagusia.

PATXI

Hau ere udaltzaina da.

Bost urte darama euskara ikasten. Une honetan 1B mailan dago.

Lanean badu erabiltzeko aukera; lanetik kanpo gutxiago. Hala ere, batzuetan erabiltzen du euskara.

Adina dela eta, ez du HE jakinen bat akreditatzeko inolako eperik.

Euskara klasea lan ordutegiaren barruan du.

Euskara jakitegatik ikasten du.

4. IKASTALDEA

XABIER

Enplegurako goi teknikaria da.

“Bizitza osoa” darama euskara ikasten, baina Santurtziko UEn lau hilabete baino ez. Euskaraz aritzeko ez du aukera handirik: lanean “nahi baino gutxiago, baina egiten dudan baino gehiago.” Lanetik kanpo, oso gutxi: lagun batzuekin eta familiako batekin... Eta gutxitan erabiltzen du.

Ez du HE jakin bat akreditatzeko eperik, nahiz eta bere asmoa 1 HE eskuratzea den.

Euskara klasea lan ordutegiaren barruan du, baina hau ez da euskara ikasteko arrazoia. Honetara bultzetu duen arrazoi nagusia hauxe izan da: Gaur egun euskara eta gaztelania, biak, gure hizkuntzak direla konturatzea eta biak jakitea oso inportantea dela. Gainera, Adminstrazio Publikoan gero eta inportanteagoa da lanpostu bat eskuratzeke.

JULIO

Administrari Laguntzailea da.

Bost edo sei urte daramatza euskara ikasten.

Lanean badu euskara ikasteko aukera. Batzuetan telefonoz edo aurrez aurre erabiltzen du. Baina gaiaren arabera moztu egin behar izaten du batzuetan eta gaztelaniaz jarraitu.

Familian, semearekin, emazte eta koinatuarekin; baina normalean jende gehiago dagoenez, erderara jotzen dute.

Ez du HE jakinik akreditatzeko eperik eta euskara klasea lan ordutegiaren barruan dago.

Bere helburua bikoitza da: alde batetik, euskaraz hitz egitea eta bestetik 1 HE ateratzea.

MARISA

Administrari Laguntzailea da eta Emakumaren Zerbitzuan lan egiten du.

Bi urtetan aritu izan da Santurtziko UEan eta badu dagoeneko eskuratuta 1 HE

Lanean aukera gutxi du euskara erabiltzeko, telefonoz batez ere. Eta lanetik kanpo bere alabarekin. Eta beronekin erabiltzen du

Ez du derrigortasun datarik, baina 2 HE atera nahiko luke.

Euskara klasea lan ordutegiaren barruan dago. Euskara ikasteko arrazoi nagusiak euskara bera hobetzea eta 2 HE ateratzea dira.

MARIA LUISA

Administraria da eta CIFOn egiten du lan.

Eskolan hasi zen euskara ikasten eta Santurtziko UEan 3-4 urte daramatza.

Lanean euskara erabiltzeko aukera gutxi dauka: telefonoz noizbehinka eta ikasle batekin. Lanetik kanpo semearekin erabiltzen du, nahiz eta senarrak (Julio) eta koinatuak euskaraz jakin.

Ez du HE jakin bat akreditatzeko eperik, baina hala ere bere helburuen artean dago 1 HE ateratzea, hitz egitearekin batera.

Euskara klasea lan ordutegiaren barruan dago.

5.IKASTALDEA

JOSE MANUEL

Uretako ekintzen koordinatzailea da.

Duela zenbait urte hiruhilabeteko ikastaro bat egin zuen; aurtengo ikastaro honekin, hauxe da Santurtziko UEan ematen duen bigarren ikasturtea.

1-A mailako ikaslea dugu. Lanean aukera asko eta asko du euskara erabiltzeko, lankide zein bezeroekin. Lanetik kanpo ere bai, familian zein lagunekin.

Baina ez du erabiltzen latsa delako duen maila apala dela-eta.

Ez du derrigortasun datarik. Euskara klasea lan ordutegiaren barruan du.

Bere helburu nagusia hitz egitera heltzea da.

MAIKA

Informazioa eta Erregistroa sailean lan egiten du.

Urte asko darama euskara ikasten eta Lehenengo Mailan dago.

Lanean euskara erabiltzeko aukerak baditu, gutxi, eta aprobetxatu egiten ditu. Lanetik kanpo, ordea, ez du aukerarik.

Euskara klasea lan ordutegiaren barruan dago eta erabili nahi duelako ikasten du.

TXEMA

Gidaria da.

Ez daki ongi zehazten zenbat urte daraman euskara ikasten, hainbat aldiz hasi eta ikasturtean zehar utzi beharra izan baitu. Ez daki zein maila eskuratu duen (1-An dagoela esan liteke)

Lanean ez du erabiltzeko aukerarik; lanetik kanpo bere alabarekin, baina gutxitan egiten du euskaraz (behe mailakoa dela kontuan izan behar da)

Ez du maila jakin bat akreditatzeko eperik. Euskara klaseak lan ordutegiaren barruan daude.

Ikasteko bi arrazoi: gustatzen zaiolako eta bere alabagatik.

MANU

“Responsable de sistemas”

Duela 16 urte hasi zen euskara ikasten, baina ondoren etenaldi luzea izan zuen, bost hilabetez egunean ordubete ikasten aritu ondoren. Hasieran antzinako 2. urratsa eskuratu zuen; gaur egun 1-A mailan legoke.

Baditu euskara erabiltzeko aukerak, bai lanean, bai lanetik kanpo; momentuz ez du erabiltzen, baina badu erabiltzen hasteko asmoa.

2006 ingururako 2HE akreditatu beharko du.

Euskara klaseak lan ordutegiaren barruan daude. Ikasteko arrazoi nagusia nahi izatea da; berak pendiente duen gai bat dela uste du.

2. ERANSKINA: Eztabaida taldeetan erabilitako gida eta eztabaiden transkribapena.

ELKARRIZKETETARAKO GIDAK

Jarraian doana da eranskin honetan azaltzen diren elkarrizketetan erabili dudan gida.

HASTEKO

1. Zer moduz doa aurtengo ikasturtea? Pozik dauden ala ez. Aurtengo sistemak (lehenengo aldiz egiten da honelako esperientzia bat) dituen abantailak, aurrekoarekin (hau da, talde arruntetan ikastearekin, bi ordu egunero, lan-ordutegitik kanpo...) konparatuz gero. Aurrekoan baino gusturago, berdin, okerrago...

2. Zergatik ari diren: behartuta, nahi izan dutelako, HE egiaztatzeko...

3. Ea zer lortzea espero duten aurtén.

4. Ea zer nolako inpresioa duten orain arte egindako ibilbideaz euskara ikasteko prozesuan: nolako emaitzak izan dituzten; haien ustez oso onak izan ez badira, zergatik gertatu den...

Orain arteko ikas-prozesua kontuan hartuta, ea zerk lagundu dien gehiago aurrera egiten.

Eta zein izan den beraientzat oztoporik handiena, trabarik larriena... Inoiz euskara ikasteari uzteko gogoia izan duten...Zer dela eta.

SAKONTZEKO

1. Zuzenean galdetu ea Hizkuntz Eskakizun kontu honek guztiak zer nolako inpresioa, iritzia... sortzen duen beraientzan.

- Ea ondo jokatzen ari den Administrazioa, bai Orokorra, bai Herri Administrazioa.
- Aldaketaren baten premiarik nabarituz gero, zer aldatuko luketen: bai legedian bertan, H.E.en definizioan, akreditatzeko moduan, epeetan...
- Derrigortasunak zer nolako eragina duten beraientzan: akuilu gisa ala kaltegarri...
- Beraien ustez, euskara ikasten ari diren lankiderik gehienek zergatik ikasten duten.

2. Euskararen erabileraren inguruan:

- Lanean erabili ahal dute? Norekin? (bezero, lankide...) Lanarekin lotutako kontuen inguruan, bestelakoetan, bietan...?
- Erabiltzeko aukerarik izatekotan, erabiltzen dute? Ezetz bada erantzuna, zergatik? Zein da trabarik handiena?
- Lanetik kanpo kontu bera: ea erabiltzeko aukerarik duten. Baldin badute, erabiltzen dute? Zergatik?

1. IKASTALDEA

ELKARRIZKETA EGUNA: Otsailak 3, asteartea

ORDUA: Eguerdiko 1^a

IKASLEAK: Arturo, Juanra, Monika eta Tomas

MAILA: 1B

G. Aurtengo esperientzia, bere ezaugarri guztiekin (ordutegia, taldekatzea...), zer moduz ari da ateratzen, zuen ustez?

ARTURO. Denbora asko da utzi nuela euskara eta orain berriro hartzen dut; nik uste dut klaseetan gramatika asko falta dela. Nik uste dut pixka bat gehiago eman beharko litzatekeela... Bestalde, talde txikia delako, denbora honekin, denok parte hartzen dugu, denok hitz egin dezakegu...

TOMAS: Nik elementu positiboak ikusten ditut oraingoan talde honetan; eta, bereziki, hitz egitea behar dut... Gramatika ederki, baina euskara hobetzeko hitz egin behar dut.

G.: Eta talde honek hori ahalbidetzen du?

T.: Bai, talde txikia da eta horregatik hitz egitea batez ere...

MONIKA: Niretzat ondo dago ordutegia, taldea... Nik uste dut asko hitz egiten dugula eta hori inportantea da. Niretzat inportanteena euskara ikasteko hitz egitea da. Oso ondo

JUANRA: Dena esanda dago. Nire ustez, taldea oso ona izan da eta niretzat bakarrik balio du hitz egiteak; eta talde honetan asko hitz egiten dugu. Beste alde batetik, Arturok arrazoia dauka... Nik emango nuke gramatika pixka bat gehiago; baina ez ikasteko derrigorrez... Ez dakit, adibidez, pautak orokorrak... Adibidez, egiturak ezezko esaldietan, edo denborazkoetan... eta hori; baina gainetik, eta inportanteena. Gero hitz egitea eta lanak aurtan egin ditugun bezala; adibidez, testu bat eta guk atera behar dugu testuingurutik... ulermena, hiztegia aberasteko. Baina, orokorrean, urte honetan primeran.

G. Beste taldeetan batzuek komentatu dute labur geratzen zaiela ordu beteko saioa. Ez dakit hau ere zuen inpresioa den edo zuentzako ondo dauden ordu beteko klaseak.

J.: Pixka bat laburra ordu bat batzuetan... Niretzat onena ordu eta erdi

TOMAS, MAIKA: Bai, bai...

TOMAS: Lehen bi ordu behar genuen eta oraingoan ordu bat...

ARTURO: Niretzat ordu bat ez da eskasa, talde txikia delako. Guk, laurok, parte hartzen dugu. Beste ordu erdi bat edo ordu bat badaukagu, gauza pila bat ikusiko dugu, gauza gehiago, noski; baina niretzat ordu batekin ondo dago momentu honetan eta egitura honekin (talde txikiak) eta gainera ez da nabaritzen nekea, azkar doa klasea... Es ke, begira zer ordu den (eguerdiko ordu batean hasten da klase hau)

JUANRA: Ezberdina da: imajina ezazu 9etatik 10etara, adibidez. Desberdina da: hasieran fresko zaude eta orduan ordu bat eta gehiago; baina eguerdian ja produktibitatea baxuagoa da.

MONIKA: Ondo dago deskonektatzeko...

JUANRA: Bai, baina ordu bat momentu honetan ondo dago, baina beste ordutegi batean laburregia. Eguerdian, ordu bat eta kito.

G.: Ordu bietako taldean batek komentatzen zuen berak nahiago zuela lanera sartu baino lehen aritzea euskara ikasten. Izan ere, lana utzi ondoren bera ez zen kapaza lanetik eta

lan arazoetatik deskonektatzeko. Arazoak ekartzen zituen klasera eta agian bere arreta jaitsi egiten zen. Zuei ere gertatzen zaizue antzekorik?

MONIKA: Bai, noski. Gainera, batzuetan gutxienez berandu heltzen naiz lanagatik; baina, beno, gure giroa hemen lasaiagoa da. Bost minutu pasatu ondoren dagoeneko deskonektatu dut eta hemen nago, klasean.

G.: Zuek zer nola inpresioa duzue orain arte egindako ibilbideaz, euskararen alorrean, euskara ikasten hasi zinetenetik? Asko kostatu zaizue honaino heltzea? Espero zenuten baino erritmo apalagoa eraman duzue? Zeintzuk izan dira irauteko gehien lagundu dizueten elementuak, faktoreak? Eta zeintzuk izan dira trabarik handienak? Pozik zaudete orain arte egindako lanaz? Pozik ez bazaudete, zergatik?

ARTURO: Urte pila daramat euskara ikasten; hasi nintzenean gaztea nintzen. Baina ez naiz ibili etengabe: hasi, utzi., hasi... Eta nik oztopo handiena ikusten dut kalean: euskara ez da plazaratu. Orduan, hori nabaritzen da: guk ikasten dugu eta ikasitako hor geratzen da, ez dugu erabiltzen euskara gure hizkuntza bezala. Normalean hitz egiten dugu ikastolan, etxean... baina kalean ez da erabiltzen. Hori da niretzat oztopo handiena.

G.: Animuan ere badu eraginik honek? Hau da, zeure buruari galdetzen diozu “Zer ari naiz ikasten: hizkuntza arraroa, minoritarioa...?”

ARTURO: Hemen, Ezkerraldean, Bilbon... ez da erabiltzen. Beste leku batzuetan bai, noski... Joaten bagara Donostiara edo herri txikietara, adibidez... hor erabil dezakegu eta ondo dago. Baina normalean ez da erabiltzen eta niretzat asko nabaritzen da. Tabernetan zegoen esaldi hori “hizkuntza bat ez da galtzen...” Ez bada erabiltzen, hor dago, bitrina batean...

MONIKA: Bai, baina gutxienez, nire ustez, atea ireki da. Nik orain ETB-1 ikusten dut edo “Euskadi Gaztea...”

ARTURO: Baina hori ez da asuntza. Zer behar du hizkuntza batek? Mintzatzea, ez?

TOMAS: Baina hasiera positiboa da...

MONIKA: ... eta berri bat egunkarian eta “ulertzen dut”, oso ondo.

TOMAS: Bai, orokorrean ados nago Arturorekin: euskara bultzatu behar da ekitaldi honetan, kalean...

G.: Baina zuen esperientziara itzulita, aipatu duzue orain kalean ezin praktikatzea traba bat dela... Horrelako beste traba edo oztoporen bat izan duzue? Edo, alderantziz, zerk animatu zaituzte gehien lagundu dizuen gehiago urteetan euskara ikasten jarraitzeko?

MONIKA: Beste hizkuntza bat jakitea, elkarriketa bat mantentzeko...

ARTURO: Nire kasuan, asko gustatzen zait euskara: zaila da, baina gustatzen zait. Eta nik uste dut gure hizkuntza dela. Orduan guk ikasi egin behar dugu.

Bestalde, nik ikusten dut denbora asko daramadala euskara ikasten eta, hala ere, ez dudala menperatzen hizkuntza. Hori da eten egiteko arrazoia.

G. Zure kasuan, hauxe izan da urte batzuetan euskara ikasteari uzteko arrazoia edo izan dira bestelako arrazoi batzuk ikas-prozesua eteteko?

ARTURO: Nire kasuan bai. Batzuetan bai. Irailean tokatzen zitzaigun irakaslea ez dakit nolako zen (astuna...) eta ez dut agoantatzen... Baina badira beste arrazoi batzuk: bizitza aldatzen da, ezkontzen gara, seme-alabak eduki ditugu... eta hori nabaritu egiten da: denbora eskasa da... Eta horrekin nahaste-borraste bat egiten badugu, ba ...

MONIKA: Hor inportanteena da taldea...

TOMAS. Giroa ere bai... Giroaren arabera. Adibidez, zure koadrilan, familian, edo talde bat... laguntzen du euskaraz hitz egiten du. Adibidez, nire kasuan, nire koadrilan batzuek euskaraz hitz egiten dute eta nik euskaraz hitz egin nahi dut.

JUANRA: Nik gorabehera asko eduki dut. Baina nik ez daukat presarik euskara jakiteko. Normalean, poliki-poliki maila handiagoa lortzen duzu euskara erabiltzeko eta horrek animatzen nau. Norekin hitz egiten du? Ba, bakarrik nire semearekin. Bestela, kaletik inorekin ere ez. Nire buruari esaten diot: "Bueno, zertarako balio du? Ezertarako ere ez: jakiteko" Eta noizean behin (normalean asteburuetan euskaldun zaharrek egoten naiz eta noizean behin hitz egiten dugu pixka bat (nire lagunak erdaldunak dira) Noizean behin izaten dugu elkarriketa bat euskaraz eta erabiltzen dut. Baina normalean hemendik Santurtzitik, inoiz ere ez. Lanean noizean behin. Eta nik normalean semearekin hitz egiten dut, etxerako lanak egiten, azterketa prestatzen... eta kito! Eta horregatik nik jarraitzen dut, ez daukat presarik... Inportanteena nire ustez lan-ordutegiaren barruan egotea da. Bestela, esaten duzu: "Arratsalde, bi ordu egunero... Zein gogorra!" Baina lan-orduaren barruan... ondo! Horregatik, ez naiz inoiz desanimatu.

MONIKA: Ados nago, bai. Nik uste dut, nire kabuz, erdaraz hitz egiten dudala. Ohitura izango da, baina, beno, poliki-poliki, euskaraz hitz egin ahal dut, baina lorpen handia da niretzat zerbait ulertzea, elkarriketa normala eta arrunta euskaraz burutu ahal izatea....Niretzat animurako arrazoi handia da.

G: Batzuek dagoeneko komentatu duzue zerbait. Zein da gaur egun zuentzat euskaraz ikasten jarraitzeko arrazoi nagusia?

MONIKA: Beste hizkuntza bat jakitea, beste ate bat irekitzen da zure bizitzan: mundu edo kultura berria...

TOMAS. Berdin, bereziki jakitea zerbait. Gainera gure hizkuntza da; koadrilan komunikatzeko, mundura irteera bat...

JUANRA: Nik ez daukat arrazoi berezirik. Hizkuntza bat jakitea. Gainera,hizkuntza hau bertakoa da. Ingelese, adibidez, nik ez dut inoiz ikasi. Euskaraz? Bai,nire semeak betidanik ikasi du euskaraz eta laguntzeko nik ere euskaraz. Ez da derrigorrezkoa. Noizean behin erabiltzen dut hizkuntza... Horregatik ez daukat arrazoi berezia

G.: Zuetariko inork ez du Perfil bat kreditatzeko premiarik? Edo epe ertain edo luzera?

JUANRA: Ez da beharrezkoa, baina inportantea da merituak edukitzeko. Baina nire lanpostuan...

ARTURO : Gu funtzionarioak gara...

TOMAS: Ez, ez, ni interinoa naiz

MONIKA: Ni laborala naiz

G. Eta zuek ezagutzen dituzuen beste lankideak... Hauen kasuan, zein uste duzu dela euskara ikasteko arrazoi nagusia? Zergatik ikasten dutela euskara uste duzue zuek?

ARTURO: Denetarik dago: batzuk euskara behar dute lanpostua lortzeko; beste norbaitek lortu egin behar du: bere PLak epea dauka. Derrigortasun data du. Beste batzuek, guk edo nik bezala: gustatzen zaielako, maite dutelako...Arrazoi ezberdinak daude. Eta beste batzuek oposaketak gainditzeko...

TOMAS: Edo zerbitzua hobetzeko, publikoaren aurrean hitz egiteko.

G. Hizkuntza Eskakizunen kontua zuek nola ikusten duzue? Zer nolako sentsazioa duzu honen inguruan? Jaurlaritza, Udala ... ondo jokatzeko ari direla uste duzue? Ikusten duzue planteamendu honetan aldaketaren bat egin beharra, bai Legean bertan, kreditatzeko moduan, azterketan...? Derrigortasuna ona da edo ez?

ARTURO: Kasuaren arabera, ezta? Zure lanpostuak badauka Perfil prezeptiboa, nire ustez erraztasunak eman behar dizkizute euskara ikasteko, ikastaroak egiteko...Euskara ez da erraza, zaila da...

JUANRA: Zailena, nire ustez zailena...

ARTURO. Zergatik ikasi behar duzu euskara? Lana burutzeko bada, erraztasunak eskaini behar dira honelakoetan. Besteak? Bueno, ba laguntza. Nola? Ba orain egiten ari garen bezala: ordu bat eskaintzea, lanaren barruan, euskara ikasteko. Nik erraztasunare handiagoak emango nituzke.

TOMAS: Ados nago: lanpostu batean PL prezeptiboa bada, ba laguntza, liberazioa... Beste kasuetan, bestelako laguntza: , ordutegi egokian, ordutegi barruan jartzea euskara klasea...

ARTURO: Begira, adibide bat. Andereño eta irakasleen artean, batzuek ez dakite euskaraz. Nola egin dute jende horrek euskaraz ikasteko? Bada denborarekin: barnetegiekin ikastaroekin... Zergatik? Ba, behar dutelako. Eta zergatik ezin dugu kasu bereberean berdin jokatu? Horixe da gure ispilua guk begiratzeko. Eta berdin diot Udaletxeak, Diputazioak...

G: Kanpotik zera ikusten da: administrazioko langile asko kexatu egiten dela H.E.en kontu honen inguruan: “inposaketa bat da, ez dago eskubiderik...!” Zuek ere baduzue honelako sentsaziorik?

JUANRA: Badakigu nork esaten duen hori...

ARTURO: Baina zer edo zer egin behar du Eusko Jaurlaritzak edo norbaitek, maila hori egiteko: azterketa, frogak, ... edo ez dakit zer. Nola begiratzen du Jaurlaritzak zein maila dagoen? PL edo... zer edo zer.

G: Pasa gaitezen erabilerara. Baduzue zuek aukera errealik euskara erabiltzeko, lanetik hasita (lankideen artean, nagusiekin, herritarrekin...)? Bai ala ez? Eta baldin baduzue, erabiltzen duzue? Eta gauza bera lanetik kanpo. Lehenago koadrila, familia (semea) aipatu duzue... Baduzue aukerarik? Eta baldin baduzue, aprobeztatzen duzue?

MONIKA: Nik lanean ezin dut euskaraz hitz egin; momentuz, lan honetan. Nik “bi telediario” daukat hemen; denbora oso gutxi daramat hemen. Zortzi hilabete barru amaituko da nire kontratua; baina segur aski, denborarekin batera, beste lan batean hitz egin ahal izango dut euskaraz.

G: Zergatik diozu ezin duzula euskaraz lan egin: norekin hitz egin ez duzulako edo zure maila oraindik baxu samarra delako lanean erabiltzeko?

MONIKA: Ez, nire maila ez zait inporta: poliki-poliki... Baina nire bulegoan ezin dut euskaraz hitz egin. Azkenean denok idazkiekin lan egiten dugu. Gure dokumentuetan diplomak, agiriak ... egiten ditugu... Eta hor erabiltzen dut zerbait euskaraz idatziz; baina ezin dut hitz egin, besteek ez baitakite euskaraz. Baina gero koadrilarekin ahal dut. Batzuetan erabiltzen dut parrandan gabiltzanean...lotsa gabe... Erabiltzen dugu euskara: nahi baduzu, ahal duzu.

ARTURO: Ni ez nago ados horrekin. Nik uste dut tipo batzuekin mintzatu ahal garela, baina oso zaila da, hasieran esan dudana bezala: ez dago euskara kalean: edonorekin hitz egin nahi baduzu euskara, oso zaila da. Erdaraz ahal dugu; baina kasu horretan gauza berbera gertatzen da euskaraz? Nik uste dut ezetz.

G: Baina kontua da ea zure lanean, inguruan, ea daukazun aukerarik euskaraz aritzeko.

ARTURO: Nik uste dut ezetz...

JUANRA: Ni ere euskaldun zahar batekin egoten naiz lanean eta ez dut hitz egiten berarekin. Ez dakit, zergatik: normalean ohituragatik...Noizean behin agertzen da pertsona bat euskaraz hitz egiten eta erantzuten diogu euskaraz; baina normalean erdaraz ateratzen zaigu. Normalean erdaraz hitz egiten dugu, eta ez dakit, ni kaletik joaten naizenean eta Arturo edo Monikarekin topo egiten badugu, normalean erdaraz hitz egiten dugu.

G. Hor badaude ohitura batzuk eginda, ezta?

JUANRA: Bai, txipa programatuta dago eta...

ARTURO: Gure harremanak erdaraz finkatuta daude. Nik uste dut horixe dela asuntia. Gure giroa erdalduna da...

MONIKA: Baina egin behar dugu, eh...adibidez...

JUANRA: Baina oso zaila da. Gutxienez Santurtzin oso zaila da aldatzea hori...nire ustez...

MONIKA: Baina poliki-poliki ahal da aldaketa egitea. laz, gogoratzen duzue Irene?

JUANRA: Nik erdaraz hitz egiten dut berarekin.

MONIKA: Ba Irenerekin elkar aurkitzen dugu eta euskaraz hitz egiten dugu; gure euskaraz, baina... eta ohitura bat da.

TOMAS: Nik liburutegi batean lan egiten dut eta D ereduko umeekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz. Eta, bueno, batzuetan, elkarrizketa luzeagoak...

G.: Eta lanetik kanpo? Lehen aipatu duzue koadrila, semea...

TOMAS: Nik koadrilarekin...

JUANRA: Nik semearekin eta, noizean behin, asteburuan Bermeo, Gernika eta Abadiñoko jendearekin, baina noizean behin, normalean erdaraz hitz egiten dugu. Taldean batzuk erdaldunak dira, baina noizean behin esaldi laburrak edo elkarrizketa laburtxoak... euskaraz egiten ditugu.

MONIKA: Errazagoa da ulertzea... Ulertu, ba, oso ondo, baina hitz egitea asko kostatzen zait. Jendearen eta giroaren arabera...Oraindik inoiz ez dut hitz egingo , adibidez, nagusiarekin, harreman ofizialetan... Baina gure artean, umeekin... bai.

TOMAS: Lanean, ipuin kontaketa inguruan... Batzuetan aurkezpena egiten dugu eta elkarrizketa haiekin...

ARTURO. Ni normalean kolegioetan umeekin hitz egiten dut. Ni kolegiotik kolegiara ibiltzen naiz...Ez da nire lana (Mantenurako Zerbitzuan lan egiten du), baina umeekin topo egiten dut eta euskaraz hitz egiten dut.

G.: Eta ikastetxeetako irakasle eta zuzendariekin?

ARTURO: Ba normalean ez: egiten ditudan gauzak teknikoak dira eta hori euskaraz esateko...

G.: Eta lehenengo agurrak: kaixo, zer moduz, egunon...?

ARTURO: Bai, hori ez zait kostatzen. Horretaz hitz egiteko ez dut arazorik

JUANRA: Hombre, nire kasuan, tipo bat isun bat ordaintzera doa eta ez naiz hasiko: "Hombre, zer moduz?"

ARTURO: Euskaldun zaharrek ez dute hainbeste arazorik ez euskaraz mintzatzeko... Errazagoa euskaldun zahar batekin hitz egitea euskaldun berri batekin baino. Nik nahiago dut euskaldun zahar batekin hitz egin. Normalean ez dira alfabetatuak eta haiek beren hizkuntzan edo forman hitz egiten dute eta zuk hanka sartzen duzu eta ez dizute ezer esaten. Nire ahizpa euskaraz mintzatzen da, andereñoa da... Eta nik berarekin ez dut normalean hitz egiten, ze bera beti ari da "hori ez da horrela esaten"... Eta nik esaten diot: "joan hadi ..."

JUANRA: Nire semeak niri esaten dit: "Jo, aita, no tienes ni puñetera idea!" "Zergatik", esaten diot nik. Eta berak: "Esan duzu ez dakit zer eta horrela ez da esaten..." Horregatik, uste dut Arturok arrazoia duela.

ARTURO: Ni beste herri batean edo kanpoan egoten nintzenean, euskaldun zaharren herrian, lasai hitz egiten nuen. Esaldi laburrak... Ezagutzen ez duzun tipo batekin ez diozu zure bizitza kontatuko, bestalde. Edozein gauza. Behin, adibidez, Donibane Lohitzunen nengoenean, Iparraldean, portura joan nintzen; eta erosi behar nuen uretarako arropa eta nik ikusi nuen tipo bat, arrantzale bat, eta berarengana joan nintzen eta euskaraz hitz egiten hasi nintzen, gauza laburra, ez? Baina bestela kalean normalean ezagutzen ez duzun jendea ez diozu euskaraz hitz egiten.

JUANRA: Eta batez ere hemengoak. Hemengoak oso sinpleak dira hitz egiteko...erdaraz bezala: "joder, enpatatu du!" Primeran ulertzen da.

ARTURO: Bermeon ere oso erdaldunduta dago.

JUANRA: Tipo batzuk, ulertzeko, ez dute pronuntziatzen...

2. IKASTALDEA

EGUNA: Urtarrilak 30, ostirala

ORDUA: Goizeko 9ak

IKASLEAK: Jose Mari Iglesias (JM), Jose Luis Urtiaga "Piru" (P.)

MAILA: 1B-2

GALDERA: Zer moduz doa aurtengo ikasturtea? Pozik zaudete aurtengo sistemarekin? (Talde txikiak, udal langileak, lan-ordutegiaren barruan, ordubete...) Hauek guztiak elementu positiboak dira? Hobetu ahal dira...?

P. Bueno, nik uste dut denbora gutxi dagoela...

G. Zuk esan nahi duzu ordubete gutxi dela?

P. Bai, bai...Baina taldea ona da. Lau pertsonako taldea ona da.

JM. Nire ustez klaseak laburrak dira. Nire ustez ere ordu eta erdiko klaseak hobeto legoke. Elementu txarra da ordutegia ere. Nik, gutxienez, nahiago dut lan hasieran edo lana amaitzean. Bestela, apurtzen da lan erritmoa (klasea 9etan da eta JM 9etan hasten da lanean) Nahiago nuen hasieran, baina, dirudienez, ezin da momentuz. Talde txikia ona da. Aldaketak ere ez ditut ondo ikusten (Klase honetan irakasle aldaketa egon zen urtarrian)

(Irakaslearen oharra: Hirugarren aldaketa ere badago airean eta honekin ez daude ados.)

G. Zuen kasuan gutxi izanda (lau dira berez klasean baina bolada luzea daramate biok bakarrik) bat edo biren falta asko nabaritzen da edo gustura zaudete biok zaudetenean ere?

JM: Ni gustura nago.

(Irakaslea: biak oso fijoak direnez, gustura daude lanean, hitz egiten...Eta, gainera, gehiago aprobetxatzen dute denbora)

P: Igual, al principio, lo que tenían que haber hecho, igual, eh, es haber juntado las dos clases: como siempre faltamos un par de ellos aquí y allí también, pues igual está bien siempre unos cuatro seguros. Entonces, igual hubiera estado mejor eso.

G. Beste talde horretakoak eta zuek kurtso hasieran, teoriarik, maila berekoak zintzen eta propio egin da banaketa hau talde txikiak sortzeko?

JM: Bai, baina agian taldeak egin aurretik, azterketa txiki bat, elkarriketa txiki bat egitea ondo egongo zen, jakiteko zein den benetan maila; baina gero kurtso erdian aldatzea...

G. Zuek zer nolako espektatibekin hasi duzue aurtengo ikasturtea? Zer lortu nahiko zenukete, noraino heldu nahiko zenukete, zein egoeratan esango zenukete: "Ondo aprobetxatu dut aurtengo ikasturtea"?

JM: Nire kasuan, 12 urte etorri gabe egon ondoren, ia-ia ahaztuta daukat (euskara) Orduan, bueno, berriro hartzea hori. Batez ere, hori.. laz hasi nintzen berriro euskaltegian.

P: Urte honetan nire objektiboa da euskararekin kontakturik ez galtzea.

G. Honekin lotuta, zein da zuen helburu nagusia datozen bi edo hiru urteei begira? Beti planteatzen ditugu bi muturrak: azterketaren bat aprobatzeko, edo euskara ikasten jarraitzeko helburu jakinago batekin... Zein da gaur egun zuen helburua?

JM: Nirea, gutxienez, oinarriak ondo hartu eta hobeto jarraitzeko. Nire lanpostuan ez dago, momentuz, Perfilik. Orduan, hori ez da nire helburua.

G. Baina honen barruan, zertarako nahi duzu gaur egun euskara: besteekin komunikatzeko, zure familiarekin, alabekin...?

JM: Nire alabak...! Oso handiak dira eta nik baino gehiago dakite eta gutxi hitz egiten dute... Niretzat... (ikasten dut euskara)

P: Niretzat ez da beharrezkoa Perfila ateratzea, baina, bueno, ni euskalduna naiz eta Euskal Herriko hizkuntza da euskara eta horregatik euskaraz jakin nahi dut.

G. Eta zer egiteko gauza izan nahiko zenuke euskararekin? Zein momentutan esango zenuke “Honaino heldu naiz eta nahikoa dut.” Zer egiteko kapaza izan nahiko zenuke: komunikatzeko, irakurtzeko...?

P: Ba, hori, ulertzea eta hitz egitea... Honekin ni konformatuko naiz.

G. Zuen inguruko langileak, zuek ezagutzen dituzuenak (zuen departamentukoak edo...), zein da, zuen ustez, haien arrazoi nagusia euskara ikasteko?

JM: Gure taldekoek, gutxienez, gustatzen zaielako ikasten dute, ez baitaukate Perfilik, guk bezala.

P: Agian Itziarrek... Perfila badauka (1.a), baina oposaketak edukiko ditu eta...

G: Eta besteak? Hau da, zuen taldetxo honetatik aparte daudenak, zein da, zuen ustez, haien helburu nagusia?

P: Gehienek, agian, Perfila ateratzea.

JM: Ez dakit, agian, Perfila ateratzea...

P: Baina, igual, honetan, Perfilak oso txarto daude...

G. Zein zentzutuan?

P: Te lo voy a decir en castellano; si no, no voy a saber explicártelo bien. Pues que no tienen mucha intención en este Ayuntamiento de que la gente aprenda euskera. Les importa bien poco que ahora que vaya alguien expresándose en euskera, solicitando algo...; y que le digan que tiene que expresarse en castellano. Le da igual eso. No ponen muchos medios para que, por lo menos los que están de cara al público sepan euskera y el que quiera venir al Ayuntamiento de Santurtzi a solicitar algo en euskera, lo pueda hacer.

G. Bueno, baina nahiz eta momentuz udalak euskararen aldeko politika oso argia ez izan, zuek lankide batzuek agian ikusiko dute agian oraindik ez baina epe ertain luzean agian etor litekeela Perfilen kontu hau eta “badaezpada ere... ikas dezagun...” Egon liteke honelako sentimendua? Edo ikasten duten gehienek ikasten dute, zuek bezala, euskara maite dutelako, euskaldun sentitzen direlako...?

TX: Nik uste dut oso gutxi eskatzen dutela gure lanpostuetan euskaraz eta bost axola zaie agintariei; eta, nire ustez, beharrezkoa da Perfil altuak ipintzea eta edozein lanpostutan, baina batez ere leihatilatakoak... Euskara legezko hizkuntza da hemen eta edonork erabil dezake hemen...

G. Zuen ustez, legea bat egotea eta Perfilak exijitzea... hori guztia egoki ikusten duzue teorian?

Tx: Bai, baina zenbat denbora daramagu Perfilik gabe? Noiz agertu dira Perfilen kontua? Noiz izango dira hemen derrigorrezkoak, prezeptiboak? Gaur egun ez dago jendea prestatuta, nire ustez, Perfil hori kalera ateratzeko...Horrela jarraituko dugu beste hainbat urte. "Perfil Prezeptibo", nire ustez, ya! Txarto jarraitzen dugu.

G. Orduan, argi ikusten da ez zaudetela konforme hemengo udalak Perfilen inguruan jarraitzen duen politikarekin. Baina Perfilen kontua, berez, teorian, ondo ikusten duzue, dagoen bezala? Hor komunikabideetan eta ikusten da jendea ez dagoela oso konforme kontu honekin: estresatuta dagoela, Perfila zintzilik dagoen ezpata bat bezala ikusten dela; oso modu zurrunean exijitzen dela...

TX: Ez dakit, badaramagu ez dakit zenbat urte Profilekin... Edozein lanpostutan azaltzen da (orokorrean) Perfila zein den...

G. Berrito itzulita euskara ikas-prozesu osora, zein izan da orain arte aurrera egiteko eta irauteko, edo berrito itzultzeko... laguntzarik handiena, motiborik sendoena? Eta zein izan da eragozpen edo trabarik handiena, edo desanimatzeko?

TX: Estimulanteena izan da jakin nahi dudala izan da; eta oztoporik handiena, nire ustez, ordutegia, erraztasun falta, Jakina, nire lanak ez dauka Perfilik; orduan, inportanteena lana bera da. Euskara ez da beharrezkoa nire lanean.

G. Zergatik zaude hemen: udaletik jaso duzu talde honetan aritzeko aukera edo zuk zeuk azaldu duzu interesa eta euskara ikasteko asmoa?

TX: Nik egin dut demanda. Bestela, haien partez, ez.

P: Animurik edo bultzadarik handiena euskaraz jakin nahi izatea. Desanimatzeko, euskara bera oso zaila dela. Algunas veces no adelantas nada y tú mismo te desanimas. O crees que no adelantas nada. Luego hay otros días en que parece que sabes más de lo que crees. Y eso es lo que me pasa.

G. Eta hau noiz konprobatzen duzu, batez ere: irakaslearen azalpen bat ulertzen ez duzunean edo hitz egiteko kapaza ez zarenean edo ariketa bat egiteko...?

P: De todo, me ha pasado de todo. A veces no me veo capaz de comunicarme, otras veces tengo un escrito aquí y no lo acabo de agarrar... Te desmoronas un poquito; pero luego igual ves al día siguiente, yo no sé por qué será, que estás mejor, entiendes y hablas...

G. Zuk eskatu duzu talde honetan egotea ala Udalak eskatu edo proposatu dizu?

P: Yo la verdad este año no pensaba estudiar euskera porque solo podía hacerlo por la tarde. Entonces, este año estoy muy ocupado por la tarde. Lo iba a dejar este año. Luego me enteré que iba a haber cursos por la mañana en horas de trabajo, entonces hablé con Carlos Glaría (euskara arduraduna Udaletxean) y me metió en este sistema.

G. Goazen erabilerarekin. Badaukazue zuek lanean, lan-denboran, objetiboki, lankide, arduradun edo herritarrekin euskara erabiltzeko aukerarik? Zuk, Piru, adibidez, nortzuekin dituzu harremanak lanean?

P: Normalean "de igual a igual", nagusiarekin... Herritarrekin, gutxi... Nik ahal dut euskaraz hitz egin lankideekin, baina inoiz ez dugu hitz egiten.

G. Eta hori zergatik?

P: No estamos acostumbrados. Y lo mismo me pasa en casa: mi mujer y mi hija hablan en euskera, pero incluso entre ellas hablan en castellano. Nos hemos educado desde pequeños

en castellano y no sé si es eso. Mi mujer tiene el EGA, es maestra de críos; y mi hija habla perfectamente, pero nunca hablamos en euskara. Empiezo a hablar con la cría y empieza a reír de lo que digo y...

G. Elkarrizketa guztietan azaltzen da kontu hau. Seme-alabak dira... akatsak ateratzen, “horrela ez da esaten...”

P: Se enfada. No sé si no puede ver que su aita mete la pata... Si empiezo yo, mi mujer me intenta ayuda...

Irakaslea: Zelako zortea duzun: euskaraz hitz egin nahi izanez gero...

TX: Nire lan-taldean ez daki inork euskaraz...

G: Bueno, Txemak (beste talde bateko ikasle bat), badaki zerbait...

TX: ...Bueno, “egunon, zer moduz” eta horrelakoak... Eta besteekin? Ba oso gutxi. Zergatik? Normalean komunikatzen zara haiekin zerbait konpontzeko (Txema argiketaria da) eta orduan argi eta garbi jakin behar duzu zein den akatsa. Orduan ba derrigorrez pasatu behar gaztelaniara... Saiatzen naiz hitz egiten, lankideekin... Azken batean, oso aukera gutxi dut lanean. Gero etxean nire emazteak ez daki ezer. Alabekin ere gutxi, nahi ez dutelako. Gure lagunek ere oso gutxi dakite... Lehen Atletismo pistan zerbait egiten genuen (entrenatzailea da) Urtean behin edo bi aldiz egin dugu kontzentrazio edo selekzio bat eta umeei oso gutxi egiten genuen... Azken batean, aukera oso gutxi. Eta aukera azaltzen bada, liatuta zaude, arin zoaz... eta gaztelaniaz. Hemen bai. Telebista ikusten, musika entzuten, zerbait irakurri...

G. Eta hau dela eta, egiten duzu zerbait diziplinatua hemendik kanpo? Adibidez ETBn ikusiko dut “Goenkale” edo Teleberria, edo astean behin erosiko dut ez dakit zer, egunkaria, aldizkariren bat...

TX: “Kirolez kirol” egunero

P: orain ikusten dut “Barnetegia”, baina aldatu dute ordutegia... Eta orain ezin dut ikusi eguerdiko laburpena. Lehen hiru eta erdietan ematen zuten eta orain etxera heltzen naizenean, hasita dago eta azkenean dago.

3. IKASTALDEA

EGUNA: URTARRILAK 29

ORDUA: EGUERDIKO 2ak

IKASLEAK: PATXI (P.) ROGELIO (R.)

MAILA: 1B

G. Zer moduz aurtengo ikasturtea, aurtengo esperientzia berria kontuan hartuta? Hau da, talde txikiak, lan-ordutegiaren barruan, ordubeteko saioak, talde homogeneousak (udaletxeak langilez osatuak...)

Proposatzen diren lanak egiten ditu. Klasetik kanpo ere lantzen du bere kabuz euskara, ez klaserako zuzenean, baina bai bere ikas-prozesurako osagarri eta aberasgarri. Adibidez, euskara erabiltzen saiatzen da bere bizitza pertsonalean (esan bezala, lagun eta ezagun euskaldun asko du) Euskaltzale-euskaltzalea.

Interes handia agertzen du euskara eta euskal kulturarekiko. Oso gustura sentitzen da eta eragozpenei aurre egiten die lasaitasun osoaz. Gainera, ez du uste arazori duenik: dakien euskaraz ondo moldatzen dela ikusten du, onartzen du akatsak egiten dituela euskara estandarra, batua erreferentzia gisa hartuz gero...; baina aurrera egiten du. Euskara erabiltzen du, baina bere euskara da, izandako eta dituen lagun eta ezagunekin landutakoa. Komunikatu, komunikatu egiten du, beti ere berak esan nahi duena interpretatuz gero.

AURRERAPENA

Ez du askorik aurreratu. Euskaltegia etorri zenean, bazuen altxor handia. Orduan, klaseak eskaintzen diona ezin da konparatu berak dakienarekin. Irakaslearen ustez, berak egoera pribilegiatuan ikusten du bere burua, klasean eskaintzen dena baino gehiago dakielakoan. Oraindik ez da heldu momentua bere gabezia jabetu eta klasean berak dakiena baino gehiago eskaintzen dela onartzeko. Irakasleak estankatuta bezala ikusten du, baina ez arazo gairak dituelako, baizik eta oraindik bere arazoez jabetu ez delako. Berak uste du egiten dituen “akats gramatikalekin” bizi daitekeela (euskaldunekin lortzen duen komunikazioa horren erakusgarri da). Euskaltegian errorea dena, klean ez da.

Idatzizko produkzioan nabarmenagoak dira akatsak, baina berarentzat, lehenago esan bezala, ahozko komunikazioak du garrantzirik handiena.

Ulermenean, oso ondo, ez du inolako arazorik izan. Klasetik kanpo ere asko lantzen du bere kabuz.

Produkzioan ez zaio aurrerapenik nabaritzen. Lehenago esan bezala, berak ez ditu erroreak aintzat hartzen. Irakasleak zuzenketak egiten dizkio eta kontua ez da ez dituela onartzen. Ez. Bera oso seguru sentitzen da eta modu batez gaizki esaten badu, badu esateko beste modu bat bere erreperitorioan.

JUANRA

Asistentzia oso ona eta partehartze handia. Arturo bezala, oso berritsua da.

Egin beharreko lan guztiak egiten ditu, baina klasetik kanpo ezer gutxi ez baitu asti handirik. Badu, berez, maila nahiko altua gurekin aritutakoa baita eta ikas-prozesuan jasotakoaz ongi baliatzen da.

Gogotsu eta interes handiarekin. Ez dago behartuta (1HE eskuratu zuen) Irakasleak egiten dizkion ohar eta zuzenketak apuntatu egiten ditu.

Urduritasun eta larritasunik ez.

Klasean euskaraz aritzen da, baina klaserako eta lanerako bidean ez.

AURRERAPENA

Aurreratzen ari da, apurka: garai batean (aspaldi samar) ikusi eta ikasi zuena gogoratzen eta koordinatzen du orain ikusten ari denarekin, esfortzu handirik egin gabe. (Irakaslearen apreziazioa: esfortzurik suposatuko balio, agian, ez luke egingo) Klasean egiten duenarekin nahikoa du. Aurrerapen honetan pisu handia du garai batean gurekin ikasitakoak.

Produkzioan gehiago kontrolatzen du, gehiago erreparatzen dio zuzentasunari, idazlanaren planifikazioari... Honetan eragin handia euskaltegian izandako esperientziak eta honek ezartzen duen nolabaiteko ikasteko estilo eta ohitura.

TOMAS

Asistentzia oso ona, ez egunero, baina oso-oso noizean behin eta etorri ezin izan denean (lanaren lotuta), abisatu izan du.

Kostatu egiten zaio beste baten iritzia edo zuzenketa onartzea (beste hori irakaslea izanda ere), Dirudienez, ez ditu zalantzak izan nahi eta dakiena horrela izan behar da.

Euskaraz irakurtzen du, irratia ere entzuten du. Bide horretatik jasotakoa erabiltzen saiatzen da. Batzuetan asmatu egiten du, baina beste batzuetan ez (egitura eta esaldi nahasgarriak) Gehiago onartu beharko luke irakaslearen aportazioa. Kostatu egiten zaio irakaslearen zuzenketa onartzea eta zuzenketa horren edukia bere ezagutzara inkorporatzea. Dena den, honek badu bere alde ona, irakaslearen autonomia azpimarratzen baitu: bere bidea egin nahi du. Irakasleak bide hau sendotzearen aldeko apustua egin du, unean uneko zuzentasunaren kaltetan.

Klasean proposatzen diren lanak egiten ditu eta, horretaz gain, bere kabuz irakurri eta entzuten du, arestian esan bezala.

Gogotsu ari da ikasten, interes handiarekin. Nahi duelako, bere jakituria eta hizkuntzaren ezagutza handitzeko ikasten du (liburuzaina da)

Euskaraz aritzen da, ahal duen guztia. Ahal balu, hitz erdirik ere ez luke erdaraz egingo. Euskaltzalea da.

AURRERAPENA

Bigarren hiruhilabetea, aurreratzen ari da, apurka bada ere. Aurrerapen handiagoa ez izatearen arrazoa, hain zuzen ere, aurreko atalean deskribatutako jarrera izan liteke: bere usteak eta ohiturak tinkoegiak direla eta ez duela onartzen kanpotiko ekarpen eta zuzenketak.

(Klase honetan denbora asko eskaini zaio ikasle batek zuen 1HE ateratzeko premiari. Honek bideratu du, hein handi batean, klasearen ibilbidea)

Trebetasun hartzaileak (irakurmena eta ulermena) ondo garatu ditu. Gainera, xehetasunei ere erreparatzen die. Klasetik kanpoko lanaren emaitza, seguruenik.

Produkzio mailan ere nabaritzen zaio aurrerapena. Lau trebetasunen artean ez dago desoreka edo deskonpentsazio handirik; guztia eramaten du aurrera.

MONIKA

Mailarik baxuena duena.

Asistentzia kaskarra. Lan kontuak direla eta, arazoak ditu egunero klasera etortzeko. Askotan azken ordukoak. Etorri ez den hurrengo egunean adierazten du zergatia.

Besteek baino gutxiago dakiela jabetzen da, baina onartzen du eta ikaragarritzko ahaleginak egiten ditu besteen mailara heltzeko. Ikasten dakien pertsona da. Den-dena apuntatzen du, irakasleak zein ikaskide batek esan, testu batean azaldu.

Klasetik kanpo, laneko kontuak ulertzen saiatzen da, idazkiak batez ere. Eta klasera ekartzen ditu zalantzak. Benetako interes handia erakusten du.

“Estres” puntua erakutsi du HEen kontuarekin. Atariko Proba gainditu zuen, espero ez zuenean. Honek lan handia ekarri zion, ez baitzegoen azterketa idatzia gainditzeko egoeran. (Lehenengo deialdia ez zuen gainditu eta orain kontrasteko azterketaren emaitzaren zain dago) Izugarritzko lana egin behar izan du azterketari begira.

Euskara egiten saiatzen da, baina besteek baino baliabide gutxiago duenez, bere buruarekin haserretzen da. Honek batzuetan atzera eragiten dio. Saiatu, saiatzen da euskara bakarrik erabiltzen.

AURRERAPENA

Aurreratzen ari da, baina izugarritzko lana eginda, besteek egin behar ez dutena. Honetarako asistentzian dituen arazoek izango dute eragina. Edonola ere, ezagutza mailan behintzat asko aurreratzen ari da, ikaragarri. HEari dagozkion frogetan defenditu egiten da. Gainera, oso azkar egin du aurrerapena.

Produkzioan ere nabaritzen zaioa. Irakurritakoaren ulermenean, dena den, baditu bere gabeziak. Saiatzen da ulermen estrategiak erabiltzen, baina ez du beti asmatzen. Bultzatzen ditugun estrategia hauen erabilera hutsa kaltegarria da noizbait bere kasuan.

Ikasle guztiengan nabaritzen den trebetasun guztien arteko oreka. Neurri handi batean erabilitako planteamendu metodologikoen ondorioz (trebetasun guztiak eta eduki linguistikoen arteko nolabaiteko oreka)

2.IKASTALDEA

Ikastalde honetan ere irakasle aldaketa izan da urtarrian. Hori dela eta, bi irakasleekin izan dut ebaluazioari begirako elkarrizketa.

1. EBALUAZIOA

Ebaluazio data: otsailak 6

Ahoz egindako ebaluazioa + idatzizko ohar batzuk irakasleak berak eginak.

JOSE MARI

JARRERA

Asistentzia boladaka. Lan arazoak izan dira nagusi (argiketaria da eta Gabon bueltan lan karga handia izan du kaleko argien inguruan) Honi udalak zor zizkion egun libre batzuk gehitu behar zaizkio. Normalean (ez beti) aldeztu aurretik iragarri du ez etortzearena.

Jarrera ona du, askotan parte hartzen du.

Klaseko lanak egiten ditu eta etortzen ez denean ere arduratzen da egindakoaz, agindutakoaz.

Euskaltzalea da. Normalean euskaraz aritzen da. Aparteko interesa du euskaraz aritzeko bere gustu eta interesen inguruko gaiekin (ehiza, txoriak...)

Lasaiegia ez ote den: konfiantza handiegia du bere mailan; agian "apalagoa" izan beharko luke.

AURRERAPENA

Ikus aurreko arrazoiak.

Bere taldeko onena da. Arestian esan bezala, "apalagoa" izan beharko luke eta bere erroreak onartu.

Maila txukuna du eta hiztegi aberatsa. 1HEko Atarikoa gaindituta du... Idazmena landu behar du, baina badu gainditzeko maila. 2HE ere gaindi lezake.

JOSE LUIS

JARRERA

Asistentzia ona du, ia-ia egunero.

Taldeak baino isilagoa da, baina parte hartzen du: zalantzen inguruan galdetzen du, galdetzen zaionean erantzun egiten du. Konfiantza hartuz gero, hobeto ibiliko da.

Langilea da: klasean eskatutako guztia egiten du, baina hortik aparte ez.

Euskaltzalea, euskararen aldekoa.

Batzuetan erdi etsiturik egoten da, bereziki bere burua galduta ikusten duenean, ailegatu ezinda. Badu moral hauskorra, zailtasunen aurrean desanimatu egiten da. Konfiantza (bai berarengan, irakaslearengan zein ikaskideengan) beharrezkoa da berarentzat. Zentzu honetan, talde aldaketa ez da ona izan berarentzat.

Bestela, oso jarrera ona. Normalean euskaraz aritzen da.

AURRERAPENA

Poliki, baina aurrera doa.

Euskara utzita izan ondoren, lehenagoko maila berreskuratzen ari da.

Izakeragatik, dena izan behar du kontrolatuta (adibidez, ulermen ariketetan dena ulertu behar du)

2. EBALUAZIOA:

Ebaluazio data: maiatzaren 7a

JOSE MARI

JARRERA

Oso asistentzia ona eta etorri ez denean, beti abisatu izan du aurretiaz. Gutxitan huts egin du eta sekula ere ez abisatu gabe.

Oso parte hartze ona; agian, espontaneoegia. Adarretatik joateko arriskua. Bai berarekin, bai bere ikaskidearekin askotan aldatu egin behar izan du klaserako prestatutakoa. Edozertaz hitz egiteko gai. Bereziki, bere gaietara, bere esparrura joateko joera. Zaletasun asko ditu eta zaletasunen inguruko hiztegia ondo menperatzen du: kirola (Atletismoa) eta natura (basoa, animaliak, hegaztiak...) bereziki. Irakasleak beak baino gehiago daki arlo hauetako terminologiaren inguruan.

Asko irakurtzen du euskaraz, bere gaien inguruko zein beste arloren batekoak.

Ez da inondik ere behartuta sentitzen ikastera. Euskara ikasteko gogo handia du. Badu 1HE aurtan gaindituta. Bere burua gai ikusten duenean, 2. HE ateratzen saiatuko da, baina presarik gabe, premiarik ez baitu. Horregatik, ez dio ardura berak baino maila apalagoa dutenekin aritzea. Nahaiago du lagun giroanegon eta gustura sentitu...Dena den, bestela ere, ez dago aukerarik, gaur egungo udal taldeen antolamendua dela eta. Ez dago gaur egun bere mailari dagokion talderik. Irakaslearen ustez, hobeto legoke maila handiagoko beste talde batean.

Berez euskara erabiltzeko joera naturala du laneko lankide euskaldunekin. Beti aritzen da euskaraz, gaia edozein delarik.

Estresik gabeko joera lasaia. Berez du izakera lasaia, baikorra, orekatua... Gainera, langile kontzientzia argia. Gustura dago bera denarekin eta eginbeharrekoekin.

AURRERAPENA

Ez dio nabaritu aurrerapen handirik, arestian deskribatutako koadro orokorraren barruan. Maila ona du, bai hizkuntzaren ezagutza, bai erabileran... Euskal "sena" ere nabaritzen zaio. Eta dagoen egoeran kostatu egingo zaio aurrera egitea, lehen esan bezala, klaseko maila apalagatik. Aurreratzen duena, berak egiten duen klasetik kanpoko lanari esker aurreratuko du.

Lexikozalea da; eta hau bere gustukoak diren esparruko gaietan ez ezik, gainontzekoetan ere bai. Memoria ona du.

Ulermen mailan arazorik ez..

Ahozkoan idatzizkoan baino maila hobea du. Idatzizkoan ere mugatu egin du klasearen maila apalagoa izateak, sarri askotan elkarrekin egin izan baitituzte produkzio idatziak. Etxean egindakoetan hobea; baina ahazkoan erakusten du, batez ere, bere benetako maila. Oso praktikoa da: ikasten duena erabili egiten du; gainera, gustukoa du hitz egitea, erabiltzea... Idatziz, gaztelaniaz asko idatzi duenez (olerkiak bereziki), ez du hainbeste idazten euskaraz, ama hizkuntzan sentitzen duen kalitatea jeitsiko duelakoan, euskaraz ezin duelako komunikazio maila bera lortu.

JOSE LUIS

JARRERA

Asistentzia oso-oso ona, Jose Marirena bezalakoa.

Oso motibatuta dago euskara ikasteko (abertzalea, euskalduna...); emaztea andereñoa du, alabak D ereduan ikasten du...; baina, hala ere, dena egiten dute erderaz etxean; koadrillan bera erdaldun bakarra izanik eta gainontzekoak euskaldunak izan arren, denek egiten dute erderaz beragatik. Kontraesan handia nabaritzen da.

Nortasun aldetik ahul samarra da: bere taldetxoan izan den irakasle-aldaketa bakoitza (ikasturtean zehar hiru irakasle izan dituzte) asko kostatu izan zaio egoera berrira egokitu arte.

Parte hartze aldetik ondo. Baina sarritan jo behar izaten du gaztelaniara: zerbait inportantea ean behar duenean, edo beste egoera batzuetan, gai batek hunkitu, mindu edo haserretu egiten duenean... Horrelako egoera emozional fuertetan gaztelaniara jotzen du.

Klaseko ariketak egiten ditu, baina hortik aparte ez. TB pizka bat ikusten du. Liburuska errezen bat irakurri du ikasturtean zehar.

Ordu beteko moduluarekin ez dago guztiz konforme, labur geratzen baitzaio.

Adierazten du estres puntua; bereziki euskaraz esan nahi duena ezin esan dezakeenean. Azkenaldian, gainera, oso blokeatuta ikusi izan du; eragozpenen aurrean etsituta, urduri, ziurtasun faltarekin, ondorioztatzeko edo inferitzeko gaitasunik gabe.... Gainera, kontuan hartuta hasieran askoz hobeto jokatzeko zuela, harrigarriagoa egiten da azken txanpako beherakada. Arrazoia ez dago oso garbi, baina litekeena da Jose Marirekin bakarrik egotean kontraste handia nabaritzea berarekin eta pitin bat akonplejatzea.

AURRERAPENA

Aurrekoa ikusita, estankatuta dagoela esan daiteke. Are gehiago, zenbait arlotan (ulermen estrategietan bereziki) atzerantza egin duela ere esan daiteke. Orain ikusi egin beharko litzateke hirugarren hiruhilabetean talde berrian gehiago izanda, ea zer nolako jarrera erakusten duen.

3. IKASTALDEA

Ebaluazio data: Apirilak 5

PATXI

JARRERA

Duela bost edo sei urte 1-A bukatu zuen. Orduz geroztik urtero matrikulatu izan da, baina urtero utzi behar izan dio etortzeari lan-arazoak direla eta. Ikasprozesuaren ikuspegi berezia. 1-Aren bukaeran irakaslearekiko azken elkarriketa euskara hutsean burutu zuen eta ikasturte hartan ez zuela ezer ikasi uste zuen. Orain ere uste du 2. mailara txiripaz heldu dela, berak merezi gabe.

Ikasturte honetako lehen hiruhilabetea ez ze klasera etorri. Inkorporatu denetik “formal-formal” etorri izan da klasera.

Etxean ez du ezer egiten irakasleak agindu zein ez agindu, astirik ez duela-eta. Egiten duen guztia klasean egiten du.

Estrategia munduan oso-oso ondo dabil; aparteko kasua da alor honetan. Ikertzekoa da. Baina hau ez daki baloratzen: hau da, estrategien bidez lortzen duena (bai ulermen mailan, bai produkzioan) ez du baloratzen; aitzitik, euskaraz benetan jakiteko oztopo bat da. Ez du onartzen estrategiak mesedegarriak direla ikas-prozesuan. Egia esan, maila teorikoan indikatiboa bera ere ez zuen menperatzen. Orain ere ez du erabat menperatzen, neurri batean bere kabuz ezer egiten ez duelako etxean. Hala ere, indikatiboa menperatu gabe ere, oso ondo komunikatzea lortzen du (menperatzen ez diren formak forma baliokideekin ordezkatzuz)

(Honen inguruan, eztabaida gogorak izaten ditu oso “koadrikulatua” eta gramatikazalea den bere ikaskidearekin)

Interesa badu, printzipioaz ez baitu titulu premiarik. Klasetik kanpo ere erabiltzen du euskara

AURRERAPENA

Irakaslearen ustez, izugarria; ikaslearen ustez, ez gorago aipatutako arrazoiengatik. Agian, berea da aurrerapen nabarienetarikoa. Agian falta zitzaiona (gramatikako oinarritzko kontzeptuak finkatzea) eskuragarriena delako, beste gabezia eskuragaitzagoekin alderatuta (ikas-estrategiak, produkzioa...)

Produkzio mailan ezagutza mailan baino hobeto dabil (normalean gertatzen denaren aurka) Dena den, oso “logika” berezia du eta batzuetan ez da erraza esan nahi duena (ahoz zein idatziz) ulertzea.

ROGELIO

JARRERA

Oso irregularra da, lan-arazoak direla-eta.

Bere arazoa zera da: ez dakiela deskonektatzen. Bai lanetik deskonektatzea klasera datorrenean, bai klasetik deskonektatzea lanera itzuli behar duenean. Badaki zertan datzan bere arazoa, baina ez du ezer egiten hau ebitatzearren.

Klaseko lanaz gain, etxean bere kabuz ere egiten du, bereziki gramatikaren lanketari dagokion lana. Gramatikazale amorratua da, ikaragarria, gehiegi...

Interesa badu, baina, nahiz eta berak ukatu, irakasleak uste du baduela HEekiko kezka eta ardura. (Badirudi gure testuinguruan politikoki ez-zuzena dela HEen bat ateratzeko helburua dutela)

Estres puntua. Honek ere oso nabarmena du. Honek izugarri trabarazten du eta oztopo handia bihurtu zaio komunikaziorako. Askotan gaztelaniara pasatzen da berak nahi duen bezala esan nahi duelako. Kurtso hasieran bi aste eman zuten gaztelania hutsean ez baitzen irakaslea ulertzeko gai. Orain traba hau erdi-gainditu du, baina batzuetan blokeatu egiten da edozertarako (ulertzeko, hitz egiteko...)

AURRERAPENA

Nahiko estankatuta, duen nortasunagatik bereziki. Gainera, ez ditu onartzen desblokeatzeko irakasleak egiten dizkion iradokizunak. Bere horretan segitzen du.

Aspaldian hasi zen ikasten. Aurrera joan da urratsetan, baina ez du benetako ikas-prozesurik izan. Orain izugarritzko desoreka du ezagutza eta produkzioaren artean. Maila teorikoan asko ezagutzen du, behar duena eta ez duena, dena eman du. Baina gero ez da gai erabiltzeko. Eta, honekin batera, nahasmen handia. Lexikoan ere hitz asko, datu asko, gehiegi ditu, baina ondo kolokatu gabe, dena nahasian.

Idatzizko produkzioan askoz hobeto maneiatzen da irakaslearekin mezu idatziak asko landu baititu. Ahozkoan asko nekatzen da eta berehala jotzen du gaztelaniara.

3. IKASTALDEA

Ebaluazioa data: Apirilaren 2a,

JULIO

JARRERA

Oso asistentzia ona, oso puntuala, oso gutxitan egin du kale, eta egin duenean, oso justifikatua.

Parte hartzeaz. Taldea txikia izateak eragin handia du parte hartzean: berez izan behar talde arrunt batean baino intentsuagoa, bai hitz egiteko, zalantzak argitzeko, galderaren bat egiteko. Beraz, ikasle guztiek dute parte hartzen ona.

Lana. Proposatzen zaizkion lan guztiak egiten ditu, baina bere kabuz ez du egiten askorik, itxura batean. Klaserako bertarako lana era guztiek egiten dute, hau ere taldea txikia izatearen eraginez. Etxerako ezer agintzekotan, Juliok beti egiten du.

Interesa. Honetan ere badago talde ikuspegia. Printzipioz, ez dator inor behartuta, ikasleen beraien esanetan, baina irakaslearen ustez azterketak bai egiten duela nolabaiteko presioa. Julioaren kasuan hau argi eta garbi ikus daiteke. Azterketa egiten duen bakoitzean animatu egiten da; baina suspenditzen duen bakoitzean desanimatu eta desmotibatu egiten da eta azterketaren bidea uzteko planteamendua egiten du. (Dagoeneko sei bat aldiz aurkeztu da) Euskara uztea ez du inoiz planteatu. Bestela, gogotsu eta interesatuta ikusten du.

Estres puntua. Julio erabat estresatzen da. Bere eragozpen bat haxe da: ez dakiela parafraseatzen. Ideia bat du buruan, gaztelaniaz definituta. Ideia hori pentsatuta duen bezala adierazi nahi du euskaraz. Baina horretarako ez du nahiko lanabesik edo hizkuntza baliabiderik. Horrelako kasuetan trabatu egiten da eta ez doa aurrera. Egoera honetan larritu egiten da erabat.

(Irakaslearen apunte kritikoa. Hizkuntza Eskakizunen inguruan bada sarritan errepikatzen den fenomeno bat, askotan errepikatzen den akatsa: ikasleak sarritan probatzearen aurkezten dira edo bidaltzen dira/ditugu, baina behin probatuta ere, aurkezten segitzen dute. Probatzea ondo egon daiteke, baina ikasle batek mailarik ez badu, irakasleak berak esan behar dio momentuz ez aurkezteko, maila eman arte; azken batean, ikaslearen kalterako baino ez da izango. Julioaren kasuan, agian gaur egun badu zentzua aurkezteak, baina orain arte hainbat aldiz aurkeztu da alferrik eta ikaslearen animua eta auto-estima mintzen joan dira.)

Erabilera. Klasean behintzat euskara erabiltzen du. Baina ñabardura edo zehaztapenen bat egiteko noizbehinka gaztelaniara jotzen du.

AURRERAPENA

Mailarik eskasena erakusten du. Ez du aurrerapenik nabaritzen berarengan. Gainera, irakasleak ez daki oso ondo nola lagundu bere estankamendutik ateratzen. Gramatika aldetik, jakin badaki; horren ondoan oso erabilera arraroak, duen ezagupen gramatikalarekin ondo lotzen ez dena. Kurtso hasieran oso motela zen hizketan eta halaxe jarraitu du. Estankatu samar. Idaztean nabaritzen zaio nolabaiteko aurrerapena: orain gehiago arriskatzen du (lehen akatsez gain, oso zozoak eta monotonoak ziren), gauza berriak sartzen ausartzen da. Ahoz, ordea, ez.

Honetan eraginik handiena duten faktoreak, larritzeko eta "estresatzeko" jokaera eta, bestetik, gaztelaniarekiko morrontza hori (parafraseatzeko gaitasunik eza).

Ezagutza mailan ondo dabil, lexikoan izan ezik (bereziki, gaztelaniarekiko sasi-leialtasun horren ondorioz). Baina produkzioa ez doa inolaz ere ezagutzarekin bat. Alde handia dago bi arloen artean.

Beraz, ezagutzen produkzioan baino hobeto, eta idazmenean mintzamenean baino hobeto.

MARIA LUISA

JARRERA

Asistentzia ona eta, etortzen ez denean, abisatu egiten du. Parte hartzea ere bai.

Lana. Klaseko lan guztiak egiten ditu, etxeakoak ere bai. Gainera, klasean egiten dituzten lan guztiak ordenagailura pasatzen ditu.

Interesa. Gogotsu eta motibatuta azaltzen da.

Estres puntua. Maria Luisak baditu estrategiak: nola edo hala saiatzen da oztopoak saihesten, modu naturalean, berarengandik aterata. Badaki, beraz, eragozpenei aurre egiten. Eta eragozpenak aurkeztu direnean, saiatzen da aurre egiten, larritu gabe.

AURRERAPENA

Hasieran bazirudien maila kaskar samarra zuela. Harrez gero, aurreratu egin du; ez HE ateratzeko beste, baina... Honetan asko lagundu dio esfortzuak eta arestian aipatutako izaera eta eragozpenei aurre egiteko gaitasun hori.

Ezagutza mailan ondo dabil eta aurrera egiten du. Gainera, nahiko ondo asimilatzen du klasean azaldutakoa. Lexiko mailan, ordea, flojotxoago, nahiz eta estrategia batzuei esker (parafraseatzearena besteak beste) gabeziei aurre egin.

Produkzio mailan, nabaritzen zaio nolabaiteko aurrerapena. Badu desoreka nabarmena ezagutza eta produkzioaren artean; baina produkzio mailan ez du desoreka nabarmenik ahozkoaren eta idatzizko produkzioaren artean. Edonola, bai Maria Luisak, bai ikaskideek, gorabehera handiak dituzte egun batetik bestera.

MARISA

JARRERA

Azkenaldian asistentzia oso kaskarra izan du (lana, familia-arazoak...) Beti esaten du zergatik ez den etorri...

Klasean lan egiten du; etxean ere ez du beti egiten klasean eskatutakoa (astirik ez izatea argudiatuta) Bere kabuz, are gutxiago.

Interesa. Gogotsu ikusten du. Klaseko baldintzak eta, horien ondorioz, sortutako giro onak asko laguntzen du honetarako (izan ditzakeen bestelako premiak albo batera utzita)

Estres puntua. Eragozpenei erdaraz erantzuten die, baina larritu gabe. Zerbait esan behar/nahi duenean euskarazko hitz egokia aurkitu ezean, gaztelaniara jotzen du. Bestela, oro har, euskaraz aritzen da.

AURRERAPENA

Hasieran alde handiagoa nabaritzen zen bera eta gainontzeko guztien artean. (Agian 1HE lortua zuela jakiteak baldintza zezakeen, nolabait, pertzepzio hau) Orain alde hau ez da hain handia. Aurten 2HEra aurkeztu zen eta Atariko Proba ere ez zen gainditu. Honek nolabaiteko erlaxaziora eraman duen, irakaslearen ustez: aurten 2HE helburu lortezintzat jo ondoren, erlaxatu egin da. Agian gehiegi. Oso lasaitu da. Klasera etortzen denean ez da asko saiatzen. Klasean egoten da, lan egiten du... baina lasai. Honetan asistentzia urriak ere izango zuen eragina, hainbat senide osasun arazoekin...

Are gehiago, ematen du azkenaldian atzerantz egin duela pitin bat; baina, edonola ere, hau ez da unerik egokiena honelako ebaluazioa egiteko.

Produkzioan, jaitsialdi hau izan arte, nahiko ondo zebilen, baina, esan bezala, azkenaldian ez dabil oso fin.

XABIER

JARRERA

Oso asistentzia kaskarra, lana dela eta batez ere (oporraldia izan du ikasturtean zehar) Hilabetetik gora darama etorri gabe. Azkenaldian internet bidez aritzen da irakaslearekin.

Oso parte hartzen ona du.

Lana. Etxean ez du beste ezer egiten, irakasleak agintzen duenaz gain. Orain zertxobait aritzen da internet bidez.

Interesa. Badu, ez dago behartuta.

Estres puntua. Honek ere gaztelaniaz pentsatzen duen era berberean esan nahi du euskaraz. Horrek, jakina, eragozpenak eta zailtasunak sortzen dizkio. Hauxe da duen arazorik handiena. Baina ez da bereziki larritzen. Ez ditu Maria Luisak dituen estrategiak erabiltzen. Konturatzen da esaten ari dena ez dagoela ondo, baina ez du beste biderik ikusten. Zuzenketak eta onartzen ditu.

Erabilera. Klase garaira mugatzen dela uste du.

AURRERAPENA

Etorri izan den bitartean nabaritu izan dio aurrerapena. Berak ere esan izan du, akatsak akats, hobeto sentitzen dela euskaraz aritzean. Hasieran oso bortxatua, behartua zen bere euskara; orain "normalago", "naturalago" sentitzen da. Gainera, zenbait forma, esamolde... oso grabatuta geratu zaizkio. Aurrera egiteko aukera handiak ikusten zaizkio. Behin asistentzia normalduta, asko egin lezake aurrera. (Besteak beste, HEren akreditazioa)

Ezagutza mailan baditu hainbat kontzeptu ondo txertatuta bere barruan (Beste udal euskaltegi batetik dator) Baina desoreka nahiko handia nabaritzen zaio produkzioa eta ezagutzaren artean (ez besteei baino gehiago) Berezikiko gaztelaniarekiko morrontza.

Oro har, laurei nabari zaie lexiko mailako hutsune handia eta estrategia falta nabarmena (Maria Luisari salbu)

4. IKASTALDEA

EBALUAZIO DATA: Maiatzaren 6a

MANU

JARRERA

Asistentzia nahiko ona izan du orain arte, baina azken hilabeteetan arazoak izan ditu klasera etortzeko (ikastaro batzuk egin beharra, ordezkari sindikala). Etorri ezin izan denean aldeztatik iragartzen du normalean.

Parte hartzen du, euskaltzalea da... Klaseko giroa ere aproposa da honetarako.

Proposatzen diren lanak normalean egiten ditu. Baina bere kabuz ez du besterik egiten.

Benetan du ikasteko gogo. Aspaldian ari da ikasten (hasi eta utzi, hasi eta utzi...)

Lasai jarraitzen du ikas-prozesua, ez da estutzen arazoen aurrean. Inolako larritasunik.

Normalean klasean gaztelaniara jotzen du, maila baxu samarra baitu.

AURRERAPENA

Hasieran ezer gutxi zekien. Hori kontuan hartuta, lehenengo hiru hilabeteetan nahiko aurreratu zuen berak, zein klase osoak; baina ondoren asistentzia nahiko kaskarra izan da (batzuetan ikasle bakarra edo bi baino ez dira izan) eta ezin izan dute jarraitu erritmo sendorik edo ildo jakinik. Honek asko baldintzatu du guztien aurrerapena, produkzio aldetik bereziki. Azkenaldian apurka-apurka aurreratu du.

Ezagutza mailan era klasikoan ikastera ohituta dago. Kostatu egiten zaio zenbait ikas-estrategia garatzea (adibidez, hitzak testuingurutik atera...) Gainera, klasean egiten dena mugatzen da; klasetik kanpo ez du aparteko esfortzu edo ahaleginik egiten klasean jasotakoa barneratzen.

Produkzio mailan, aurrerapen txikia: esaldi laburrak egiteko gai da; ez horrenbeste kontakizun osoa egiteko. Idatzian, akats nahiko, nahiz eta zerbait kontatzeko gai izan.

Jarraipena behar du, aurreratu nahi badu.

MAIKA

JARRERA

Duela hilabete bat utzi zuen, lan handia baitzuten berak lan egiten zuen sailean; gainera, lankide batek baja hartu zuen. Ordura arte asistentzia nahiko ona zen. Berak ez du esan utziko zuela, baina bistan da ez dela itzuliko.

Parte hartze handia zuen; klasean bertan ere giroa sortzen zuen. Are gehiago, bera klaseko emakume bakarra izanda (adar-jotzeak...)

Langilea zen. Interesa handia zuen, berak adierazita, nahiz eta ikastaro utzi izanak besterik adieraz zezakeen. (Irakaslearen apunte kritikoa: ikastaroa antolatu orduko, segurtatuta egon beharko luke enpresaren aldetik ikasleen asistentzia)

Berau saiatzen zen gehien euskara erabiltzen klasean. Eta ez zen larritzen arazo eta oztopoen aurrean.

APROBATXAMENDUA

Aurrerapena nahiko handia zen, baina eten egin zen ikas-prozesua etetearekin batera

JOSE MANUEL

JARRERA

Asistentzia nahiko ona izaten da; baditu faltak... baina normalean iragarri egiten ditu.

Susanarekin batera, berak erabiltzen du gehien euskara eta orain, Susana ez dagoela, berak sortzen du klasean giroa. Mailarik altuena duenez, bestalde, bera da besteentzako erreferentzia. Parte hartzen du.

Klasetik kanpo badu nolabaiteko lotura euskararekin (17 urteko alaba).

Ikas-estrategiak erabiltzen oso trebea da (hitzen esanahia inferitzeko, adibidez)

Lanean bertan ikusten du euskara ikasteko eta aurreratzeko arrazoi nagusia (lankideekin ezin komunikatzea, mugak izatea...)

Eragozpenen aurrean segurtasun falta islatzen du: arestian esan bezala, baditu eragozpenoi aurre egiteko estrategiak, baina ziurtasuna edo konfiantza falta zaio arriskatu eta praktikan jartzeko.

Saiatzen da euskara erabiltzen, gehien Susanarekin batera.

APROBETXAMENDUA

Hau ere sarritan hasi eta utzitakoa da. Bazuen kurtso hasieran nolabaiteko ezagutza: kontzeptu eta ideia asko buruan, nahastuta eta sistematizatu gabe.

Aurreratzen ari da apurka-apurka, klaseko martxak nolabait baldintzatuta. Agian gehiago aurrera zezakeen, baina izan zezakeen aurrerapenari galga jartzen dio klaseko martxari egokitzeko.

(Kate bat egin daiteke: klasearen martxak baldintzatu egiten du ikasleen aprobetxamendua; eta lan-baldintzek baldintzatu egiten dute klasearen martxa)

Ulermen mailan nabaritzen zaio bereziki aurrerapena (gogoan izan ikas-estrategiak) Lanean lankide euskaldunak izateak ere asko laguntzen du. Produkzio mailan ere badu aurrerapen nabaria. Gainera, zuzentasunaz ere kezkatzen da, gauzak nolabait kontrolatzeaz.

TXEMA

JARRERA

Asistentzia onena berea (etorri ezin izan denean oso arrazoi jakin eta ezagunengatik)

Parte hartzen du. Berau ere metodo klasikora ohituta dago. Kostatu egiten zaio hizkuntzaren sisteman dagoen logikaz edo funtzionamendu erregularraz ohartzea.

Klaserako eskatzen den lan guztia egiten du. Horrezaz gain, klasera ezin etor daitekeenean, klasean egindakoaz, ikasitakoaz... arduratzen da. Honetan bakarra da. Bere kabuz ere zerbait egiten du, bereziki bere alaba txikitxoarekin egiten duena (ipuinak irakurri, zertxobait hitz egin) Berarentzako liburu bat ere erosi du (lexikoa ikasteko)

Ikasteen estres puntua erakusten du, bereziki zerbait ulertzen ez duenean edo euskararen gramatika sistemaren logika ikusten ez duenean, hitzen arteko lotura ikusten ez duenean (hitz bakoitza mundu bat da)

Ez du euskara erabiltzen (irakaslearekin bakarka agian esaldiren bat) Duen maila baxuak ere ez dio asko laguntzen. Gainera, berez hitz jario handia du eta, ondorioz, derrigorrean gaztelaniara jo behar du.

AURRERAPENA

Ikasle hau ere sarritan euskara ikasten hasi eta utzitakoa da. Iraila urrian hasten zen; abendu inguruan utzi egiten zuen (bera argiketaria da eta garai honetan Gabonetako argiteria jartzen da kaleetan) Ondoren, Gabon ostean, itzuli egiten zen, baina orduan bere burua galduta ikusten zuen klasean eta utzi egiten zuen; hurrengo urtean errepikatu egiten zen prozesu hau. Aurten lehenengo aldiz hasi eta bukatuko du ikastaroa eta, alde horretatik, oso pozik dago lortutakoarekin, ez horrenbeste lortzen ari den euskara mailarekin (berak ere gehiago espero zuen) Klasea ordubetekoa denez, tarte horretan ez da beste urteetan eguneroko bi orduko erritmoarekin gertatzen zen desfase handia sortu.

Bere aurrerapena, bestela, oso apurka doa, poliki-poliki-poliki. Honetan eragin handia dauka bai ikasteko ohitura faltak (ikasi beharrekoa dena dela), bai ikasteko moduak (dena buruz, logika edo erregularitateei erreparatu gabe) Baina aurrerapen geldo honek ez du inolako eragin negatiborik bere interesetan: bere mugak onartzen ditu eta aurrera doa bere martxan. Euskara ikasteko gutxieneko baldintzak bermatuz gero, lor lezake. Honetarako azaltzen duen interesak (alabatxoaren inguruan sortutakoak) hala ematen du aditzera.

Fitxa hau ikasleen autoebaluaziorako erabili dut. Ekainean banatu nien.

2003-04 IKASTURTEAREN BUKAERAN

1. Ikasturtea hasieran zenituen espektatibak bete egin dira?

- Euskararen ezagutza (gramatika)

Bai

Ez. Zergatik?

- Ulermenean

Bai

Ez. Zergatik?

- Mintzamenean

Bai

Ez. Zergatik?

2. Aurreko hiru atalei begira, zeinetan egin duzu aurrerapenik handiena eta zeinetan txikiena?

HANDIENA:

TXIKIENA:

3. Gehiago lortu ahal zenuela uste baduzu, esan ahal duzu zergatik gertatu den hori?

- Ez duzu ahalegin nahiko egin.
- Ez duzu astirik izan gehiago egiteko (lan arazoak edo bestelako arazo pertsonalak...)
- Ikastaldea: maila bajea/altuegia
- Ikastaroaren planteamendua
- Ikastaroa bera: ordutegia, ordubeteko saioa...
- Bestelako arrazoren batengatik...

(Arrazoi bat baino gehiago badago, markatu lehentasunak: 1, 2, 3...)

4. Euskararen erabilera dela eta. Zer esango zenuke?

Euskara ikasturte hasieran baino gehiagotan erabiltzen dut, oro har, lanean zein lanetik kanpo.

Euskara ikasturte hasieran bestetan erabiltzen dut, lanean zein lanetik kanpo.

Euskara ikasturte hasieran baino gutxiagotan erabiltzen dut, lanean zein lanetik kanpo.

Beste erantzunen bat:

(Marka ezazu zuri dagokizun erantzuna)

5. Nolakoa da euskararekiko zaletasuna/identifikazioa?

Ikasturte hasieran baino handiagoa

Ikasturte hasieran bezalakoa

Ikasturte hasieran baino txikiagoa

6. Datorren urtean, ahal izango bazenu, segituko zenuke?

(Aukera ezazu erantzuna)

Bai, lan-ordutegiaren barruan bada.


Bai, ahal balitz aurtengo sistema berean (lan-ordutegia + talde txikiak + ordubete egunero)

Bai, edozein kasutan

Ez, bete ditut nire helburuak

Ez, nekatu/aspertu/desnimatu egin naiz

7. Laburbildu ahal duzu hamar bat lerrotan aurtengo esperientzia?



IZENA:

AL FINALIZAR EL CURSO 2004-05

1. ¿Puedes decir si se han cumplido las expectativas que tenías al comienzo de curso?

- En cuanto al conocimiento del euskara (gramática)

Sí.

No. Por qué?

- En cuanto a la comprensión (oral y escrita)

Sí

No. Por qué

- En cuanto a la capacidad para comunicarte oral y escrita

Sí

No. Por qué

- En cuanto al uso del euskara

Sí

No. Por qué

2. ¿En cuál de los apartados anteriores has experimentado un progreso mayor y en cuál menor?

MAYOR:

MENOR:

3. Si consideras que podías haber tenido un mayor progreso, ¿a qué razones lo atribuyes?

- No me he esforzado lo suficiente

- Falta de tiempo (bien por razones laborales o personales de otro índole)

- El grupo: ha tenido un nivel demasiado elevado/bajo para mí

- El planteamiento del curso

- El diseño mismo del curso: horario, sesiones de una hora..

- Otras...

(Si existe más de una razón te pido que las priorices: 1, 2, 3,...

4. En cuanto al uso del euskara. ¿Con qué afirmación te identificas más?

Uso más a menudo el euskara que al comienzo del curso.

Uso tantas veces como a principios del curso.

Hago menos uso del euskara que a principio del curso.

5. Tu sintonía con el euskara: ¿Cómo te sientes identificado/interesado con/por el euskara?

Más que al comienzo de curso

Igual que al comienzo de curso

Menos que al comienzo de curso

6. Si tuvieras oportunidades de seguir el curso que viene, ¿lo harías?

(escoge la respuesta)

Sí, siempre que sea en horario de trabajo.

Sí, preferentemente con el sistema actual (horario de trabajo+grupos reducidos+hora diaria)

Sí, en cualquier caso.

No, puesto que ya he conseguido mis objetivos

No, porque me he cansado, desanimado...

7. ¿Podrías resumir en unas diez líneas la experiencia de este curso?

NOMBRE:

MOTIBAZIOA/JARRERA

GURE HIZKUNTZA	ASISTENTZIA	ERABILERA	EUSKARAREKI KOA	PARTE HARTZEA	PSIKOLOGIA	LAN EGITEKOA
Juanra	ona	urria	normala	handia	lasaia	Ona
Tomas	oso ona	oso ona	handia	ertaina	Larri Zuzenketa ez onartu	oso ona
Jose Luis	oso ona	urria	handia	ertaina	Ahula, desanimatu	Ona
Arturo	oso ona	ona	handia	handia	auto-estima handia	Ona

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	ASISTENTZIA	ERABILERA	EUSKARAREKIKO	PARTE HARTZEA	PSIKOLOGIA	LAN EGITEKOA
Maika (+ kultura hizkuntza)	ona (UTZI arte)	ona	kritikoa	handia	baikorra, aktiboa	Ona
Julio (+ komunikatzeko)	oso ona	urria	normala	ona	desanimatu eragozpenekin	Ona
Marisa (+kultura hizkuntza)	balekoa	ona	normala	ona	erlaxatuta	Balekoa
Xabier (+ kultura hizkuntza)	balekoa (UTZI arte)	urria	ona	handia	lasaia	Balekoa
Rogelio (+kultura hizkuntza)	ona	urria	neutroa	ona	perfekzionista blokeatu eragozp.	Balekoa

KULTURA	ASISTENTZIA	ERABILERA	EUSKARAREKIKO	PARTE HARTZEA	PSIKOLOGIA	LAN EGITEKOA
---------	-------------	-----------	---------------	---------------	------------	--------------

HIZKUNTZA						
Manu	ona	urria	ona	ona	lasaia	Balekoa
Maika + HE	ona UTZI arte	ona	ona	handia	baikorra, aktiboa	Ona
Monika	ona	oso ona	ona	ertaina	baikorra, posibilista	Oso ona
Tomas (+gure hizkuntza)	oso ona	oso ona	handia	ertaina	Larria Zuzenketa ez onartu	oso ona
Marisa (+ HE)	balekoa	ona	normala	ona	erlaxatua	Balekoa
Xabier (+HE)	balekoa (UTZI arte)	urria	ona	handia	lasaia	Balekoa
Jose Mari	balekoa-ona	oso ona	handia	handia	lasaia, baikorra, orekatua	Oso ona
Patxi	balekoa	oso ona	ona	ona	auto-estima baxua axolagabea HEetan	Ona
Rogelio (+HE)	ona	urria	neutroa	ona	perfekzionista, blokeatu.	Balekoa

KOMUNIKATZEKO	ASISTENTZIA	ERABILERA	EUSKARAREKIKO	PARTE HARTZEA	PSIKOLOGIA	LAN EGITEKOA
Txema	oso ona	urria	ona	handia	estres puntua	oso ona
Jose Manuel	ona	ona	normala	handia	segurtasun eta konfiantza falta	Ona
Julio (+ HE)	oso ona	urria	normala	ona	desanimatu eragozpenekin	Ona
Maria Luisa	ona	ona	ona	ona	eragozpenei aurre egiten daki	oso ona

MOTIBAZIOA/AURRERAPENA

EUSKARA GURE HIZKUNTZA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Juanra	X		
Tomas (+ Kultura hizkuntza)		X	
Jose Luis			X
Arturo		X	

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Maika (+ kultura hizkuntza)			X
Julio (+ komunikatzeko)			X
Marisa (+ kultura hizkuntza)		X	
Xabier			X
Rogelio (+ kultura hizkuntza)			X

EUSKARA KOMUNIKATZEKO	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Txema			X
Jose Manuel	X		
Julio (+ Hizkuntza Eskakizuna)			X
Maria Luisa	X		

KULTURA HIZKUNTZA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Manu			X
Maika (+Hizkuntza Eskakizuna)			X
Monika		X	
Tomas (+ Gure hizkuntza)		X	
Marisa (+ Hizkuntza Eskakizuna)		X	
Xabier (+ Hizkuntza Eskakizuna)			X
Jose Mari	X		
Patxi			X
Rogelio (+ Hizkuntza Eskizuna)			X

JARRERA/AURRERAPENA

ASISTENTZIA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Oso ona		- Tomas - Arturo	- Jose Luis - Julio - Txema
Ona	- Jose Mari - Juanra - Jose Manuel - Maria Luisa	- Monika - Marisa	- Manu - Rogelio
Balekoa			- Patxi
Eskasa			- Xabier - Maika

ERABILERA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Klasean + lanean + lanetik kanpo	- Maria Luisa	- Tomas	
Klasean + lanean/lanetik kanpo	- Jose Mari - Jose Manuel	- Monika - Arturo - Marisa	- Patxi -
Klasean bakarrik	- Juanra		- Maika - Rogelio - Julio
Klasean, baina oso gutxi			- Manu - Jose Luis - Txema - Xabier

LANERAKO JARRERA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Klasean eta etxean egiten du lan	- Jose Mari - Maria Luisa	- Monika - Tomas - Arturo	- Rogelio - Jose Luis - Txema
Klasean bakarrik egiten du lan	- Juanra - Jose Manuel	- Marisa	- Patxi - Xabier - Maika - Julio - Manu
Lan gutxi egiten du			

EUSKARAREKIKOA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Identifikazio oso handia	- Jose Mari	- Tomas - Arturo	- Jose Luis - Patxi
Identifikazio handia	- Jose Manuel		- Txema - Manu
Identifikazio neutroa	- Juanra - Maria Luisa	- Monika - Marisa	- Rogelio - Julio - Xabier
Identifikazio kritikoa			- Maika

PARTE HARTZEA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Handia	- Juanra - Jose Mari - Jose Manuel	- Arturo	- Rogelio - Txema - Patxi - Maika - Manu
Ertaina	- Maria Luisa	- Monika - Tomas - Marisa	- Jose Luis - Julio - Xabier

JARRERA PSIKOLOGIKOA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Estresatua, erraz desanimatzekoa, autoestima baxua, konfiantza gutxi...		- Tomas	- Patxi - Jose Luis - Txema - Julio
Lasaia, patxadatsua	- Juanra - Jose Mari	- Arturo - Marisa	- Manu - Xabier
Aktiboa, baikorra, eragozpenei aurre egiteko pronto..	- Jose Mari - Jose Manuel - Maria Luisa	- Monika	- Maika -
Ez onartu zuzenketak		- Tomas - Arturo	
Bere burua gutxietsi			- Patxi
Axolagabea			- Patxi

IKAS ESTILO MARKATUA	AURRERAPEN HANDIA	AURRERAPEN ERTAINA	AURRERAPEN TXIKIA
Badaki ikasten. Dena aprobetxatzen du (lanekocmaterial erreala)		- Monika	
Jarrera aktiboa: ikaslearen oharrak, azalpenak, iradokizunak gogoan hartu, apuntatu..., akatsei erreparatu	- Juanra - Maria Luisa		
Ikasitakoa erabiltzeko joera		- Tomas	
Euskaldun zaharrekin praktikatzeko joera.		- Arturo	
Ulermen estrategiak erabiltzen ditu (hitzen eta esaldien esanahia inferitzeko bereziki)	- Maria Luisa		- Patxi
Bizitzako interesak euskararekin lotu	- Jose Mari		
Gramatikazalea			- Rogelio - Txema
Ikasteko estilo tradizionala (buruz, gramatikan oinarrituta)			- Txema